20 URTE ZUEKIN.

goiena

2020-12-11 EGUBAKOITZA / 885. ZENBAKIA / 21. URTEA
DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA GOIENA.EUS TOKIKOM




+ Toti Martinez de Lezea idazleari elkarrizketa

Aberastasun sentsaziotik, gerrikoa estutzera



# GABONETAKO OPARIAK, BERTATIK BERTARA

Udalek eta dendari elkarteek Gabonetan herrian erostera dei egin dute eta hainbat laguntza bideratu dituzte kontsumoa sustatzeko / 23

Gizonezko bat eta emakumezko bat, Arrasateko Herriko Plazan, orain dela gutxi jarritako Gabonetako arbolaren ondoan.

GEHIGARRIA ERDIKO ORRIETAN

XABIER URZELAI

## "Gazteei aukera eman behar zaie euskaraz gozatu dezaten inguru guztietan"

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako sailburuordeak Euskaraldiaren balorazio positiboa egin du / 6



Miren Dobaran, Goiena telebistako platoan. MARKEL ARRAYAGO

## Baheketa egitera deitu dituzte Arrasate eta Aramaioko herritarrak, datorren astetik aurrera / 2

## Liburuak, diskoak eta pelikulak erosteko kultura bonuak jarriko ditu eskuragarri Diputazioak / 41

## Anaitasuna taldeko Ugarte eta Lizarbe debagoiendarrak, Getaferen aurka Errege Kopan / 38

### SINADURAK

GARIKOITZ ITURBE / 10
JOANES PLAZAOLA / 33
ENAITZ EZPELETA / 12
UXUE MONTERO / 36
ENERITZ URRUTIA / 15
MIKEL IRIZAR / 48

# Arrasaten eta Aramaion baheketak egitera deitu dituzte 6 urtetik gorakoak

Azken asteetako neurri murriztaileek Arrasaten eraginik izan ez dutela-eta baheketak egitera deitu dituzte herritarrak. 6 urtetik gorako Arrasateko eta Aramaioko herritarrei eskatu zaie PCR probak egitera joateko ospitalera, abenduaren 14tik aurrera

**Maialen Santos** ARRASATE

Arrasaten –1.282,98ko intzidentzia tasa– eta Aramaion –996,02koa– PCR probak egitera joan beharko dute 6 urtetik gorakoek, astelehenetik aurrera. Hitzordua eskatu beharko da: 08:00-20:00. Arrasateko osasun etxean (943 03 52 50) edo osasun-aholkuan (900 20 30 50). Aste osoan hartu ahal izango da txanda, baita asteburuan. Probak Debagoieneko Ospitalean egingo dituzte, astelehenetik egubakoitzera, 08:00etatik 20:00etara.

Mugikortasun arazoak dituztenei autotik jaitsi barik egingo diete proba. Txanda hartzerakoan zehaztu beharko da, hitzordua horretara moldatzeko; horiek arratsaldez egingo dute PCRa. Udalerriko ikastetxeetako eta unibertsitateko ikasleek ez dute hitzordua eskatu beharrik izango, ikastetxeetako zuzendaritza-taldeekin antolatuko dira eta.

## Bailarako herrien intzidentzia tasa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA




## Positibo kasuak

| | Positiboak aste honetan | Positiboak aurreko astean | Positibo metatuak | Positiboak mila biztanleko |
|---|---|---|---|---|
| Arrasate | 136 | 147 | 1.765 | 80,02 |
| Bergara | 22 | 45 | 966 | 64,38 |
| Oñati | 17 | 17 | 522 | 45,97 |
| Aretxabaleta | 12 | 16 | 332 | 46,77 |
| Eskoriatza | 12 | 10 | 194 | 47,72 |
| Aramaio | 8 | 7 | 66 | 43,82 |
| Elgeta | 6 | 2 | 46 | 40,39 |
| Antzuola | 1 | 4 | 141 | 64,06 |
| Gatzaga | 1 | 0 | 3 | 12,00 |
| **GUZTIRA** | **215** | **248** | **4.035** | **62,39** |

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

NEURRI BERRIAK

### HERRIEN ARTEKO MUGIKORTASUNA ETA OSTALARITZA

Euskadiko Babes Zibileko Planaren batzordeak (LABI) zapatutik aurrera indarrean izango diren malgutze-neurri berriak iragarri ditu asteon. Udal konfinamendua kenduko dute, eta mugikortasuna lurralde historikora zabaldu. Lurralde historikoen arteko mugikortasuna ez dute baimenduko, Gabonetako egun batzuetan izan ezik.

Bestetik, ostalaritzako establezimenduen irekiera ere baimenduko dute. Taberna eta jatetxeen terrazetako edukiera %100era utzita eta barneko edukiera %50era mugatuta ireki ahal izango dituzte ateak berriro. Jarrita kontsumitu beharko da. Beranduenez 20:00etan itxi beharko dituzte establezimenduak eta 06:00etatik aurrera ireki ahalko dituzte.

Establezimendua irekitzeko baldintza bat bete beharko da: aurreko hamalau egunetan 100.000 biztanleko 500 positibotik behera izan duten herrietan soilik zabaldu ahalko dituzte tabernak. Astelehenetan eta eguenetan argitaratuko dute irekitzeko baimena duten herrien zerrenda. 5.000 biztanletik beherako herrien egoera ere aintzat hartuko dela iragarri dute. Debagoienean, Arrasatek ez ezik, Aramaiok, Elgetak eta Eskoriatzak ere gainditzen dute 100.000 biztanleko 500 positibo tasa.

Gabonetan, abenduaren 24an, 25ean, 31n eta urtarrilaren 1ean, hamar laguneko taldeak elkartu ahalko dira ospakizunetan, eta etxeratzeko agindua 01:30era arte luzatuko dute 24tik 25erako gauean eta 31tik 1erakoan. Era berean, EAEko mugikortasun mugak –bai lurraldeetakoak eta bai erkidegokoak– salbuetsita geratuko dira egun horietan.

OSTALARIAK PROTESTAN

### LAGUNTZA ZUZENAK ESKATU DITUZTE OSTALARIEK

Eguaztenean, Herriko Plaza hartu zuten Arrasateko ostalariek, sektoreko langileek eta hainbat herritarrek, ostalaritzak bizi duen "egoera larria" salatu eta "erreskate eta laguntza zuzenak eskatzeko". Eta arratsaldean manifestazioa egin zuten.

"Euskal Herrian 100.000 familia bizi gara ostalaritzatik, eta, egoerak segitzen badu, asko desagertzeko arriskuan gaude", azaldu zuten. "Datu gutxi" dituzten arren, diote badakitela kutsatzeen %3 bakarrik gertatzen direla ostalaritzaren ondorioz. Uste dute eman beharreko pausoen artean lehena dela Udaleko agintariekin bilera egitea.

Eskakizunari jarraiki, Arrasateko Udala eguenean batzartu zen ostalariekin, haiei laguntzeko neurri bereziak iragartzeko prentsaurrekoa bertan behar utzita. GOIENA aldizkari hau ixteko orduan, oraindik ez zegoen bilerak emandakoaren berri.

KUTSATZE KASUAK

### 215 KUTSATZE BERRI DEBAGOIENEAN AZKEN EGUNETAN

Joan den eguenetik eguazten honetara arte, 215 koronabirus kasu positibo berri baieztatu dituzte Debagoienean, aurreko astean baino 33 gutxiago –248 izan ziren–. Eskualdeko herri guztietan izan dituzte positiboak. Arrasate izan da kutsatze berri gehien hauteman dituena: 136. Azken datuak aintzat hartuta, bailaran 4.000 kutsatuen langa gainditu da, eta 4.035 dira pandemia hasieratik kutsatutakoak.

Arrasate da, egun, gorriz markatuta dagoen herri bakarra, azken hamalau egunetako 100.000 biztanleko intzidentzia-tasa 500etik gorakoa duelako. Herri hori da EAE osoko intzidentzia-tasa handiena duena. Aretxabaleta eta Bergara laranjaz daude eta Oñati, horiz. Debagoieneko Ospitalean zortzi daude koronabirusarekin ingresatuta.

ADINEKOEN EGOITZAK

### 39 EGOILIAR DAUDE KUTSATUTA ZAHARREN EGOITZETAN

Eskoriatzako Jose Arana egoitzan hiru egoiliar sendatu dira azken egunetan, eta, horrenbestez, sei dira kutsatuta jarraitzen dutenak. Bestetik, Aretxabaletako GSR Debagoiena egoitzan zazpi kutsatu berri jakinarazi zituzten eguaztenean. Hori horrela, eguenera arte, hamabi dira COVID-19arekin dauden egoiliarrak.

Aita Menni ospitalean, bestetik, psikiatria legaleko unitatean hamabi egoiliar eta hamar langile daude COVID-19arekin, eguenera arte, "egonkor". Horretaz gain, Benito Menni unitatean atzeman zituzten 39 kutsatuetatik 26 sendatu egin dira, eta bi hil. Hori horrela, atzora arte, bederatzi kasu dituzte aktibo, eta horietako lauren egoera larriagoa da, "hobetuz doazen arren". Gainera, kutsatuta zeuden hamahiru langileetatik bik jaso dute alta dagoeneko. Azkenik, ospitaleko beste bi unitatetan, Aranzazu 2n eta RAMen, positibo bana baieztatu dute azken egunetan.

# "Arrasateko datuak hobetzen lagun dezake baheketa berriak"

**LUISA DIEZ** DEBAGOIENEKO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUKO ZUZENDARI GERENTEA

Bigarren olatuaren eraginak "behera" egin duela dio, baina ezin dela erlaxatu: "Arrasateko datuak oso larriak dira oraindik, eta neurriak betetzen jarraitu behar dugu"

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerente Luisa Diezen atea jo du GOIENAk, martxotik hona bizitakoa eta aurrerantzean etor daitekeena aztertzeko.

**Une honetan zein da egoera Debagoieneko Ospitalean? Zenbat COVID-19 paziente daude ingresatuta?**

Pazienteen kopurua nabarmen jaisten ari da, eta une honetan zortzi COVID-19 paziente ditugu ingresatuta eta beste zortzi COVID-19 susmagarri. Hala ere, paziente gazte asko Arabako Ospitalera bideratu ditugu, kasuen larritasun mailagatik.

**Beraz, gaixo eta susmagarriak kontuan izanda, zein portzentaje hartzen dute ospitaleko ingresatu guztiekiko?**

Bada, %11 inguru izango dira. Baina azaroaren 16an, adibidez, datu hori %47koa zen. Beraz, hor ikus daiteke azken asteetan eduki dugun jaitsiera nabarmen hori.

**Zein izan da martxotik hona bizitako unerik larriena ospitalean?**

Hasierako uneak, ezbairik gabe. Ez genekien zeri aurre egiten ari ginen, medikuentzako dena zen berria: gaixotasuna, tratamenduak, protokoloak... COVID-19ak oso larriki eragiten du arnasketa aparatuan, eta era horretako patologiak berriak ziren guztiontzat. Beraz, martxoan eta apirilean bizi izan genituen une latzenak. Paziente larriak erreferentziazko ospitaleetara bidaltzen ditugu guk, eta une batzuetan ezin genituen bidali, ospitale horiek oso saturatuta zeudelako.

**Ingresatutako pazienteei eta kutsatze kopuruei dagokienez, zein izan da larriagoa, lehen olatua ala bigarrena?**

Ez daukat olatu bakoitzak utzitako zifra metatuen datu zehatzik. Eguneko datuak aintzat hartuz, egun bakarrean 32 kutsatu eta hamabi susmagarri edukitzea izan da bizi izan dugun zifrarik altuena, eta lehen olatuan eta bigarrenean heldu gara zifra hori edukitzera.

**Bigarren olatuari aurre egiteko neurri berezirik hartu duzue?**

Aurretik markatuta genuen kontingentzia-plana jarraitzen aritu gara. Baina, datuek gora egin ahala, eszenario aldaketa bat izan genuen, eta horrek eragin zuen aktibitate kirurgikoa eta proba osagarrien zerbitzuak etetea. Kontuan eduki behar da askoz baliabide gehiago eskatzen dituela COVID-19 paziente batek paziente arrunt batek baino: denbora gehiago, pertsonal gehiago... Hala agintzen dute protokoloek, eta langileen lan-karga asko handitzen da.



Luisa Diez, Debagoieneko Ospitalearen sarreran, eguenean. XABI GOROSTIDI

**Langileek mobilizazioak egin izan dituzte lan-baldintzak hobetzeko eskatuz. Hartu duzue neurririk euren eskariak asetzeko?**

Lan osasun eta lan segurtasun komite bat dugu, eta sindikatuek bertan parte hartzen dute. Segurtasun baldintzekin lotutako kontu guztiak bertan erabakitzen dira, eta une oro izan dira horren jakitun. Debagoieneko ESIn ez dugu babes-material faltarik izan; ez lehen olatuan, ezta bigarrenean ere.

**Gogoan dut urpekaritza-maskara batzuk eskatu zituztela langile batzuek, baina ospitaleko zuzendaritzak ez zuen halakorik eskatu...**

Ez genuen inongo beharrik herritarrei halakorik eskatzeko, ezta homologatu gabeko babes materialik erabiltzeko ere.

**Gustura zaudete bailaran egindako baheketen emaitzekin?**

Parte hartzearekin, ez; gutxi gorabehera, %50eko parte hartzea izan dute bailaran egindakoek, eta zifra altuagoa izatea zen gure nahia. Osasun arlotik esfortzu handia egin behar da halako baheketak egiteko, eta herritarren erdiak soilik erantzuteak... Bestalde, emaitzak daude. Aretxabaletan eta Eskoriatzan, adibidez, %0,5eko kutsatze-tasa izan genuen eta Arrasaten, aldiz, %2,2koa; Euskal Herriko altuenetakoa. Detektatutako positibo bakoitzaren kontaktuei esker, ia beste hamar positibo detektatu ditugu. Beraz, oso eraginkorrak izan dira.

**"GABONETAN FIN EZ BAGABILTZA, BESTE OLATU BAT ETORRIKO DA, ETA LANGILEAK NEKATUTA DAUDE"**

**Hiriburuen ostean Arrasate da kutsatu kopuru altuena duen herria. Kezkatu egiten zaituzte datu horrek?**

Bai, noski. Bailarako beste herri batzuetan oso datu altuak batu dira bigarren olatuan, baina oso azkar egin dute behera. Hala ere, Arrasaten askoz erritmo motelagoan ari dira jaisten, eta, hein handi batean, herritarren jokabideen baitan dago hori.

**Azken orduko albistea da Arrasaten bigarren baheketa bat egingo dela, aurrekoa baino masiboagoa. Beharrezkotzat jotzen duzu?**

Hori ez da ospitalearen erabakia, Jaurlaritzako epidemiologoen erabakia baizik. Arrasateko datua azkarrago hobetzen lagundu dezake, eta hori da espero duguna. Ea parte hartze altuagoa dagoen eta positibo asko atzeman ditzakegun.

**Bergarako larrialdi zerbitzua itxi egin duzue. Zergatik?**

Eszenario aldaketak eraginda izan da, langileen behar handiagoa genuelako COVID-19 pazienteen arreta zerbitzuan. Behar puntual bat izan da eta Bergarako, Antzuolako eta Elgetako alkateak egoeraren jakitun dira.

**Noiz itzuliko gara normalitatera?**

Ez da erraza jakitea. Bi faktorek baldintzatuko dute: txertoak eta jendearen jarrerak. Txertoa noiz helduko den ez dakigu oraindik, baina gure nahia da 2021 hasierarako heltzea. Dena ondo bidean, 2021eko lehen seihilekoa amaitzean eman beharko genioke buelta egoerari.

**Ondo hartu duzue osasungintzan Gabonetan neurriak leuntzearena?**

Gabonetan fin ez bagabiltza, hirugarren olatua etorriko da; eta langileak, jada, nekatuta daude. Uler dezaket neurriak leuntzearena. Horrek ez du zuzenean hirugarren olatua eragingo, baina gure jarrerek, bai. Ezin gara erlaxatu, eta neurriak betetzen jarraitu behar dugu.




Eguenean Arrasateko udaletxe aurrean batutakoak, adinekoen egoitzetako langileentzako lan baldintza duinak eskatzeko. I.B.

# Kalitatezko zaintza bermatzea eskatu dute

ELA eta LAB sindikatuek Gipuzkoako adinekoen egoitzetako langileentzako lan baldintza duinak eskatu dituzte. Horrekin batera, Gipuzkoako egoitzetan ongizatea indartzeko eta komunitate-laguntza areagotzeko Goxatu plana jarri du abian Aldundiak

**Imanol Beloki** DEBAGOIENA

Gipuzkoako zaharren egoitzetako langile ugari batu dira ELA eta LAB sindikatuek deitutako mobilizazioetara. Gipuzkoako Diputazioari "hamar urte luzez blokeatuta" dagoen lan ituna berritzeko eskatu diote bi sindikatuek. Horrekin batera, langileen lan baldintzak hobetzea, lan kargak jaistea eta ratioak hobetzea aldarrikatu dute. "2017tik berritu gabe dauzkagu gure lan baldintzak eta azken bi urte hauetan kalean gaude, greba eta mobilizazio ezberdinak egiten. Gipuzkoako adinekoen egoitzetako sektorea %90ean Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatutako sektorea da eta bertan 5.000 bat langilek dihardute lanean, gehienak emakumeak, beste zaintza sektoreen moduan. Zerbitzu publiko bat izanik, langileen gehiengoa azpikontratatuta dago, gehienetan irabazi asmoak dituzten enpresa eta multinazionalen esku. Eredu honek lan baldintza prekarioetan lan egitera eramaten ditu. Gainera, adineko pertsonek kalitatezko zaintza bat izan dezaten bermatuko dituen ratioetatik oso urruti daude, eta egunero langileek jasan behar dituzten lan kargak jasanezinak dira. Pandemiaren eraginez, are okerragoak. Horregatik, Arrasateko Udaleko alkateari herrian dauden egoitza eta eguneko zentroetako langileen aldarrikapenak kontuan hartu eta gatazka honen konponbidean pauso bat eman dezala eskatzen diogu ELAk eta LABek. Horretarako, eskatzen diogu diputatu nagusi Markel Olano jaunari Gipuzkoako adinekoen egoitza eta eguneko zentroen gatazkari benetako konponbidea emateko", adierazi dute ELA eta LAB sindikatuetako ordezkariek.

Atzo bezala, gaur ere batuko dira adinekoen egoitzetako langileak eta sindikatuetako ordezkariak, Arrasateko eta Bergarako udaletxeen aurrean, 11:30ean.

### 'Goxatu' programa

Gipuzkoako egoitzetan ongizatea indartzeko eta komunitate-laguntza areagotzeko abian jarritako programaren berri ere eman zuten atzo, eguena, Gipuzkoako Foru Aldundiko prentsa aretoan. Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusiak esan zuenez, kultur jarduerak eta ratioak areagotzearen helburua egoiliarren "bizi kalitatea eta ongizate psikoemozionala ahalik eta gehien babestea" da. "Adinekoen ongizatea hobetzen jarraitu nahi dugu, gertutasuna oinarri hartuta eta eragile sozial eta komunitarioekin elkarlanean". Gogorarazi zuenez, gure artean dagoeneko bederatzi hilabete daraman pandemiaren esparruan, "egoitzetan gero eta bizitza normalizatuago baterantz aurrera egiteko funtsezkoa" da kultura, musika eta harreman jarduerak bultzatzea, bai eta boluntarioen eta ingurune komunitarioaren inplikazioa ere.

### Ratioak handitu

Maite Peña Gizarte Politikako diputatuak, berriz, zehaztasun gehiago eman zituen Goxatu planaren bueltan. "Fisioterapian, laguntza psikosozialean eta terapia okupazionalean ratioak handitzeak "nabarmen lagunduko du pandemiaren ondorioak arintzen eta ongizate fisikoa eta emozionala sustatzen. Horretarako, erabiltzaile bakoitzeko ratioak bikoiztu egin ditugu".

Gogorarazi zuen "beste neurri garrantzitsuenetako bat, eta inpaktu handieneko bat duena, egoitzetan arreta ratioak handitzea" dela, "% 9,2ko batez besteko hazkundearekin", joan den astean Batzar Nagusietan iragarri zuen bezala. Hau da, fisioterapia, laguntza psikosozial eta terapia okupazionaleko zerbitzuak areagotzeaz gain, erabiltzaile bakoitzak 18 minutu gehiago izango ditu egunean zuzeneko arretan.

Foru Aldundiak egiten duen beste apustu "indartsu" bat harremanen eremuari buruzkoa da; horretarako, egoiliarrek familiekin duten harremana indartu da, bisitak eta irteerak areagotuz. Bisitei dagokienez, eta Eusko Jaurlaritzaren eta hiru aldundien artean adostutakoa oinarri hartuta, bi pertsonak parte hartu ahal izango dute aldi berean.

**"DENBORA LUZEZ BLOKEATUTA DAUDEN HITZARMENAK" BERRITZEA ESKATU DUTE SINDIKATUEK**

---

## Adimen artifizialean oinarritutako proiektu aitzindariaren buru

Ikerlan-en gidaritzapean, makinei autodiagnostikoa egiteko aukera emango dien proiektua garatzen ari dira

**I.B.** DEBAGOIENA

FRACTAL Europako proiektu aitzindari bat da, Ikerlanek sustatua eta gidatua, eta bere asmoa da adimen artifizialean oinarritutako digitalizazio soluzio bat sortzea, makinak auto diagnostikatzeko gai izan daitezen, ingurunera egokitu, akatsak aurreikusi eta akatsak gertatu baino lehen konpontzeko. Horretarako, hardware eta software soluzio bat garatuko du, makinei adimena eta gaitasun kognitiboak emango dizkiena eta hainbat sektoretan aplikatu ahal izango dena, hala nola energian, garraioan eta industrian. Ikerlanek EFECS 2020 ekitaldian –Osagai eta Sistema Elektronikoen Europako Foruma– aurkeztu du proiektua, osagai eta sistema elektronikoen erreferentziazko Europako foroan.

FRACTALek 15,7 milioi euroko aurrekontua du hiru urterako, Europako Batzordeak eta Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak ECSEL programaren bidez emandakoa.




Aizea Lojo eta Nerea Ayestaran, proiektuaren koordinatzailea eta ikerlaria. IKERLAN





Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro
euskal sagardoa
IDIAZABAL
Getariako Txakolina



Miren Dobaran sailburuordea, abenduaren 3an, Euskararen Egunean, *Hemen Debagoiena* saioan. MARKEL ARRAYAGO

# "Tokiko hedabideak pertsonengandik hurbilen daude"

**MIREN DOBARAN** JAURLARITZAKO HIZKUNTZA POLITIKAKO SAILBURUORDEA

Euskararen Egunaren harira izan da Miren Dobaran Hizkuntza sailburuordea Goiena telebistan. Besteak beste, hizkuntza ohiturez eta euskalgintzaz aritu da berbetan

**Maialen Santos** ARRASATE

Miren Dobaran sailburuordeak uste du osasun-krisia "kolpe gogorra" izan dela euskararentzat. Hala ere, dio hizkuntza ohituretan aurrerapausoak ematen jarraitzen dutela, eta positibotzat jo du berriki amaitu den Euskaraldia.

**Duela gutxi pasa dira Euskararen Eguna eta bigarren Euskaraldia. Nola bizi izan dituzu?**

Urte arraroa izan da eta gauza asko era presentzialean ezin izan dira egin. Baina pozik nago, ariketa soziala milaka eta milaka herritarrek egin dutelako; ia 180.000 herritarrek izena eman zutelako eta entrenamendu hori egin dutelako. 25.000 arigune izan direlako martxan. Eta esan genuen entrenamendua bukatzen denean jarraitu behar dugula arnasgune horiek zaintzen eta lantzen, eta gure programazio orokorrarekin aurrera egiten.

**Egin duzue baloraziorik?**

Euskaraldiaren inguruko feedbacka jasotzen ari gara establezimendu handiekin. Izan ere, badakigu topera egon direla; tabernak itxita daudelako. Beraiek ikusi dute balio erantsi bat dela euskara, euren negozioetan saltzeko ona dela, eta bezeroek Euskaraldia bukatzean ere jarraitzen dutela erosketak egiten. Hori zen helburua, euskara integratzea apurka-apurka bai establezimenduetan baita enpresetan ere.

**Euskararen inguruan hizkuntza ohiturak aldatzea da Euskaraldiaren helburua. Eusko Jaurlaritzaren barruan, zeintzuk dira ohiturak?**

Lakuako pasilloetan egunotan, gutxienez, txapak ikusi ditugu, eta horrek erraztasun bat ematen du, badakizulako norekin hitz egin dezakezun euskaraz inolako estres linguistikorik gabe. Eta oso polita da kafe makinaren inguruko hori. Txapei esker oso aldaketa handia egon da lehenengo ediziotik bigarrenera. Ikusten da *ahobizi*-ak eta *belarriprest*-ak hor ari direla.

**Euskaraldia euskalgintzan aritzen zareten eragile ezberdinen arteko elkarlanaren fruitua da. Elkarlan hori beste zein esparrutan nabaritu daiteke?**

Gehienetan. Argi daukagu horrelako lankidetzarik gabe euskararen normalizazioan aurrera egitea oso zaila dela. Gaur egun, gobernu batek bakarrik ezin du. Lankidetza eta indar metatze hori behar-beharrezkoa zela ikusi genuen, eta hor daukagu Euskaraldia. Ariketak lortu duena da jendea asko ilusio handiarekin hurreratzea gure programa honetara. Eta hori ari gara apur bat esparru guztietara zabaltzen: 2023ra arte indarrean dago eremu sozioekonomikoko plana, eta martxan jarri genuen Euskararen Aholku Batzordeko eremu soziolinguistikoko batzordea. Gure gobernantza berriak XXI. mendean horrela izan behar du. Guk daukagun gauzarik inportanteena hizkuntza gutxitu eta normalizazio bidean dagoen hizkuntza denez, hori da daukagun gauzarik handiena.

**Euskararen egoerari dagokionez, zenbat geratzen da Gipuzkoa bera arigune moduan erabiltzeko?**

Egia da Gipuzkoaren egoera soziolinguistikoa oso ona dela alderatuta Bizkaikoarekin edo Arabakoarekin. Gauza askotarako erabiltzen dugu Gipuzkoa, edozein programa jartzen dugunean abian, traktore moduan: apur bat pilotaje hori egiteko, gero gainerako herrialdeetaraeta zabaltzeko. Gipuzkoan, gazteen artean, esaterako, %100 euskalduna da. Herri askotan euskaraz bizi daiteke, eta enpresetan ditugun erabilera planetan askoz aurreratuago doaz. Oraintxe bertan jarri dugu Lanbide Heziketarekin *Euskaraz, talentua gara* programa, eta askoz errazagoa da Gipuzkoan topatzea enpresak zeintzuetan instruktore euskaldunak izendatu daitezkeen, Lanbide Heziketako ikasleek praktika dualak euskaraz egin ditzaten. Bizkaian eta Araban hobetuz goaz.

**Euskara hiru administrazioren mende dagoela esan daiteke; zein da horien arteko harremana?**

Oso ona eta emankorra. 2017an sinatu genuen Iruñean Hiruko Ituna izenekoa, eta itun horren helburua da elkarrekin ahalik eta programa gehien zabaltzea. Euskaraldia, esaterako, hiruron artean antolatzen ari garen programetako bat da. Praktika onak ere elkartrukatzea da helburua; administrazio bakoitzari errespetuz, baina elkartrukatuz.

**Euskararen eta sektore ezberdinen arteko harremanetan sartuta. Gazteak eta euskara, esaterako. Zein da ekuazio horren emaitza?**

Nik beti esaten dut oso injustuak garela gazteekin. Beti ari gara esaten gazteen atxikimendua eta konpromisoa txikia dela. Ikusi behar dugu nondik datozen eta zein ibilbide egin duten. Gure gazte eta umeak dira euskara gehien erabiltzen dutenak, inkesta guztien arabera. Gertatzen dena da horietako askok, erdiak baino gehiagok, euskara ikasi dutela eskoletan. Ez dira bizi euskaraz, bizi garen lekuetan; hiri eta herri handietan bizi dira, oso aukera gutxirekin, askotan, euskara erabili ahal izateko. Nik uste dut nerabeek kasu horietan ikusten dutela euskara hizkuntza akademiko legez: beraientzako da azterketa, etxeko lanak... Baina egia da gero nerabe hauek errekuperatu egiten ditugula. Esan nahi dut: euskal kulturan eta euskaran oinarritutako hezkuntza eta heziketa bat hartzen dutenean, hauek gero badatoz, eta hori konprobatuta dago. Nerabe hauek unibertsitatera doazenean oso argi ikusten da euskaraz dakiten lagunak egiten dituztela eta horiekin elkartzen badira txipa aldatu egiten dutela. Beraz, gazteei eman behar zaie aukera gehiago euskaraz gozatzeko inguru guztietan.

**Azaroan, *Euskara eta feminismoa bidelagun* jardunaldiak egin dituzue. Zer dute elkarrengandik ikasteko?**

Nire obsesioa zen Euskararen Aholku Batzordearen azpian halako batzorde bat antolatzea, gurutzaketa hau kudeatuko duen batzorde bat. Eta hasi ginen duela urtebete horretan lanean beste batzorde batean. Egia da honetan Euskal Herriko aditurik onenak ditugula, eta oso gauza interesgarriak egin ditugu ulertzeko zein ekarpen egin ahal dion batak besteari. Inbidiaz ikusten dut orain berdintasunean eta feminismoan etorri den gorakada eta aktibazioa. Hortik ere ikasi behar dugu, euskararekin askorik ez erlaxatzeko.

**_Feminismoa eta berdintasuna_ izeneko hiztegia kaleratu duzue. Zein hutsune ikusi duzue?**

Behar-beharrezkoa zen, zeren hor, azkenean, euskaraz terminologia asko baitzegoen. Ehun eta berrogeita termino baino gehiago dituen hiztegia da, eta bakoitzak erabiltzen genituen hitzak era desberdinetan. Eta hor egin dena da Elhuyar Fundazioarekin batera elkarlan bat adituekin, eta jaso bai nazioartean bai hemen indarrean dagoen legedia, gehi mugimendu feministak erabilitako terminologia, eta guztion artean erabaki termino horiek zelan egin behar diren eta definizioak ere jarri.

**Mundu globalizatu batean bizi gara. Nola bermatu euskararen presentzia?**

Erronka handia da, baina erronka moduan ikusi behar dugu; eta ez zailtasun moduan, zeren hor borrokatu beharra baitago. Disneyren pelikulak gustatzen zaizkie umeei, eta horren kontra ez dago egiterik. Guk egin dezakegu gure produkzio propioa, baina horiek ikusten dituzte, eta behar-beharrezkoa da, batez ere euskara ikasten ari direnentzat, hori euskaraz eskaintzea. Oso zaila da enpresa handi hauekin, oso txikiak garelako. Eta beraiek kontu horiek egiten dituzte. Baina egia da jarraitu behar dugula bide horretatik, enpresa handi hauekin ea gutxieneko batzuk euskaraz jartzen dituzten. Guk badaukagu beste programa bat kulturatik, filmak euskaraz emateko. Telesailetan askoz ere zailagoa da. Baina gure helburua da transkripzioak eta azpitituluak euskaraz lortzea. Teknologia badaukagu, eta, bihar edo etzi, hori da gure helburua.

**Goienak 20 urte bete ditu aurten. Zein garrantzi dute zuen departamentuan era honetako hedabideek?**

Zuen garrantzia ezinbestekoa da gure normalizazio prozesuetan, ez dut imajinatu ere egiten hizkuntza gutxitu bat zelan normalizatu daitekeen hedabiderik gabe. Eta zuek zarete, tokiko hedabideak, pertsonengandik hurbilen zaudetenak. Eta zuek zarete berezitasun hori daukazuenak: azkenean, zuek ematen duzuen informazio hori maila nazionaleko hedabideek ez dute ematen, eta maila internazionalekoak, are gutxiago. Eta egia da jendeak ere hori nahi duela: hurbileko informazio hori, eta entrenatzen duzue jende asko euskaraz irakurtzera. Gainera, zuen hedabide asko eta asko ikusten dute erdaldunek ere: komentatzen dute, argazkiak ikusten, adibidez.

**"GAZTEEI EMAN BEHAR ZAIE AUKERA EUSKARAZ GOZATU DEZATEN INGURU GUZTIETAN"**

**Euskalgintzan erakunde publikoen eta bestelako eragileen arteko elkarlana garrantzitsua da, hortaz?**

Hori da bidea. Azkenean, erakundeak eta gizarte eragileak daudenean eraiki daitezke produktu batzuk zeintzuek baliabide batzuk izango dituzten, herritarrei begira daudenak. Eta bi hankak daudenean, gizarte mugimendua eta erakundeak ere hori apur bat koordinatzen, produktu erakargarriak egin daitezke. Baliabideak urriak dira, beti gaude krisi batean ez bada beste batean sartuta, eta erabiltzen ditugun baliabide horiek erakundeen artetik, gutxienez, badauka erantzukizun bat egiteko jende guztientzako erakargarriak izango diren produktuak eta gure hizkuntzaren normalizazioan aurrerapausoak emateko balio izango dutenak.

**Pandemiak ekarri dituen ondorioek nola eragin diote euskarari?**

Kolpe ikaragarria izan da. Oso tristea izan da ikustea nola jende askok aukera galtzen zuen euskararekin konektatuta egoteko. Azkenean, horrelako gauza bat gertatzen denean konturatzen gara ze ahulak garen, bizitzako esparru guztietan, baina, batez ere, normalizazio bidean dagoen hizkuntza batentzako. Eskolak itxi zirenean, guretzako izan zen hondamendi ikaragarria, etxe askotan ez zegoelako ordenagailu edo konexio potenterik. Eta izan ditugu ume eta gazte batzuk inolako kontakturik gabe euskararekin. Gainera, kontaktua eta Interneta egon den lekuetan ere, nahiz eta ordenagailuz jaso klaseak, ba, ez da berdina: hizkuntza bat ikasten ari zarenean, presentzialtasuna ezinbestekoa da. Orain, zabalik ditugu eskolak, baina etenda kirol eta aisialdi antolatu guztia. Konturatu behar dugu herri eta hiri handietan esparru hauek ezinbestekoak direla euskaraz egin nahi dutenendako, beste aukerarik ez dutelako. Zer ikasi dugu? Hurrengo bat datorrenerako, seguruenik, eduki digital gehiago izango ditugu, eskolan beste era batera antolatuta eta entrenatuta egongo gara…

**"PANDEMIAN JENDE ASKOK GALDU DU EUSKARAREKIN KONEKTATUTA EGOTEKO AUKERA"**

**Pandemiak eragindako krisi ekonomikoak eragin dezake euskarara bideratutako aurrekontuan?**

Ez dut uste, guk badakigu zer sufritu dugun, eta munduko krisi horri aurre egin ahal izateko gure hautua da euskaratik aurre egitea. Euskaratik egin nahi badiogu aurre, euskaldun izate horretatik ekarpena egin nahi badiogu mundu honi, baliabideak behar ditugu. Eta, alde horretatik, oso positiboa naiz.

KURTZEBARRI
BIZILEKUA
ARETXABALETA

ZURE ETXE BERRIA NATURAN
IKUSPEGI ONENEKIN

PREZIO TASATUKO ETXEBIZITZAK
175.000€
-TIK AURRERA*
*zergak ez daude barne
Garajea eta trastelekuak barne

ETXEBIZITZAK PREZIO LIBREAN
258.300€
-TIK AURRERA*
*zergak ez daude barne
Garajea barne

3 eta 4 logelako etxebizitzak
Duplex atikoak
Terraza zabalak
Etxebizitzak pertsonalizatzen dira
Ziurtagiri energetiko altua

KONSTRUKZIOA:
AMENABAR
900 907 407
www.kurtzebarribizilekua.eus
ALTAMIRA



# Pixkana bada ere, euskal presoak hurbilduz doaz

Etxerat-ek adierazi du "aldaketak" gertatu direla azken hilabeteetan, eta joera "ona" dela. Eskualdean, ETAko militante izandako lau preso daude; bi daude Euskal Herriko espetxeetan: Garikoitz Gartzia aretxabaletarra eta Joseba Arregi oñatiarra

**Maialen Santos** ARRASATE

Euskal Preso eta Iheslari Politikoen Senide eta Lagunen Elkarteak (Etxerat) azaldu du azken boladan aldaketa ugari gertatu direla presoei dagokienez. Debagoienean, zehazki, euskal presoen kopurua "jaitsi" egin dela zehaztu du Naike Diezek, Etxerateko Gipuzkoako bozeramaileak; azken hilabeteetan aske utzi dituztelako Xabin Usandizaga oñatiarra eta Josu Arkauz arrasatearra. Hori horrela, egun, bailarako lauk jarraitzen dute espetxean: Joseba Arregi oñatiarrak, Garikoitz Gartzia aretxabaletarrak, Alicia Saez de la Cuesta gatzagarrak eta Marixol Iparragirre eskoriatzarrak.




Izan Bidea dinamikaren barruan egindako ekintzetako bat, Oñatin. GOIENA

**Hurbilketa ugari**

Azken hilabeteetan 90 euskal preso lekualdatu dituzte espetxez, Diezek azaldu duenez: "Horietatik hamazortzi preso soilik gerturatu dituzte Euskal Herrira –tartean, Arregi eta Gartzia–. Beraz, sentsazioa gazi-gozoa da".

Egun, euskal presoen erdia Euskal Herritik 600 kilometro baino gehiagora dauden espetxeetan daude; eta, aldiz, %19, 400 eta 600 kilometro artean.

Hurbilketa gehiago egitearen beharra azpimarratu du bozeramaileak: "Zergatik gerturatzen dituzte batzuk Euskal Herrira? Eta zergatik beste batzuk ez? Zigorra presoei eurei ez ezik, senideei ere jartzen diete". Naike Diezek uste du aurrerantzean ere hurbilketa gehiago egin behar direla, eta ez hori bakarrik: gradu aldaketak ere bai. "Josu Arkauz arrasatearraren antzera, preso gehienak zigor ia osoa beteta ateratzen ari dira espetxetik orain", azaldu du. Ildo horretatik, Etxeratekoak nabarmendu du urte askoan Andaluzia izan dela "urruntze politikaren ikur", eta azken lekualdaketei esker bertako espetxeak "hustuz" doazela.

**Joera "ona"**

Etorkizunari buruz galdetuta, esan du ez dakiela aldaketa gehiago etorriko diren: "Etxeraten ere hedabideetatik jasotzen dugu lekualdaketen berri". Gaineratu du "joera" ona dela, eta "itxaropena" badutela ibilbidea hobetuz joateko: "Euskal gizarteak lan egin du presoen hurbilketarako". Haren hitzetan, esaterako, Sare "asmatzen ari da" aurrera eramaten ari den dinamikekin.

## Ia 30 urteren ostean, aske

Azaroaren 23an, utzi zuten aske Josu Arkauz arrasatearra, 29 urte, zortzi hilabete eta lau egun kartzelan egin ostean. Frantziako eta Espainiako hamalau espetxetatik pasa da. GOIENAri aitortu dio "ondo" dagoela, "askatasun egarriz egon eta egarri hori asetzen ari den pertsona baten sentsazioaz". Arlo pertsonalean, burua "zirkunstantzia berrietara" egokitzeko unea du orain: "Bizitza osoa erbestean eta espetxean militantzian eman ondotik, egungo egoerak eskaintzen didan guztia gozatzeko unea dut". Etorkizunari buruz galdetuta, "itxaropenez" ikusten du Arkauzek, eta egungo testuinguru politikoak "atentzioa eta ilusioa" pizten dizkio. Urte hauetan elkartasuna adierazi diotenei "eskerrak" eman dizkie, eta espetxean utzitako kideei indarra bidali: "Azkena etxean egon arte ez naiz guztiz aske sentituko".




Aske utzi berritan. ETXERAT



Gurutze Gorriko Maite Fernandez boluntarioa, astelehenean, Arrasaten. M.S.

## Gurutze Gorriaren jostailu bilketa martxan da aurten ere

Bailarako 278 haurrentzako jostailuak biltzea du helburu 'Beraien eskubideak jokoan' kanpainak

**M.S.** ARRASATE

Aurten ere abiatu du jostailu bilketa Gurutze Gorriak, *Beraien eskubideak jokoan* kanpainaren bitartez. Hain zuzen, Debagoienean zaurgarritasun egoeran dauden 278 haurrentzako jostailuak bildu nahi dituzte.

Gurutze Gorriko jostailu bilketako arduradun Javier Igartuak azaldu duenez, "%40" hazi da eskaera aurten, eta familien ekonomian pandemiak izan duen eragina azpimarratu du: "Aurten, COVID-19ak sortutako pandemiak familia askoren egoera larriagotu baino ez du egin, eta haien zaurgarritasuna areagotu".

Hala, erronka solidarioa lortzeko, aurten dohaintza egitera deitu dituzte herritarrak. Horretarako, kontzeptuan *Jostailua* adieraziz, dirua ES22 3035 0001 51 0010018156 (Laboral Kutxa) kontuan sartzea eskatu dute. Bestetik, jostailuak batzeko eta jostailu-txekeak erosteko ere toki fisikoak jarriko dituzte: Arrasateko Hiper Eroskin, abenduaren 7an, 11n eta 12an; eta Debagoieneko Gurutze Gorriaren batzarrean bertan, Bergarako Elorregi auzoko 5. zenbakian.

**Arriskuak saihesteko kanpaina**

Aurten, berriak diren jostailuak bakarrik jasoko dituzte, eta horren atzean dauden arrazoiak azaldu dituzte. Alde batetik, esan dute "ekitateagatik eta diskriminaziorik ezagatik" hartu dutela erabakia; haur guztiek "jostailu berria" izan dezaten, alegia. Eta, horrekin batera, adierazi dute erabilitako jostailuek sarritan ez dutela jatorrizko "funtzioa betetzen". Bestetik, segurtasuna da argudiatu duten arrazoia: "Ezin dugu bermatu jostailu bat %100 segurua denik jatorrizko bilgarritik aterata badago".

## Mendi Film Festivalen 'WOP' saria jaso du Baltistan Fundazioak

Pakistango Karakorum mendi lerroan lan egiten duen Baltistan Fundazioak BBK Mendi Film Bilbao-Bizkaia jaialdiko ekitaldi nagusian jaso du saria asteon. *WOP-The Walk On Project* saria jaso zuten, zehazki, Pedro Ibarra presidenteak eta Alberto Iñurrategik, fundazioaren sortzaileak, alpinismoaren balioen defentsa aitortuz. "Gure ustez, Baltistan Fundazioak gutxik bezala islatzen du konpromisoa zentzu zabalean, jarduera alpetarra garatzen den testuinguruan", nabarmendu zuen Mikel Renteriak, WOPeko zuzendari nagusiak. Ibarrak aitortu zuen aspalditik zutela euren lana "aitortua" izateko gogoa: "Ez genuela espero esan nezake; baina ez. Urte asko daramatzagu lanean, eta denbora luzea generaman norbait gutaz akordatzeko itxaroten. Hunkigarria izan da. Eskerrik asko".





Hamburguesas Jube-ko Cesar Ballina eta Urko Etxeberria –Uriña harategikoa–.

# "Hanburgesa naturalak banatzen ditugu etxera"

**CESAR BALLINA ARRATIBEL ETA URKO ETXEBERRIA ERKIZIA** JUBE HANBURGESAK

Hanburgesa naturalak ez ezik, okela-sortak ere etxera eroaten ditu Jubek: xerra, okela txikitua, bularkiak, solomoa... Eta baita azpizuna eta txuletak ere

Hamburgesas Jube enpresak modu natural eta jasangarrian hazitako abelburuen okelak ekoizten eta saltzen ditu, betiere, *0 kilometro* filosofiari erantzunez. Ostalaritzarako ez ezik, etxeetara ere banatzen du. Cesar Ballina Arratibel eta Urko Etxeberria Erkizia –Uriña harategiak– dira enpresako bazkideak. Legazpin dute egoitza.

**Hanburgesa naturalak dira zuenak?**

Bai. Batere kontserbagarririk edo eransgarririk gabeak. Hego Euskal Herrian ez ezik, Espainia mailan ere hasi ginen komertzializatzen; batik bat, jatetxe, taberna eta halakoetan.

**Nola lortzen duzue hanburgesak kontserbagarririk barik mantentzea?**

Hasieratik nahi genuen prozesu erabat naturala egitea. Soluzioa izan zen haragia, okela txikitua, hanburgesa forma emanda, ultraizoztea. Emaitza ikaragarria da: haragia ultraizoztuta jasotzen du bezeroak etxean. Jan aurretik, bezperan, plater batean uzten badu hanburgesa, biharamunean jateko moduan egongo da, batere ur tantarik gabe.

**Hanburgesak bakarrik komertzializatzen dituzue?**

Bereizi nahi izan dugu hanburgesetan; izan ere, jendeak sarriago jaten ditu etxean hanburgesak, azpizunak edo txuletak baino. Hortaz, batetik, txekorraren edo behiaren haragiarekin hanburgesak eta txuleta-hanburgesak banatzen ditugu. Baina, horretaz gain: azpizunak, entrekota, xerra; bertako –Asteasuko artzainena– zein Gaztelatik –Burgos eta Valladolid– ekarritako arkumeak...

**Haragi-sortak ere saltzen dituzue etxerako.**

Esaterako: kilo bat xerra –txekorrarena edo behiarena–; kilo bat okela txikitu; kilo bat solomo –adobatua edo freskoa–; oilasko bat eta kilo bat oilasko-bularki, 38 eurogatik. Dena freskoa. Haragi mota bakoitzeko kilo erdiko paketeak eginda. Oso ondo funtzionatzen du. Eta, horretaz aparte, jendeak nahi baditu azpizunak, txuletak, entrekotak... edozein harategitan eros daitezkeenak, horiek ere bai. Oiartzungo Etxekoa txistorra ere komertzializatzen dugu. Hainbat txapelketa irabazitakoa da: Ordiziako feriako Euskal Herriko txapelketa eta Donostiako San Tomas txapelketa bi urtez irabazi eta beste hainbat urtez bigarren eta hirugarren egindakoa.

**COVID-19ak beste komertzializazio bide batzuk bilatzera behartu zaituzte?**

Hala da, bai. Egokitu egin behar izan dugu egoera berrira. Duela lau hilabete hasi ginen etxerik etxe ere banatzen. Eta, egia esan, oso ondo joan zaigu. Harrituta gaude. Bezeroak oso gustura daude eskaintzen ditugu produktuekin. Esate baterako, eskari asko jasotzen ditugu Leintz aldetik: Aretxabaletatik, Eskoriatzatik, Arrasatetik eta Aramaiotik.

**Edozein momentutan egin daitezke eskaerak?**

Bai, baita jaiegunetan ere. Gauza bat bakarrik hartu behar du kontuan bezeroak: astean behin egiten dugu banaketa, ostegunetan.

**Nola egin eskariak?**

Batetik, Whatsapp bidez, 683 23 82 73 zenbakian. Bestetik, posta elektronikoz: *info@comercialjube.com* edo *oficina.urina@gmail.com*.

**Okelaren munduan eskarmentu handikoak zarete. Bizitza guztia haragiekin.**

Nik neuk [Cesar Ballina] harakin moduan hasi nintzen gaztegaztetatik eta 40 urte eman ditut mundu horretan. 2014an, beste jauzi bat eman nahi nuen eta neure kontura hasi nintzen. Hala, hasi nintzen haragia komertzializatzen, bertako ganaduen haragiarekin egindako hanburgesekin.

**Gaur egun, zelako enpresa da Hamburguesas Jube?**

Enpresa pixkanaka hazten joan zen, eta harategi batzuen –Uriña harategiak– jabe zen Urko Etxeberria Erkiziarekin bat egin nuen. Honela, hanburgesekin batera ere banatzeko azpizunak, txuletak, beste haragi batzuk –txekorren eta behien okelak– eta edozein harategitan eros daitezkeen bestelako produktuak: txarkuteria... Gaur egun, hamabost bat lagun ari gara. Legazpin ditugu enpresa, bulegoak... eta, bestetik, bi harategi –Uriña izenekoak–, Oiartzunen eta Errenterian.

**"HANBURGESAK EZ EZIK, OKELA-SORTAK ERE EGITEN DITUGU, 38 EURON TRUKE, ASTE OSORAKO"**





ZABALIK

GARIKOITZ ITURBE

# Kalea(n) gara

Kalea. Pertsonen, autoen zein bizikleten joan-etorria gertatzen den espazioa. Etxez eta erakinez osatuta eta parke eta gune ezberdinez inguratuta. Nire gusturako, gris gehiegi berdearen aldean. Baina kalea ez da ezer arimarik gabe.

Niretzat kalea aldarrikapena da, zaintza, borroka, kontaktua... Nire sinonimoen hiztegia osatzen joan ahala, zentzua bilatzen diot kalean egotearen garrantziari, kalea herriaren bihotz bihurtzeari. Nire ustez, horren baitan egiten baita herria. Herri izaerak egiten baitu herria. Herri izatetik HERRI izaterako bidea. Horrela sentitzen dut nik. Horretan amesten dut.

Kalea esentzia ezberdinez osatuta dago, eta bai! Ni eta zu esentzia horietako bat gara. Adin, kolore eta gustu ezberdinetakoak gara eta bakoitzak sinisten duen horretan jartzen duen aletxoak egiten du Aretxabaleta herri, izaera bereziko herri. Harrotasunez diot Aretxabaleta bizirik dagoela.

**POZA EMATEN DIT AZKEN URTE HAUETAN ARETXABALETAN SORTU DEN GARRAK**

Nire gaurko aipamena bestelako herri baten alde lanean diharduten gazte kolektibo horientzat da. Poza ematen dit azken urte hauetan Aretxabaletan sortu den garrak. Zuek diozuen bezala, "haiek sortutako itzalak argitzeko, beti prest!".

Zaintza sarea sortu zenuten pandemia erdian, beharra zuten herritarrei laguntzeko. Feminismoaren aldarria ozen barreiatuz, ikusezina ikusarazten diharduzue. Herrian martxa jartzeko beti prest. Elkar-zaintzatik sareak josten diharduzue. Gazteen eta, oro har, jendartearen problematikak mahai gainera ekarri eta lantzen dituzue. Kultura sortzaileon sarea josi duzue.

Nire aipamen eta errekonozimendua zuentzat: Ernai, Pikarraituz eta Gazte Mugimendua. Bide batez, zuei ere bai, Kuartela. Lan handia egiten duzue, eta esker gutxi jasotzen duzue. Ez zarete gaur egungo agintariendako lehentasun, baina niretzat herriaren bihotza zarete.

Zuokin batera ni ere kalea(n) naiz.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

## Agur, 2020

IZARO ANDRES

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Ez dakit ze sentsazio daukazuen zuek, baina 2020. urteak eternala zirudien eta joan egin da begi-kliska batean. Galdera asko ekarri dizkigun urtea, baina erantzunak ere bai. Lehenengo erantzuna: ez gara beste gizarte asko bezain zaurgarriak, baina ez gara uste genuen besteko garaiezinak.

[...] Niri ekarri didan galdera beldurgarriena: eta horrela izango bada ja ni bizi naizen artean? Eta hau bada munduaren kolapsoa eta gu bagara lurrean tokatu garen belaunaldiak?

Gizarte bezala ez ginen, pandemia aurretik ere, gai aldaketa klimatikoari aurre egiteko, ez gara gai Lurraren beharrak ulertzeko, ez gara gai Lurra gurea ez den zerbait bezala ikusteko eta, edozein aukeraz probesten gara hura esplotatzeko, baserritarra zein makroenpresaria; eskala ezberdinetan, baina moralki berdin. Gure poltsikoak betetzeko Lurra hil, eta gero, noski, Lurra maite dugula esan.

[...] Eta orduan pentsatzen dut pandemia honek okertu baino ez duela egin asuntoa. Bazen aukera bat Fenix txori berria bezala gizartearen esnatze eta kontzientziatze bat egoteko, esperantza horri eutsi nion nik ere denboraldi batez, baina urtea amaitzen doa eta, kostatzen zait hau onartzea, baina hil da Schrödingerren katua.

[...] Lurrak sekula izan duen plagarik handiena. Bere ama torturatu eta hil zutenak, horrela pasako gara Unibertsoaren historiara. Bere gaitasunak irentsita galdu zirenak.

Baina badut fedea, Lurra gugandik haratago biziko dena.

Bilatuko duela modu bat sendatzeko, eta biziko dela libre –oxala gurekin–, baina, seguruena, gu joan eta gero. Ez dugu merezi, baina izan dadila, mesedez, 2021. urtea pixka bat hobea.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA
www.goiena.eus

**Argitaratzailea**
Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

**Lehendakaria**
Monika Belastegi.
**Zuzendari nagusia**
Iban Arantzabal.
**Eduki zuzendaria**
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendari komertziala**
Mireia Larrañaga.
**Administrazio zuzendaria**
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**
Iñaki Iturbe.
**Hizkuntza arduraduna**
Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**
Igone Osinaga.

**Sailetako arduradunak**
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
**Maketazioa**
Imanol Soriano, Aitor Lagoma, Amaia Martinez de Arenaza.
**Publizitatea**
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

**Administrazioa**
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*harpidetza@goiena.eus*

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*publi@goiena.eus*
**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
*berriak@goiena.eus*

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 19.000 ale
**Difusioa:** 18.723 ale

**Inprimategia:**
Zeroa Multimedia

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia

Arrasateko Udala, Bergarako Udala, Oñatiko Udala, Aretxabaletako Udala, Eskoriatzako Udala, Antzuolako Udala, Aramaioko Udala, Elgetako Udala, Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

# "Funtsezkoa da lan munduan parekidetasuna lortzea"

**LEIRE URRETXO** ARETXABALETAKO LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLEA

**Karmele Uribesalgo** ARETXABALETA
Iaz egin zuen Aretxabaletako Lanbide Eskolak Automozioko Emakumeen Topaketa, eta bigarren edizioa prestatzen ari dira. Urtarrilaren 27an izango da.

**Zer egingo duzue aurten?**
Egoera dela eta, birtuala izango da. Hiruzpalau hizlari izango ditugu, automozioan lanean dabiltzan emakumeak izango dira, eta moderatzaile batek gidatuko ditu. Mahai ingurua jarraitzera gonbidatuta egongo dira Automozioko Lanbide Heziketako ikastetxe guztiak.

**Zein da topaketaren helburua?**
Batez ere, bideratuta dago gaur egun Automozio ikasketak egiten dabiltzan neska horiei eredu batzuk erakustera. Nahi duguna da eurek ezagutzea beste emakume batzuen esperientzia. Bestalde, garrantzitsua iruditzen zaigu emakume horien lana ikusaraztea. Neska gutxi izaten dira arlo industrialean, orokorrean, eta, espezifikoki, automozioan. Animatzeko era gisa aurkezten dugu topaketa, sentitu dezaten inguruan badituztela euren moduko beste neska batzuk. Gure ikastetxean, esaterako, ehun ikasle inguru ditugu, eta neska bi bakarrik daude.


Leire Urretxo, Aretxabaletako Lanbide Heziketako eskolan. L.U.

**Zein da emakumeen egoera automozioan?**
Normaltasunez daramatzate bai ikasketak baita harremanak ere, baina egia da oraindik ere kopurua oso txikia dela.

**Aukera ezberdintasuna nabari duzue?**
Esango nuke salto bat emateko beharra dagoela. Azken boladan, enpresetatik emakumezkoak eskatzen dizkigute, eta, beraz, badago eskari bat, baina ez da neska askorik izaten Automozioko ikasketak egiten. Tailerretan oraindik aurrerapausoak eman behar ditugu. Poliki-poliki aldatzen doa joera, eta horretan ari gara gu ere, hori aldatu nahian.

**Jendearen ikuskera aldatzen doa, beraz.**
Joan den urteko topaketa antolatu genuenean, tailerretatik eta enpresetatik sekulako bultzada jaso genuen, eurek ere ikusten dutelako beharra dagoela eta onuragarria dela, ez bakarrik arlo honentzat, baita gizarte osoarentzat ere. Lan inguruan parekidetasuna lortzea funtsezkoa da.

**Zer esango zenioke mundu horretan sartu nahi duen neska bati?**
Benetan gustuko badu, ikasteko, beldurrik ez izateko. Aukera baldin badauka bere lanbidea hautatzeko eta gustatzen zaiona egiteko, ez dezatela izan inolako aurreiritzirik.

HAU BE BADOGU!

## Gabonetako argiekin eztabaida latza



@urtziurkizu: "Abenduak 8. Gabonetako argiak zergatik, zeinentzat, zertarako? Ezin da aurten diru hori langabetuentzat eman?".
@*hutsetikhasi*: "22:00etan denok etxean eta Gabonetako argiak piztuta gau osoaren zehar".
@*AntonioGallarin*: "Etxeko txikientzat ilusioa, herriko merkatarientzat esperantza, herritar denontzat argitasun pixkat garai ilun hauetan".
@*suburbiaxi*: "Milaka gauza moztu daitezke Gabonetako argiak baino lehen...".

## Neurri berriek polemika sortu dute

Eguaztenean, Gabonei begira hartuko dituzten neurri berriak ezagutzera eman zituen lehendakariak:
@*nahiaetaezina*: "Zenbatek pentsatuko zuten... Jode gure herriko tabernak itxita... Ba ondoko herrikoetara goaz...".
@*martin_kitto*: "Bueno, bada, tabernetara joan ahal izango gara tabernak irekitzea baimenduko duten arauak kritikatzera. #*Tabernalogia*".
@*ineozubi*: "Tabernak itxita, baina herritik irteteko arazorik ez!".

## Durangoko Azoka 'trending topic' izan da

Arrakasta izan du ezohiko Azokak sare sozialetan ere, eta #*taupaDA* eta #*DA* traolak erabilienen artean egon dira asteon:
@*durangokoazoka*: "Itxi ditu ateak 55. Durangoko Azokak! Mila esker hau posible egiten lagundu duzuen guztioi! Mila esker zuen taupadengatik!".
@*aritxu91*: "Eman diot nire taupada Euskal Kulturari #*55DA* #*TaupaDA*".
@*iizurie*: "Durangotik Euskal Herriko txoko guztietara. #*TaupaDA*".

ITURRI ONETIK

## Wikipediako artikuluak garatuta, irabazle

Inazio Irizar idazle oñatiarrak irabazi du Wikipedia Entziklopedia Askearen euskarazko adarrak antolatu duen lehiaketa, Funtsezkoak atalean. Atal horretan 200 artikulu zeuden aukeran. Helburua zen artikulu horiek hobetzea. Irizarrek hogei artikulu landu ditu urte osoan barrena. Mundu mailako erreferenteak, hala nola Karl Marx, Albert Einstein, Marie Curie, Pablo Picasso... "Orokorrean, artikuluok beste hizkuntzekin konparatzeko moduan daudela orain uste dut", adierazi du Irizarrek.

ALBISTE IZAN ZEN

2012-12-16

## Gerran erraildako 'Lurgorri' omendu zuten Aramaion

Jose Mari Azkarraga Mozo *Lurgorri* omendu zuten Aramaion, Espainiako gerran frankistek hil zutela 75 urte bete zirenean. Familia abertzale eta euskaltzale bateko kide, gaztetatik EAJkoa, *Euzkadi* aldizkarian idatzi ohi zuen. Altxamendu faxistaren ostean, alderdiaren esanetara Amaiur batailoia sortzen lagundu zuen. Derioko kanposantuan erail zuten, 21 urte zituela. Omenaldian, senideek eta EAJko kideek hartu zuten parte.



GOIENA



D2030: IRITZIA

**ENAITZ EZPELETA** / MONDRAGON UNIBERTSITATEKO IKERLARIA ETA IRAKASLEA

# Digitalizazioaren erronkei heltzeko ordua



PIXABAY.COM / GMK

20 urte, egin 20 urte atzera eta pentsatu nolakoa zen zure bizitza orain dela bi hamarkada. Momentu hartan jaio gabeko pertsonentzat orduko errealitatearen adibide batzuk hauek dira: ordenagailuren bat zegoen etxeetan, ordenagailu bakarra zen bizikide guztientzat; etxeetan telefono finkoak bai, baina mugikorrik apenas eta zeudenak pisuzkoak, handiak eta soilik deiak egiteko aukera zutenak; Internet existitzen zela jakin bai, baina bertan ezer gutxi egiteko aukera... Norbanakoon bizitzan 20 urte asko direla iruditu arren, gizartearentzat denbora tarte hain txikian teknologikoki ikaragarrizko eraldaketa jasan dugula ukaezina da. Gogoan dauzkat ikasturte honen hasieran unibertsitateko nire ikasleei luzatu nizkien galderak sortutako erreakzioak: "Imajinatzen duzue konfinamendua nolakoa izango litzatekeen Interneteko konexio gabe?". Pentsatzeak bakarrik hotzikara eman zien batzuei, hauek orain dela 20 urte jaio gabe zeuden.

Ezin da gure egungo errealitatea ulertu teknologia berrien presentziarik gabe: mugikorrak, online erosketak, kirola egiteko ordulariak, Interneteko denbora-pasak, sare sozialak... Zerrenda luzea da gure egunerokoan, baina baita administrazio publikoetako sistemetan, edota enpresa industrialetako produkzio lerroetakoetan. Baina digitalizazio prozesu honek aukerak eskaintzen dizkigun era berean, mehatxuak eta erronkak ere badakartza eta lerro hauetan horietako batzuk aztertzea gustatuko litzaidake.

**Arrakalak**

Beste hainbat gauzarekin batera, pandemiak azaleratu du teknologia berriak ez daudela pertsona guztien eskura, arrakala digitala errealitate bat da gaur egun, eta kasu hauetan beti gertatzen den moduan, konpondu ezean, arrakala hori gero eta zabalagoa izango da. Gogoratu beharra dago 2011. urtean Nazio Batuen Erakundeak Interneterako konexioa giza eskubide bezala onartu zuela, hezkuntzara, medikuntzara... sarbidea eskaintzen duelako, eta gobernuen ardura da edonork konexio bat izan dezan baldintzak bermatzea. Aldiz, INEko 2019ko datuek erakusten dute herritarren %9k ez daukala Interneteko konexiorik. Horrek esan nahi duena da milaka direla 2020. urte honetan hezkuntzako eskubiderik gabe geratu diren haurrak, ezin izan dutelako klaserik online jaso. Gobernuek egoera hauek ekiditeko pausoak ematea ezinbestekoa da. Puntu honetan, goraipatzeko itxialdi betean hainbat udalek –tartean Elgetakoa– Izarkom telekomunikazio kooperatibaren laguntzarekin martxan jarritako dinamikak, herri bakoitzeko haur guztiek Interneterako sarbidea eta lanerako gailu bat izan zezaten.

Honek hurrengo puntura garamatza: nola da posible giza eskubidea den Interneterako konexioa dirua helburu duten enpresa erraldoien esku egotea? Non geratzen da gure burujabetza teknologikoa? Etorkizunean azpiegiturak ez badaude esku publikoetan, etorkizun kaxkarra daukagu aurretik; zer esanik ez, 5G teknologiak zentzu honetan ekarriko duen atzerapausoarekin, erabateko pribatizazioa ekarriko du azpiegituretan eta. *Argia* aldizkarian aste honetan Dabid Martinezek zioen moduan: "Euskotren gure auzotik pasatzea behar dugu. Ez AHT". Hau da, egin dezagun azpimarra norbanako orok konexio bat izan dezan eta ez dezagun gizartearen zati bat aurrez zegoena baino bazterreratuago utzi. Aldi berean, badugu ordua gure produktu teknologikoa sortzen joateko, beste herrialde batzuekiko menpekotasun teknologikoa izanez gero, arazoak dauden momentuan, martxoan musukoak egiteko izan genuen arazo bera izango dugu eta: ez gara gure produktu propioak egiteko gai izango.

Beste erronketako bat segurtasuna da. Argi dago gero eta gailu gehiago baditugu konektaturik, gero eta datu pertsonal gehiago sarean izan, edota gero eta eragiketa gehiago online egin, orduan eta aukera gehiago izango ditugula guk hanka sartu edo asmo txarrez dabilen batek gure segurtasuna urratzeko. Horren aurrean unibertsitate eta ikastetxeek formazioa ematea ezinbesteko tresna da, jendartea hezi eta teknologiaren erabilera zentzuzkoa egin dezan. Aldiz, enpresa zein erakunde publikoen kasuan, bezero, langile edo egiturak zaintzeko beharrezkoak izango dira beraien aktibo guztiak babestuko dituen segurtasun plan eguneratuak garatzea adituen laguntzaz, eta, erasoren bat jasanez gero, altxatzeko prest izatea momentu oro.

**Datuen erabilera**

Azkenik, gizartean kezka iturri den beste gai bat ere aipatu nahiko nuke: datuen erabilera. Gero eta datu gehiago sortzen dugu gailu digitalen bidez, eta lehen paperean edo fisikoki gordetzen ziren datu asko digitalki gordetzen ditugu. Informazio hori oso baliotsua izan daiteke, bai onerako eta baita txarrerako ere. Unibertsitateko gure ikerketa proiektuetan ikusi ahal izan dugu datuei esker posible dela gaixotasunak aurrez antzematea, gure sistemetan erasoak antzematea edo fabriketako produkzio lerroak hobetzea. Ikerlari guztion lana da datuak gure bizitzak hobetzeko erabiltzen direnean nola eta zehazki zertarako erabiltzen ditugun modu ulergarrian azaltzea. Baina txanponaren beste aldean, enpresa handiek gure hainbat daturekin egiten duten erabilera izango genuke. Kasu honetan, beharrezkoa izango da gobernuek datuen erabilera etiko eta zuzena bermatzeko tresnak martxan jartzea, eta herritarrok zentzuz jokatzea gure datuekin.

Teknologiak definizioz ez dira onak edo txarrak, ematen zaien erabilpenean dago gakoa, eta hor bakoitzak bere ardurei eutsi behar die: adituok, heziketa lana eginez, publiko orokorra informatuz eta formazioa emanaz; agintariek, neurri eta lege justuak definituz eta beharra dutenei baliabideak eskainiz; eta norbanako bakoitzak, zentzuzko erabilpen bat eginaz. Modu horretan soilik lortuko dugu teknologia berriek eskaintzen digutena gizarte osoaren bizi kalitatea hobetzeko izatea, eta ez gutxi batzuk aberasteko.

**DIGITALIZAZIO PROZESUEK AUKERAK ETA MEHATXUAK SORTZEN DITUZTE EZINBESTEAN**

**INTERNETERAKO KONEXIOA GIZA ESKUBIDE BAT DA, GOBERNUEN ARDURA DA HORI BERMATZEA**

**TEKNOLOGIA DEFINIZIOZ EZ DA ONA EDO TXARRA, ERABILERAN DAGO GAKOA**

# "Banaketa masibo zein egokituak egiten ditugu"

**IGONE OSINAGA** BATU-BANATU BANAKETA ENPRESAKO KIDEA

Enpresen, elkarteen, taldeen eta erakundeen mezuak etxez etxe banatzeko eskualdeko enpresa bakarrenetakoa da Batu-Banatu. Askotariko zerbitzuak eskaintzen ditu

Datorren urtean, hamabost urte beteko ditu Batu-Banatu enpresak. Etxez etxeko banaketa masibo zein pertsonalizatuak egiten dituen eskualdeko bakarrenetakoa da. Zehaztasunak eman ditu Igone Osinagak.



Batu-Banatuko Igone Osinaga, Goienaren egoitzan, Arrasaten.

**Zer da Batu-Banatu?**
Goiena taldeko publizitate-banaketa enpresa. 2006an sortua. Hasieran, Goienak argitaratutako produktuak banatzeko beharrari erantzuteko. Horrela, astero, GOIENA aldizkariaren 19.000 ale banatzen ditugu Debagoieneko bederatzi herrietan; eta, horrekin batera, *Puntua* aldizkariaren 4.000 ale. Urtean behin, 19.000 gida komertzial ere banatzen ditugu. Bestalde, Debagoienean publizitate-banaketa enpresa gutxi daude, eta, ikusita premia bazegoela, banaketaren esparruan murgildu ginen buru-belarri, eta, gaur egun, enpresen, entitate publikoen eta ikastetxeen banaketa ugari egiten ditugu; postontzietara, gehienbat.

**Non dago enpresa?**
Arrasaten. Zehazki, Otalora Lizentziaduna 31n.

**Zenbat langileko lantaldea duzue?**
Hogei pertsonaz osaturiko taldea gara eta Debagoieneko bederatzi herrietan gaude banatuta: Arrasaten bost banatzaile dabiltza; Aretxabaletan, hiru; Bergaran, hiru; Oñatin, hiru; Eskoriatzan, bat; Leintz Gatzagan, bat; Aramaion, bat; Antzuolan, bat; eta Elgetan, bat. Auzoetan banatzen duten sei pertsonak ere asko laguntzen digute.

**Nola egiten duzue lan? Zein baliabiderekin?**
Orain dela hiru urte, geuretako propio sorturiko aplikazio teknologiko berezi bat erabiltzen hasi ginen banaketa mota batzuk egiteko. Hau da, banaketa pertsonalizatuak egiteko. Esaterako, GOIENA aldizkaria, *Puntua*, hainbat aldizkari, gutunak, egutegiak… Banatzaileek mugikorrean aplikazioarekin ikusten dute non utzi behar duten bezeroak eskatutakoa. Aplikazioaren bidez lortzen da banatzaileen eta arduradunaren arteko komunikazio zuzena, eta momenturo ikusi dezakegu dauden arazoak, dauden aldaketak… Beraz, banaketa bakoitzaren jarraipen zuzena eta sakona egiten da. Honek eraginkorrago bihurtzen du banaketa.

**Zein da zuen lan esparru geografikoa?**
Jeneralean, Debagoieneko bederatzi herrietan mugitzen gara, gure bezero nagusiak zona honetakoak direlako. Hala ere, Debabarrenean, Urola Garaian eta Gasteiz aldean ere banaketak egin ditugu. Izan ere, prest gaude bezeroaren beharretara egokitu eta beste leku batzuetan ere banatzeko.

**Zein da negozio esparrua?**
Negozio mota guztiei zerbitzua ematea da gure helburua. Negozio guztiek dauzkate produktuak edo zerbitzuak euren bezeroei erakusteko, sustatzeko, eta, hori erakusten ez badute, jendeak, askotan, ez dauka horren berri.

**Edozer gauza banatzen duzue?**
Ez. Azpimarratzekoa da guk informazioarekin eta publizitatearekin lotutako banaketa egiten dugula, ez gara paketeria-mezulariak. Banatzen ditugu aldizkariak, neurri guztietako eskuorriak –diptikoak, triptikoak, A5, A4–, agendak, egutegiak, gutunak, txostenak, liburuxkak…

**Zeintzuk dira zuen bezero nagusiak?**
Asko, eta esparru askotarikoak: ikastetxeak, alderdi politikoak, dendak, negozioak, udalak, enpresak… Batzuk aipatzearren: Arrasateko, Oñatiko, Aretxabaletako eta Antzuolako udalak; Debagoieneko Mankomunitatea; Mariaren Lagundia ikastola, San Martin Agirre ikastetxea…

**Eta eskaintzen dituzuen zerbitzuak?**
Zabalik gaude eskatzen dizkiguten informazio edo publizitate banaketa mota ezberdinetara, baina, jeneralean, honako hauek: banaketa masiboa postontzi guztietan –eskuorriak eta aldizkariak izan daitezke–; banaketa pertsonalizatua bezero edo hartzaile konkretuei; GOIENA aldizkariarekin batera enkarteak –egubakoitzetan–; kartelak itsatsi; autoz autoko banaketa…

**Gehien eskatzen den zerbitzua?**
Bezeroek euren zerbitzuak edo produktuak ahalik eta jende gehienarengana iristea nahi dute. Horregatik, gehien eskatzen digutena da etxez etxeko banaketa masiboa. Dena den, banaketa pertsonalizatuak ere oso erabiliak dira: gutunak, egutegiak eta eskaintza bereziak.

**"NEGOZIO MOTA GUZTIEI ZERBITZUA EMATEA DA GURE HELBURUA, PREMIEI EGOKITUTA"**



# Ezohiko santamasak ere, disfrutatzeko modukoak

2020ko Santamas Eguna bertan behera geratu bada ere, gaur hasi eta urtarrilaren 5era arte hainbat ekitaldi antolatu dituzte Ibai-artek, herriko kultur taldeek, Santamas Komisiñuak eta Udalak elkarlanean; Biteri plazako karpan egingo dituzte gehienak

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

Biteri plazan jarriko duten karpan, Kulturaten, Amaia antzokian, San Frantzisko elizan eta gaztetxean egingo dituzte antolatutako ekintza guztiak.



**Eguaztenean aurkeztu zuten santamasetako egitaraua.** H.L.

**Musika, antzerkia eta bertsoak**

Amaia antzokiko eskaintzari dagokionez, *Ikimilikiliklik* antzezlana egongo da bihar, gala lirikoa eguenean eta bertso-saioa egubakoitzean –16.orrian informazio gehiago–. Horrez gain, Izarok bi kontzertu eskainiko ditu abenduaren 23an, 16:00etan eta 19:00etan; abenduaren 26an, zapatua, Arrasate Musikal Big Band-ek emanaldia eskainiko du, 19:00etan; eta hilaren 31n, 13:00etan, Arrasate Musikaleko Bandaren kontzertua egongo da.

Bestalde, abenduaren 18an, Arrasate Musikaleko orkestrak emanaldia eskainiko du San Frantzisko elizan, 19:30ean.

**Kulturaten, bi emanaldi**

Bestalde, Kulturaten, *Aralar, mundua leku den lurra* ikusentzunezkoaren emanaldia eta hizketaldia egingo dute abenduaren 14an, astelehena, areto nagusian, 18:30ean hasita. Astebete geroago, hilaren 21ean, *Emakumeak euskal dantzetan: gezur baten historia* hitzaldia egingo du Oier Araolazak, hori ere 18:30ean.

**Gaztetxean, hainbat kontzertu**

Hilaren 19an, Fito Skins eta Sukena taldeen kontzertua egongo da gaztetxean, 18:00etan; eta hilaren 27an, Txakurrak eta The Potes taldeena, ordu berean.

**Ibai-artek, zozketa eta ekintzak**

Abenduaren 19an zozkatuko dituen 50 otzarez gain, hainbat ekintza ere antolatu ditu merkatari elkarteak, bai karpan eta baita Amaia antzokian ere.

**GEHIENEZ 150 PERTSONA SARTU AHAL IZANGO DIRA KARPAN EKITALDI BAKOITZEAN**

Ibai-artek antolatutako ekintzen gonbidapenak *Ibaiarte.eus* -en eskuratu ahal izango dira eta karpako gainontzeko ekintzenak, hasi baino ordubete lehenago, bete arte –150 pertsonako edukiera izango du–.

**Olentzero, kaleetan zehar**

Hilaren 15ean eta 16an, Txoronpia eta Txoronpio herriko ikastetxeetara joango dira Olentzeroren gutunak jasotzera eta 24an, herriko kale eta auzoetan ibiliko da Olentzero, 20:00etan "zerua argituko duen arte".

## Gabonetako karpako egitaraua

**Abenduak 11, egubakoitza**
- **19:00** Ekiñe Casadoren eta Bloom taldearen emanaldiak.

**Abenduak 12, zapatua**
- **11:30-13:30** Txatxilipurdiren Jostailu Truke Merkatua.

**Abenduak 13, domeka**
- **12:00** Trikitixa Eskola eta Lore Gazteak dantza taldea.

**Abenduak 18, egubakoitza**
- **19:00** Perlata taldea: *Duguna esateko* diskoaren aurkezpena.

**Abenduak 19, zapatua**
- **10:00-14:00** Bertako baserritarren eta artisauen azoka.
- **18:00** Panoli kabareta, zirku ikuskizunen parodia, umoretik.
- **19:00** Euskaraldiko eta Gabonetako saskiaren sari banaketa.

**Abenduak 20, domeka**
- **19:00** Arrasateko gaiteroak & Garinband, Arrostaitz Dantza Taldearen laguntzarekin.

**Abenduak 21, astelehena**
- **11:00-14:00** Eskuartean azoka.

**Abenduak 22, martitzena**
- **11:00-14:00 eta 16:00-20:00** Eskuartean azoka.

**Abenduak 23, eguaztena**
- **11:00-14:00** Eskuartean azoka.
- **17:00** *Su epeletan* ipuin kontaketa.

**Abenduak 26, zapatua**
- **19:00** Assata taldearen kontzertua: *Dantzatu, madarikatuok!* diskoaren aurkezpena.

**Abenduak 28, astelehena**
- **12:00** Haurrentzako tailerrak eta jolasak, Txatxilipurdirekin.
- **18:00** SarraBete taldearen eskutik, euskal folk emanaldia.

**Abenduak 29, martitzena**
- **12:00** Bizi-Bizi zirkua eta Kiki, Koko eta Moko pailazoak.
- **18:00** *Kia's Show Band* emanaldia.

**Abenduak 30, eguaztena**
- **12:00** *Aztikeriak* emanaldia, Tor eta Txoborro magoekin.
- **18:00** Los Killos taldearen runba emanaldia.

**Urtarrilak 2, zapatua**
- **12:00** *Munduan berbena* ikuskizuna.

**Urtarrilak 4, astelehena**
- **18:30** *Irrien lagunak* ikuskizuna.

**Urtarrilak 5, martitzena**
- **18:00-20:00** Errege Magoak.

## 56.500 euro gobernuz kanpoko erakundeei bideratuta 2020an

Guztira, hamaika erakunde lagundu ditu Udalak aurten, "haien lana babestu eta sustatzeko" helburuarekin

**E.A.** ARRASATE

Dirulaguntza hauen helburua, Udalaren esanetan, gobernuz kanpoko erakundeen lana babestu eta sustatzea da, "garabidean lankidetza programak antolatu eta lortzeko, garatzeko bidean dauden herrialdeetako biztanleen baldintza sozioekonomikoak hobetze aldera".

Deialdia maiatzean egin zuen Udalak eta eskaerak aurkezteko epealdia uztail erdialdera arte izan zen. Epe hartan hamaika elkartek egin zuten eskaera. Dirulaguntzaren muga elkartearen gastuen %50ean kokatzen da; gehienez, 15.000 euro.

Askotarikoak izan dira laguntzak. Esaterako, AMS-MSH elkarteak 6.500 euroko laguntza jaso du, "Nikaraguan dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako prestakuntza-zentroa eta etxea laguntzeko". Garabide elkartera, bestalde, 4.900 euro bideratu ditu Udalak, "amazig-en eta euskaldunen arteko lankidetza esparrua jorratzeko".

## 'Tasioren Kuba' erakusketa ikusgai, abenduaren 31ra arte

Ezker Kultur Gunean jarri dute Kubako herritarren erresistentzia "umoretik" lantzen duen erakusketa, eta astelehenetik eguenera egongo da ikusgai.

Erakusketan, Tasio artistak azken hamar urteetan sortu dituen hamabost bineta ikus daitezke, eta, umorez, Kubako herritarren erresistentzia eta uharteak bizi duen ofentsiba mediatikoa lantzen ditu, antolatzaileek azaldu dutenez. "Lan horiek *Cubainformación* egunkarian argitaratu dira aurrez. Tasiok 1988tik egunkari desberdinetan egin du lan bineta-egile, *Egin*-en hasi eta ondoren *Euskadi Información*-en. 1999tik *Gara*-n sinatzen ditu bere komikiak eta beste aldizkari batzuetan ere kolaboratzen du".

Erakusketara joateko, aurrez hitzordua eskatu beharko da *ezkerkulturgunea@gmail.com* helbidera mezu bat bidaliz.

# Ospitale ondoko orubea, zimendatzetik gertuago

2020ko azken hilabeteetan putzuko ura ateratzen ibili ostean, lehen zimendatze-lanei ekin diete Moyua Eraikuntzako langileek; Visesa sozietate publikoak babes ofizialeko 184 etxebizitza eta 199 garaje eraikiko ditu bertan, "hiru urte barru" entregatzeko

**Hasier Larrea** ARRASATE

Zerrajera zaharreko D eta F partzeletan etxebizitzak egiteko proiektua aurrera doa pixkanaka. Iraganean instalazio industrialak barne hartu zituen lursail horrek, eta, Eusko Jaurlaritzak bertan egindako ikerketaren arabera, *potentzialki ekintza kutsakorrak jasan izan dituen lurren zerrendan* sailkatu zuten teknikariek. Partzela kutsatuta zegoen, beraz, eta, arazo hori konpontzeko, 2009an Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Arloko Sailak indusketa-lanak egin zituen bertan.



Zerrajera D eta F lursailetako indusketa-lanak. H.L.

Hala ere, amaitu gabe gelditu ziren partzeletako ezpondek zeuzkaten lur zatiak apartatzeko eta hondora zeraman aldapa kentzeko lanak; hala, zuloa putzu bilakatu zen denboraren poderioz, eta orubea landare eta animalien bizitoki bihurtu.

11 urteren ostean berrekin diete lan horiei, Jaurlaritzak, Udalak eta Visesak –Eusko Jaurlaritzaren menpe dagoen babes publikoko etxebizitzak sustatzeko sozietate publikoa– orubearen gaineko akordio bateratua eginda. Hori horrela, Carlos Quindos Visesako zuzendari orokorrak maiatzaren 25ean esleitu zizkion Moyua Eraikuntzak enpresari urbanizazio berria eraikitzeko lanak.

Gune horretan 63 etxebizitza jarriko dira salgai; horiek entregatzeko epea 2023ko udazkenean dago aurreikusita. Gainontzeko 121 etxebizitzak alokairuan jarriko ditu Alokabide elkarte publikoak; etxebizitza horiek zozketa publikoan banatuak izan ziren azaroaren hasieran. Bestalde, 199 garaje ere egingo dira, guztiak solairu bakarrean.

**Hondeamakinak, "laster"**

Urria ezkero daramate Moyua Eraikuntzak enpresako langileek 2009an bertan behera utzitako lursailaren gaineko moldakuntzak aurrera eramaten. Indusketa-plan bat jarri dute abian horretarako, baimenak Ingurumen Sailaren aurrean tramitatu ostean. Orain, araudiak ezartzen dituen gainbegiratuak eta lagin bilketa egiten ari dira.

**URTE AMAIERARAKO ORUBEAN MAKINERIA ASTUNA IKUSIKO DELA ADIERAZI DU VISESAK**

Visesak emandako informazioak dio "partzelako ur-kopuru gehiena" atera dutela eta zimendatzeko "lehen lanekin" hasi direla dagoeneko. Eraikinaren oinarriak jartzeko lan espezifikoak gauzatzen jarriko dira jarraian: "Urte amaierarako, makineria astuna ikusiko dugu ospitale atzeko orubean".

Bestalde, indusketek zimendatze-lanetan eraginik ekarriko duten galdetuta, sozietate publikotik ziurtatu dute "ezetz", obra gauzatzeko planak "bere horretan, aldaketarik jasan gabe", dirauela argudiatuta.

**Arrainak eta karramarroak**

Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariek putzuan animalia ez-autoktonoak hazi zirela frogatu zuten duela aste batzuk. Arrain eta karramarro espezieak ziren, besteak beste, eta errekara ez botatzeko agindua eman zuten teknikariek. Animalia gehienak ahateek jan dituztela uste dute Visesako arduradunek, eta obra garatzen joaten diren heinean ahateek ere orubetik alde egingo dutelakoan daude.

**Proiektua, 2007a ezkero geldi**

Hamar urtez blokeatuta egon zen lursailaren gaineko konponbidea, hiru aldeek 2017ko azaroan adostasuna sinatu zuten arte. Cristina Alonso Visesako komunikazio arduradunak orduko Udalari egozten dio soluzioa hamarkada batez aurkitu ez izana: "Udalak, hasiera batean, alokairurako bakarrik jarri nahi zituen etxeak, eta planteamendu hori Arrasaten zegoen eskariarekin bateraezina zen". Asmo hori 2007an Arrasateko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak sinatutako hitzarmenean zehaztutako oinarrietatik "urrun" zegoela gehitu du Alonsok.

## NIRE USTEZ



**ENERITZ URRUTIA**

### Denok gogoratzen garelako

Pasa berri dira Euskararen Eguna eta Euskaraldia, eta honekin batera badirudi guri ere ahaztu zaigula gure hizkuntza dela gure altxorra. Pozgarria da herriko edozein txokotan mingainak dantzan ikustea, saltoki batera joan eta bezero zein langileak egiten duen ahalegina bizitzea. Aberasgarria eta barrenak mugitzekoa da bakoitza bere rolean nola sartzen den eta betetzen saiatzen den ikustea.

Zer aldatu da? Zer gertatu da?

Pasa da txapa eramateko tartea, pasa da gure rola betetzeko hartutako konpromisoaren data, eta iraungitze-data heldu dela dirudi.

Ez dezagun ahaztu guk egiten ez badugu ez duela iraungo, gu borrokatzen ez bagara inork ez duela gugatik egingo eta ez dakienak ez duela ikasiko erabilgarritasuna ikusten ez badio. Gurea dena, betirako iraun dezan, gureganatu eta azaleratu.

## GORA ETA BEHERA



### Loreontziak aparkalekuetan

Herritar bat kexu da Seber Altubeko aparkalekuen gainean loreontziak jarri dituztela eta: "Autoa uzteko tokiak kendu dituzte, eta ezgaituentzako aparkalekua txikiegia da orain".

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?** *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

### Mundu Solidarioa Helburu erakundeak 20 urte bete ditu

Formalki Nikaraguako Diriamba herrian eta Arrasaten kokatuta dagoen AMS elkarteak Zoom bilera bidez ospatu du bi hamarkadetako ibilbidea. Elkarteko kideek eskerrak eman dizkiete "bereziki aurten" eurekin batera lanean jardun duten udal, enpresa, bazkide eta erakundeei: "Kanpaina berezia egin behar izan dugu aurten, diru-laguntzak izoztuta egon baitziren konfinamenduan, ondorioz, gure inguruko jendearen laguntza inoiz baino beharrezkoagoa izan dugu", adierazi du Isabel Medina AMSko kideak.

Batez ere Nikaraguako gazteekin egiten du lan erakundeak, eskoletan sentsibilizazioa sustatuz, behar gehien duten gazteei baliabideak emanez eta ikasleei bekak eskainiz. Erakunde gisa "hazi" egin direla nabarmendu du Medinak, "txoko ugaritako 99 bazkide" direla nabarmenduz.



Iazko abenduan Kulturaten egindako saioa, Vanessa Gonzalez eta Maider Alzelai ipuin kontalariekin. EKIN EMAKUMEAK

# Alderantzizko formatuan egingo dute kontakizuna

'Euskaratik mundura eta mundutik euskarara' ipuin musikatuak egingo dituzte gaur, egubakoitza, Kulturateko areto nagusian, 18:00etan; euskaldun batek Ameriketako Estatu Batuetan bizi izan duen esperientzian oinarrituko da kontakizun musikatua

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

Duela lau urte hasi ziren proiektu honekin Ekin Emakumeak Elkartea, Udal Biblioteka eta Udaleko Aniztasun Saila elkarlanean, herriko kultura eta hizkuntza aniztasunari "balioa eman" eta hura "ikusgarriago" egiteko. "Konturatu ginen Arrasaten geroz eta hizkuntza gehiago entzuten zirela eta erabaki genuen hizkuntza horiei guztiei aitortza egitea, herritarrek eta, batez ere, umeek ikusteko euren ikaskide eta lagunek beste hizkuntza batzuk hitz egiten dituztela. Hizkuntza horiek ezagutzeaz gain, balioa eman behar zaiela ikusi behar dute umeek", azaldu du Ekin Emakumeak Elkarteko eragile Jasone Giraldok.

Saioaren dinamikari dagokionez, atzerriko pertsona batek bere jatorrizko hizkuntzan kontatzen ditu ipuinak, jatorrizko herrialdearekin loturikoak, eta ondoren, hemengo ipuin kontalariak euskaratzen ditu, hemengo umeek uler dezaten.

Giraldok azaldu duenez, lehenengo ipuina Mendebaldeko Saharako emakume batek kontatu zuen eta, ordutik, mundu osoko ipuinak entzun ahal izan dituzte ekimen horren baitan: Nepal, Maroko, Pakistan, Venezuela, Mexiko, Nikaragua, Senegal, Kongo, Alemania, Brasil...

### Urteko bigarrena eta azkena

Azken urteotan, bi hilabetean behin egin izan dituzte saiook. Aurten, hala ere, saio bakarra egin ahal izan dute, otsailekoa, pandemiagatik. "Hau, beraz, urteari nolabaiteko amaiera emateko saioa izango da, eta datorren urtean ikusiko dugu nola abiatuko dugun berriro ekimena", dio Giraldok.

**SAIOOTAN, ATZERRIKO JATORRIA DUTENEK EUREN HIZKUNTZETAN KONTATZEN DITUZTE JATORRIZKO IPUINAK**

### Euskaldun bat atzerrian

Urteko azken saio horretan, "kultura aniztasunean gehiago sakontzearren", alderantziz egitea erabaki dute. "Hau da, atzerritik gure herrira etorritako baten istorioa izan beharrean, Ameriketako Estatu Batuetara joaten den euskaldun bati buruzko istorioa izango da. Hala, euskaldun horrek atzerritar moduan bizi duen esperientzia kontatuko du ipuinak". Ttak taldeko kideak arduratuko dira kontakizunaz eta gitarra doinuekin lagunduta egongo da.

### 5 urtetik gorakoentzako saioa

Edukiera mugatuta egongo da saioan eta momentuan bertan kontrolatuko dute sarrera. "Alde batetik, adina hartuko dugu kontuan, 5 urtetik gorakoak lehenetsiz. Horrez gain, ume guztiek maskara jarrita eduki beharko dute, sarreran eskuak garbituko dituzte eta distantzia mantenduz eseriko dira", nabarmendu du Giraldok.

# Beldurren gaineko hausnarketa, Ekhiren istorioan oinarrituta

Bihar, zapatua, 'Ikimilikiliklik' antzezlana eskainiko du Marie de Jongh konpainiak Amaia antzokian, 17:00etan

**E.A.** ARRASATE

Urtarrilaren 21ean estreinatu zuen obra konpainiak, Bilboko Arriaga antzokian. Hala ere, pandemiagatik bertan behera geratu zitzaizkien saio asko, eta orain berriro ere martxa hartuta daude, hainbat emanaldi eskaintzen. Arrasatekoa izango da horietako bat. "Oso ondo hartzen gaituzte Arrasaten, eta oso pozik bueltatuko gara oraingoan ere", azpimarratu du Jokin Oregik, konpainiako zuzendari eta egileak.

Lehen aldiz, hitza darabilte Marie de Jongheko kideek antzezlan batean. "Orain arte ez dugu hitzik erabili eta aurrerantzean ere, seguruenik, ez dugu erabiliko. Baina kontatu nahi dugunaren arabera erabakitzen dugu nola egin, eta oraingoan, istorioak hitza eskatzen du", gaineratu du Oregik.

### Hiru aktore, bi pertsonaia

Oregik berak orain dela urte batzuk idatzi zuen ipuin batean oinarritzen da obra, eta Ekhiren istorioa kontatzen du. "Emakume batek eta neskatila batek kontatzen dute istorioa, baina, berez, pertsona bera dira. Ekhi nagusia denean eta Ekhi umetan. Armiarma batek ere hartzen du protagonismoa. Azken batean, hiruren artean kontatuko dute Ekhiren benetako istorioa, zeinak sekulako beldurra zien txikitan sorginei eta, antzezlanak aurrera egin ahala, bera ere sorgin bihurtzen den. Hori da aitzakia ikus-entzuleekin beldurren gaineko hausnarketa batzuk partekatzeko".

### Sarrerak salgai, 5 eurotan

*Arrasate.eus* webgunean daude salgai sarrerak eta bihar leihatilan ere egongo dira, 5 eurotan.

## Bertso-saiorako sarrerak salgai daude dagoeneko

Abenduaren 19an egingo dute, AEDk antolatuta, santamasetako bertso jaialdia, Amaia antzokian, 19:00etan hasita.

Saioan ariko diren lau bertsolariak gipuzkoarrak izango dira: Beñat Gaztelumendi donostiarra, Uxue Alberdi elgoibartarra, Aitor Sarriegi beasaindarra eta Ane Zuazubiskar arrasatearra. "Asko poztu ninduen deiak. Izan ere, Arrasaten, Uribarriko saioan bai, baina sanjuanetan eta santamasetan ez dut kantatu orain arte. Gaztelumendi eta Sarriegirekin aurretik kantatu izan dut. Alberdirekin, bertso-eskolan bai, baina plazan ez. Alde horretatik, ilusioa ere egiten dit, batez ere, nire herrian haiekin kantatzeko aukera izango dudalako", dio Zuazubiskarrek. Gaijartzaile lanetan Saroi Jauregi zaldibiarra ariko da.

Sarrerak salgai daude, *Arrasate.eus* webgunean, 10 eurotan.

## OHARRAK

### Udazkeneko argazki lehiaketa

Sari banaketa ekitaldia egingo dute gaur, egubakoitza, 19:00etan, Kulturaten. 72 parte-hartzaile izan dira, guztira, eta 198 argazki. Felix Urrutiak irabazi du lehiaketa. Bigarren saria Iker Aizkorberentzat izan da eta hirugarrena, Iurgi Indarentzat.

### Arrasate Margo Taldearen erakusketa

Urtero garai hauetan Kulturaten egin ohi duten erakusketa otsailera atzeratu dute, "egoerak hala behartuta".

### Abenduaren 17ko gala lirikorako sarrerak

Oraindik hainbat sarrera gelditzen dira Ozenki elkarteak antolatuta Amaia antzokian 19:00etan egingo duten saiorako.

# "Ilusioa egin dit nire lana liburuan argitaratzeak"

**SABIN SALABERRI** MUSIKARIA

Aramaioarraren lana abesbatzei lotuta egon da; hala, Araba Abesbatzaren 50. urteurrena ospatzeko, Salaberriren obrak jasotzen dituen liburua argitaratu dute

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO

Arabako Aldundiak argitaratu du liburua: Sabin Salaberriren obrak batzen ditu, 300 baino gehiago, guztiak abesbatzendako idatziak. Aramaioarra pozik eta ilusioz hartu du bere obren bilduma egitea.

**Arabako Abesbatzaren 50. urteurrena ospatzeko argitaratu du Aldundiak liburua. Zer jasotzen du?**

Liburuan daude abesbatzendako idatzi ditudan obra guztiak. Izan ere, ahotserako, pianoarendako... idatzitako beste lan batzuk ere baditut, baina horiek ez daude liburuan jasota.

**Zenbat obra jasotzen ditu liburuak?**

Asko, 300 bat obra izango dira. Liburuak 480 bat orri ditu eta horietan daude jasota nik idatzitako obren partiturak.

**Nola etorri zitzaizun liburu hau egiteko proposamena?**

2018an, 50 urte bete zituen Araba Abesbatzak. Liburuaren sarrera Manu Sagastumek idatzi du eta aipatzen ditu zenbait datu. Nabarmendu behar da obra pila bat idatzi izan ditudala Araba Abesbatzarendako; horregatik sortu zen liburu hau egitearen ideia. Obra horien artean aurki daitezke elizako abestiak, Gabonetakoak, umeenak... Denetarik dago.

**300 lan baino gehiago jaso dituzula kontuan hartuta, baduzu obraren bat bereziki kuttuna dena?**

Bai, badaude kuttunak diren lanak, baina hori guraso batek seme-alabak maite dituen moduan da. Denak maite ditut berdin.

**Ilusioz hartu zenuen Aldundiak zure lanak argitaratuko zituela jakitea?**

Bai, jakina, ilusio handia egin zidan. Norberaren obrak batu eta argitaratuta ikustea oso pozgarria da.

**Liburuan jasota dauden lan guztien artean, gogoratzen duzu zein den lehenengo idatzitakoa?**

Bai; lehenengo idatzitakoen artean daude 1962an idatzitako bi edo hiru lan. Hala ere, xehetasun handiz gogoratzen dut 1968an idatzitakoa. Zarauzko Oleskariak taldeari idatzi nion obra bat izan zen, eta esan daiteke lehenengo obra sakona izan zela; nolabait, fama eman zidana. *Itsasoetan* zuen izena obrak, eta abestiaren letrak Zarauzko *Basarri* bertsolariak idatzi zituen.

**Gaur egun, zer duzu esku artean?**

Sortze lanetan baino gehiago moldaketa lanetan nabilela esan daiteke. Bizente Goikoetxea aramaioarrak koruarendako eta organoarendako egindako lana moldatzen ari naiz momentu honetan, obrak orkestrarekin jo ahal izateko. Orkestrarendako moldaketa bat da egiten ari naizena eta esan behar dut gustura ari naizela moldaketa hau egiten.



Sabin Salaberri musikaria. GOIENA

**"ORAIN ARI NAIZ MOLDATZEN BIZENTE GOIKOETXEAREN MUSIKA-LAN BAT ORKESTRARENDAKO"**

## Elkar liburu-dendan salgai

*Sabin Salaberriren lanak* da lanaren titulua eta Arabako Foru Aldundiak argitaratu du. Dagoeneko salgai dago, Gasteizko Elkar liburu-dendan. Araba Abesbatzaren 50. urteurrena ospatzeko argitaratatutako liburua da –urteurrena 2018an izan zen–. 15 eurotan dago salgai.

Salaberrik Araba Abesbatzarekin izan duen harremana estua izan da. 1968an sortu zuten abesbatza eta hasiera haietan Salaberriri eskatu zioten laguntza. Zalantza barik onartu zuen Salaberrik abesbatza gidatzeko ardura, eta izena proposatu zuena ere bera izen zen: Coro Alava. Garai haietako gizarte mugimenduen isla izan zen abesbatza eta euskara izan zen abestietan erabiltzen zuten hizkuntza.



Asurmendi, Bilboko Iberdrola dorrean. FAIR SATURDAY

# Bilbao Orkestra Sinfonikoarekin batera, online entzuteko aukera

Idoia Asurmendik Euskalduna jauregian eskaini behar duen emanaldirako sarrerak agortu dira dagoeneko

**A.E.** ARAMAIO

Gaur goiz eta arratsaldez entseatuko du eta bihar goizean entsegu orokorra izango du Idoia Asurmendik. Izan ere, bihar, 19:00etan, Bilbao Orkestra Sinfonikoarekin eta punta-puntako zenbait abeslarirekin batera *Gora bihotzak* emanaldian parte hartuko du.

Bilboko Euskalduna jauregian eskaini behar duten emanaldirako sarrera guztiak dagoeneko agortu dira –400 sarrera–, baina *streaming* bidez ikusteko aukera egongo da, *Fsnext.org* atarian. Horrez gain, ETBk grabatu go du emanaldia Gabonetako egitarauan eskaintzeko.

**Azken orduko urduritasunak**

Asurmendik aitortu du urduritasun puntu bat baduela: "Ez horrenbeste ikusle kopuruagatik, gehiago da erreferente ditudan abeslarien ondoan egoteagatik; Izaro eta Eñaut, esaterako".

Bestalde, gogoratu behar da Asurmendik Bilboko Iberdrola dorrean grabatutako kontzertua ikusgai dagoela, 3 euroren truke. Dirua Aramaioko musika eskolarendako izango da. Dagoeneko 150 ikustaldi izan ditu.

## GORA ETA BEHERA



### Ur-putzuak Iturrizuri kalean

Iturrizuri kalean sortzen diren putzuak direla eta, herritar batek dio arriskutsuak direla eta euria egiten duen aldiro sortzen direla. Udalak oraindik ez duela arazoa konpondu gaineratu du.

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?** *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

# "Bizipozari" eusteko ekitaldiak Gabonetan

700 bat umek gutun bana jasoko dute etxean ezusteko batekin; Olentzerori eta Mari Domingiri bidaltzeko postontzia jarriko dute Arkupen. Neguko azokak ez du hutsik egingo, "moldatuta" etorri arren, eta Aretxarteko kideek egutegiak oparituko dituzte

**Mirari Altube** ARETXABALETA
Ezohiko Gabonak izango dira aurtengoak, baina pandemiaren aurrean "amore eman barik ilusioari eusteko" gertatutako egitarauaren berri eman dute udal ordezkariek eta Aretxarte merkatarien elkarteko kideek. "Desberdinak izango dira, baina ospatuko ditugu. Horretarako, gaur egungo egoerara egokitu da programa", adierazi du Unai Elkoro alkateak.

Kanpainari hasiera eman dio, beste behin, herrian kontsumitzera gonbidatzeko iragarkiak. *Brianen bizitza* filma hartu dute oinarri, oraingoan, AZ Visual Mediako kideek. "Bi aukera genituen: tristea egitea, mezu tetriko batekin; edo umoretik jo eta alaitasuna eta bizipoza eragingo dituen zerbait egitea. Argi dago zein hautatu dugun", adierazi du Mikel Alberdi kideak.

Alkateak ere herriko saltokietan erostera gonbidatu ditu aretxabaletarrak, eta hori sustatzeko *20+10* bonuak atera dituzte: 1.000, hain zuzen ere –iaz baino 600 gehiago–. Horiek guztiak hiru egunean agortu ziren.

**Olentzero eta Mari Domingi**
Desfilerik ez da izango aurten, baina umeek izango dute ezustekorik: "Olentzeroren eta Mari Domingiren partetik gutuna jasoko dute 10 urtetik beherako neska-mutiko guztiek, ezustekoren batekin eta guzti", azaldu du Ainhoa Cabero Kultura zinegotziak. Hilaren 16tik 23ra bitartean jasoko dituzte horiek etxean; gainera, egun horietan postontzia jarriko dute Arkupen, Gabonetako pertsonaia horiei gutunak bidali ahal izateko.

**Neguko azoka hilaren 19an**
Neguko azokak ez du hutsik egingo, hilaren 19an izango da, baina moldatu egin behar izan dute formatua, Caberok azaldutako legez: "Karpa bakarrean ezin ditugu jarri hainbeste postu". Durana eta Mitarte kaleetan banatuta, 25 artisauren bueltan izango direla aurreratu du.

Erakusleiho lehiaketa ere egingo da, eta berritasunak daude aurten: bi sari banatuko dituzte. Lehenengoak 300 euro jasoko ditu eta bigarrenak, 150 euro. Bigarren hori herritarrek hautatu ahal izango dute; eta parte hartzaileen artean 50 euroko bonua zozketatuko dute.

**Aretxartek, egutegia opari**
Aretxarte merkatarien elkarteak ere eskaintza politak ditu herritarrendako, Idoia Elexpuruk azaldu duenez: "Egutegia oparituko diegu bezeroei, eta azken asteotan banatzen jardun dugun poltsa batzuk ere baditugu oraindik emateko. Urteroko zigiluen kanpaina ere abian dago. 50 euroko 38 bonu zozketatuko ditugu, eta 200 euroko bat. Tabernariek ere hartuko dute parte".


Udal ordezkariak, merkatariak eta ostalariak kanpaina aurkezten. MIRARI ALTUBE

**ERAKUSLEIHO GUSTUKOENARI BOTOA EMATEKO AUKERA IZANGO DUTE HERRITARREK**

## Egitaraua

**Abenduak 11**
- **19:00** Bertso jaialdia: Uxue Alberdi, Aitor Sarriegi, Oihana Bartra eta Iker Zubeldia. Gai-jartzailea: Amaia Agirre.

**Abenduak 13**
- **17:00** Kantu Kolore: *Ametsen urtebetetzea*.

**Abenduak 17**
- **19:00** Oreka TX: *Koklea*.

**Abenduak 19**
- **20:00** Organo emanaldia: Aitor Olea. Parrokia.

**Abenduak 20**
- **19:00** Kabareta (Andoni Mutiloa): *Esnatu naiz*.

**Abenduak 26**
- **16:30 eta 19:00** Antzerkia (J. Plazaola eta A. Garmendia): *Losers*.

**Abenduak 29**
- **19:00** Gospela (The Upper Room): *Goiko gela*.

# Gaztelekuaren kudeaketa pleguekin ez dago ados EH Bildu

Eskaintzen diren orduengatik bakarrik ordaintzea zehaztu dutela eta langileen "egoera ez dela kontuan hartu" diote

**M.A.** ARETXABALETA
Gaztelekua kudeatzeko pleguak argitaratu zituen joan den astean Udalak, urtebeterako esleitzeko asmoarekin –luzatzeko aukerarekin–. Eta EH Bildu ez dator bat pleguetan zehaztutakoarekin: "Udal Gobernuaren asmoa da eskaintzen diren orduengatik bakarrik ordaintzea. Hau da, balizko itxiera baten aurrean langileen egoera kontuan hartu gabe".

**Eskaintzen den ordu kopurua**
EH Bilduk dio orain arte kopuru ekonomiko finko bat ordaintzen zaiola gaztelekuko zerbitzua kudeatzeko kontratatutako enpresari edo elkarteari –Udalak dituen kontratu iraunkor guztietan bezala–: "Lizitazio honetan, ostera, zuzenean eskaintzen den ordu kopuruagatik bakarrik ordainduko da. Beraz, jarduera etengo balitz, COVID-19a dela-eta, adibidez, enpresak ez luke ezer kobratuko eta langileak kaleratuak izango lirateke edo aldi baterako erregulaziora joango lirateke". Eta gogorarazi gura izan dute aldi baterako erregulazioaren aukera –%70 kobratzen– urtarrilaren 31n bukatzen dela.

Udal zerbitzuen arteko "trataera ezberdin" hori "larria" dela uste dute EH Bilduko kideek: "Fakturatzeko sistema hau kontratu batzuei bai eta beste batzuei ez ezartzea. Edukiko ditugu lehenengo eta bigarren kategoriako zerbitzuak eta langileak?".

Udalaren "eraginkortasun ekonomikoa bermatzea" helburu bat izan behar dela jakinik ere, zera gaineratu dute: "Egoera ekonomikoa ezagututa esan behar dugu Udalaren kontuen egoerak ez duela inondik inora horrelako erabakiak hartzera behartzen. Udalak ezin du ETT baten antza hartu eta bere zerbitzuko langileen baldintzak ezin ditu prekarizatu".

**Pleguen zuzenketari "ezetza"**
Pleguak zuzentzeko eskatu diotela Udal Gobernuari gaineratu dute, baina ezetza jaso dutela, "aurrerapen ekonomikoa arrazoi" emanda. Gaineratu dute ostalaritzari laguntzeko plana garatzea espero dutela "elkarlanari" esker, baina zera gehituta: "Ez litzateke koherentea izango Udalak esku batekin ostalaritzari laguntzea eta bestearekin atera berri diren pleguak sinatzea".


KARMELE URIBESALGO

# Biribilgunea, inauguratuta

Azaroko azken astean bukatu eta martxan dagoen Basabeko biribilgunea inauguratu zuten atzo, eguena. Unai Elkoro alkatearekin elkartu ziren Bide Azpiegituretako diputatu Aintzane Oiarbide eta Mikel Uribetxebarria, eta gustura agertu ziren lanen emaitzarekin. Handik Leintz Gatzagara jo zuten Aldundiko ordezkariek, autobus geltoki berria bisitatzera.

# Garbigarriak, ontziratu gabe, ingurumena zaintzeko



Beñat Illarramendi eskoriatzarra, Aretxabaletan ireki berri duen Jasangarbi dendaren aurrean.

**BEÑAT ILLARRAMENDI** JASANGARBI DENDAKOA

Ontziratu gabeko denetariko garbigarriak dituzte Jasangarbin: arropa garbitzeko, sukalderako, etxea garbitzeko, garbiketa profesionalerako, gorputzerako, ilerako…

2020a urte zaila izaten ari da askorentzat. Negozioak itxi behar izan dituzte askok eta berrasmatzen hasi behar izan dute beste batzuek. Aukera berriak sortu dira. Pandemiak azaleratu duen arazo batean fokua jarrita ireki berri dute Aretxabaletan Jasangarbi denda.

*Erabili eta bota* filosofiak onura baino kalte gehiago egiten duela garbi ikusi da. Ingurumena zaintzea beharrezkoa da, eta horretarako ezinbestekoa da kontsumitzaileok murriztu-berrerabili-birziklatu hirukotea aintzat hartzea.

Erosketak egiteko orduan, gehiegizko enbalajea eta erabilera bakarreko ontziak arazo bihurtu dira, eta arduratuta daude aspalditik ingurumenaren aldeko taldeak, eta herritarrak eurak ere horren kontzientzia hartzen hasi dira.

Plastikorik gabeko erosketak egiteko hainbat baliabide daude eskura gaur egun: denda txikiek eskaintzen duten aukera ontziratu bako produktuak erosteko, bilgarri biodegradagarriak, telazko poltsak… Baina badira produktu batzuk orain arte ontziratu gabe aurkitzea zaila zena: garbitasunerako produktuak.

### Denetariko garbigarriak

Garbitasunerako produktuak ontziratu gabe saltzen dituzte Aretxabaletako Jasangarbi dendan. Urrian zabaldu zuen denda Beñat Illarramendi eskoriatzarrak, eta, dioenez, "herritarrak ari dira jabetzen ontziak bota beharrean berrerabiltzeko aukera berriak badaudela".

"Arropa garbitzeko xaboia bukatu zaizula? Bada, etxean duzun ontzi hori Jasangarbira eraman ahal duzu eta berriz bete ahal izango duzu usain goxoko garbigarriarekin. Ontzia jarri eta dendan garbigarria bakarrik ordainduko duzu. Eta ezin baduzu dendara bertara joan, etxera bidaliko dizugu gustukoen duzun garbigarria".

Denetariko garbigarriak dituzte, etxean egunero erabiltzeko egokiak: arropa garbitzeko, sukalderako, etxea garbitzeko, garbiketa profesionalerako, gorputzerako, ilerako… Gainera, garbigarri biodegradagarriak dira eta ingurumena ez dute hainbeste kaltetzen.

**"BERRERABILTZEKO AUKERAK BADAUDELA ARI DIRA JABETZEN HERRITARRAK"**

Baina ez du norbanakoendako denda bakarrik izan nahi; garbiketa-enpresei eta bestelako dendei ere zerbitzua eskaini nahi die, bai xaboiekin lan egiten dutenei eta baita ontziratu gabe produktuak saltzen dituztenei ere.

Dena dela, ez dituzte garbigarriak bakarrik saltzen; euren filosofiarekin bat egiten duten berriro erabiltzeko produktuak ere badituzte dendan: xanpu eta xaboi ekologikoak solidoan; berriro erabiltzeko termo eta ur botilak; eta behin baino gehiagotan erabiltzeko maskarak, besteak beste.

**"DENETARIKO GARBIGARRIAK DITUGU: ARROPA ZEIN ETXEA GARBITZEKO..."**

### Ekintzaile gaztea

24 urte ditu Beñat Illarramendi eskoriatzarrak, eta Administraritza ikasi zuen. Aspaldi zuen buruan denda bat zabaltzeko ideia, eta zerbait "berezia" izatea nahi zuen: "Negozioa izateaz gain, gizarteari ekarpena egin nahi nion, kontsumo jasangarriaren aldeko apustua eginez", dio. Hala, 4Eco taldearekin harremanetan jarri zen, eta gustatu egin zitzaion haien filosofia. Taldearen helburuetako bat da plastikozko ontziek ingurumenean duten eragina murrizteko aukera eskaintzea.

### Urria ezkero zabalik

Urriaren 13an zabaldu zuen Jasangarbi denda Aretxabaletan. 2020 hasieran hasi zen ideia lantzen, baina uztailera arte ideia baztertu egin behar izan zuen pandemiak sortutako egoera zailagatik.

Denda, herritarrei ez ezik, bestelako negozioei ere zabalik dago: garbiketa-enpresak, dendak, jatetxeak, tabernak, eskolak… Garbitzeko produktuak behar dituen orori eskaini nahi diote zerbitzua, kalitatezko produktua prezio onean eskainiz.

### Bidalketak etxeetara

Dendara joan ezin direnentzat edo Aretxabaletan bertan bizi ez direnentzat eskaria etxera bidaltzeko zerbitzua ere eskaintzen dute. Telefonoz edo Whatsapp bidez egin daiteke eskaria, eta, behin kontaktuan jarrita, dendan bertan emango dizkiote bezeroari azalpen guztiak.

Informazio gehiagorako edo eskariren bat egiteko, deitu edo idatzi: 688 68 70 75.



# "Aurrekontu orekatua izatea da erronka urtero"

**JUAN ANTONIO MARTINEZ DE AGIRRE** UDALEKO KONTU-HARTZAILE OHIA

Ia berrogei urte egin ditu Aretxabaletako Udalaren diru kontuak zaintzen, eta joan den azaroan erretiroa hartu zuen, ardura Begoña Arenaza Bengoaren esku utzita

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Zientzia Ekonomikoetan lizentziatu eta 1981ean sartu zen lanean Juan Antonio Martinez de Agirre (Aretxabaleta, 1957) Udalean lanean, Jesus Mari Herrasti Erlogorri alkate zela.

**Zenbat alkate ezagutu dituzu?**

Bederatzi gogoratzen ditut.

**Eta inorekin izan duzu arazorik?**

Ez. Batzuekin lan egitea zaila zen benetan, baina arazorik ez dut izan inorekin.

**Lehenengo agintaldi haietako udal aurrekontuak zenbatekoak izaten ziren?**

Ez naiz gogoratzen ondo, baina oraingoekin alderatuta oso txikiak. Lehen urteetan, batez ere, garrantzia obrak egiteari ematen zitzaion, eta logikoa zen, azpiegitura guztia egiteke zegoelako.

**Udalaren dirua zeurea balitz bezala zaindu izan duzun fama daukazu. Zuzen ibili zaren seinale?**

Beti izan da oso garrantzitsua ekonomikoki saneatua egotea eta aurrekontuen egonkortasuna mantentzea. Eta hori lortzeko, kontrol zehatza eraman behar da. Gastuak egitea oso erraza da, baina, hori egiteko, finantzaketak bermatuta egon behar du, eta diru-sarrerak lortzea ez da hain erraza.

**Aholkuak eskatu izan dizkizute ordezkari politikoek?**



Juan Antonio Martinez de Agirre, udaletxe aurrean. MIRARI ALTUBE

## "GASTUAK EGITEA OSO ERRAZA DA, BAINA DIRU-SARRERAK LORTZEA EZ HAINBESTE"

Beste lan batzuen artean, idazkaria eta kontu-hartzailea korporazioaren erabakiak legezko araudia betetzen dituztela ziurtatzeko daude. Beti galdetzen dute nola egin gauzak, eta bai, kasu egiten dute.

**Kexa asko jaso izan dituzu?**

Departamentuan ez dugu kexa askorik jaso herritarrengandik. Jendea galdezka etortzen da, eta, erantzuna jaso ondoren, eskerrak emanda joaten da, zalantzak argituta. Ohikoenak uraren kontsumoari buruzkoak izaten dira.

**Aretxabaletako Udala inoiz larri egon da diruari dagokionez?**

Bai. Agintaldi batean arazo dezente izan genituen eta nahiko gaizki ibili ginen langileen soldatak zein fakturak ordaintzeko.

**40 urtean aldaketarik handiena non igarri duzu?**

Batez ere, zenbait arazori irteera emateko orduan. Gaur egungo gizartea, orain dela berrogei urtekoarekin alderatuta, dezente konplexuagoa da; horrek arazo berriak dakartza eta horiei irteera emateko sortzen doaz lanpostu eta departamentu berriak, administrazioa handitzen doala. Lanean hasi nintzenean, Udalean hamar pertsonak lan egiten genuen, eta gaur egun berrogeita hamar batek. Aretxabaletak, beste herri batzuekin alderatuta, beti izan du pertsonal kopuruari dagokionez portzentaje txikienetakoa.

**Ogasun Sailari dagokionez, erronkarik badago etorkizunari begira?**

Urteroko erronka garrantzitsuena izaten da aurrekontu orekatua izatea. Ea gaur egungo bi talde politikoek ados jarri eta lortzen duten.

**Zure ordez Begoña Arenaza sartu da, zure alboan urteak egin dituena.**

Nahiko gogorra izan den oposizio lehiaketa irabazi du eta nik uste dut esku onenetan gelditu dela lanpostua.

**Besterik esan nahi baduzu…**

Gauza bat nahi nieke esan teknikariei eta politikariei: zerbitzuen eta aktibitateen giza errentagarritasuna neurtzea ezinbestekoa da. Hau da, ez neurtu soilik zenbait ekintza egiten diren, baizik eta egitea merezi duen edo ez ratioak aterata. Eta ikusten bada errentagarritasun txikia dutela, ez errepikatu hurrengo urtean, beti daude-eta aurre egin beharreko beste behar batzuk edota ahaztuta geratzen diren jarduerak. Azkenik, alkate eta zinegotzi guztiei eskerrak ematea, haien prestakuntza eta ikuspuntutik gauza asko ikasi ditudalako, eta, nola ez, nire lankide izan diren guztiei eskerrik beroena laguntza eta lankidetzagatik.

## 'Bizipen gineko-obstertrikoa' ikastaroa gaur

Indarkeria obstertrikoaren eta bortizkeria ginekologikoaren gainean hausnartu eta bizipenak partekatuko dituzte, Metik proiektuko Irune Robles eta Raquel Garcia adituek lagun eginda, gaur, egubakoitza, Arkupen (17:30). Erdu Aretxabaletako Talde Feministak antolatu du eta bi orduko ikastaro teoriko eta praktikoa izango da.

## COVID-19ak herrian izandako eragina berbagai hilaren 14an

Unai Elkoro alkatea eta Javier Mar medikua gonbidatu ditu Basotxo erretiratuen elkarteak, COVID-19ak Aretxabaletan izan duen eraginaren gainean argibideak emateko. Astelehenean izango da, abenduaren 14an, Arkupen (17:00). 50 lagunendako lekua egongo da eta izena aldez aurretik eman beharra dago Arkupen bertan.

## Karmele Igartua sorkuntza lehiaketaren sari banaketa bihar

Bergarako Idazle Eskolak eta Aretxabaletako Udalak elkarlanean deitutako Karmele Igartua sorkuntza lehiaketaren X. edizioaren sari banaketa ekitaldia egingo dute bihar, abenduak 12, Arkupen (12:00). Narrazioak eskatu dituzte aurtengo deialdian, eta hamasei lan jaso dituztela iragarri dute. Irabazleak 2.500 euroko saria jasoko du.





Durana
Hortz Klinika

Odontologia estetikoa
Endodontzia
Inplantologia

Ortodontzia
PADI zerbitzua
Hortz protesiak

Astelehenetik ostegunera: 08:30-20:00
Ostiralean: 09:00-16:00
Durana kalea 22 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 93 55

# "Eguneroko gauzak ahazteak arduratzen nau"

**URITZ ARENAZA** HERRITARRA

43 urteko eskoriatzarrak azken PCR probetan negatibo eman duen arren, sintomekin jarraitzen du. Nekatuta sentitzen da eta egunerokotasunean laguntza behar duela dio

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Martxoaren erdialdean hasi zen COVID-19aren sintomekin, kalenturarekin eta buruko minekin Uritz Arenaza eskoriatzarra, eta, harrezkero, ez da lehengo pertsona bera. Dio sintomekin jarraitzen duela: "Gauzak ahaztu egiten zaizkit, askotan ez dut indarrik izaten eguneroko gauzak egiteko eta artikulazioak gogortuta sentitzen ditut".

**COVID-19a diagnostikatu zizuten martxoan. Ingresatuta gaizki pasatu zenuen, eta gaur egun ere ondorioak sufritzen ari zara, ezta?**

Martxoaren 17an, sukar-hamarren batzuekin hasi nintzen, eta buruko-min handiekin. Gero, bi egunez sukar-hamarrenik ez, baina arnas falta igartzen nuen. Ondoren, sukarra, buruko-mina, gorputz txarra, oso makal, zaporea eta usaimena joanda... PCRa egin zidaten ospitalean, eta plaka bat atera. Ezkerraldeko birika pneumoniarekin nuela ikusten zela bertan. Antibiotikoaz eta ibuprofenoaz etxera bidali ninduten, baina berriro gaizki jarri, eta, anbulantzian ospitalera eraman ninduten, eta zenbait egunez ingresatuta egon nintzen.

**Zein izan zen unerik latzena?**

Oso prozesu bakartia da. Begiak irekitzeko indarrik ere ez neukan.



Uritz Arenaza. IMANOL SORIANO

Esan zidaten lasai egoteko, gaztea nintzela, eta ZIUn lekua izango nuela. Egoera hartan, esan daiteke zortea izan nuela, ZIUra ez nindutelako eraman. Gero, etxean hamabost egun egon nintzen, ingresoarekin, eta, egun haietan, egunean bi aldiz etortzen ziren erizainak etxera. Tratamendu gogorra izan zen; ebolaren, malariaren, eta abarren kontrako pastillak ziren, eragin handiak zituztenak. Maiatzean eta ekainean ondo egon nintzen, baina gaur egun, nekea eta buruko-mina eguneroko parte dira. Eguneroko gauzak ahazten zaizkit, eta horrek arduratzen nau.

**Diozu Covid Persistente taldea lagungarri egin zaizula; zergatik?**

Babes handia ematen dizu taldeak, ez zara bakarrik sentitzen, eta ulertua sentitzen zara. Bertan, adin ezberdinetako pertsonak gaude, egoera antzekoan gaudenak, eta egoera hau dagoela eta asko gaudela sintomekin adierazten dugu. Askok diote ondorioak ditugula, baina nik, beste askok bezala, ez ditut ondorioak, sintomak ditut oraindik. Askotan, zaila da mediku bati azaltzea ez zaudela ondo, berak egindako proba guztiak ondo irteten direnean. Hala, antsietate arazo moduan bideratzen dute, egoera traumatiko bat bizi nuelako... baina nik argi daukat nire gorputzak sintomak dituela, eta ez dela antsietate egoera bat. Hau guztiau berria da, baina ikerketa berri batzuk egin behar dira, zer gertatzen zaigun jakiteko.

**Laguntza ezinbestekoa, beraz?**

Egoera gorabeheratsua da. Egunerokotasunean beti norbaiten beharra daukat. Erosketak egiteko, etxeko antolaketan, haurrak eskolatik jasotzeko edo bazkariak egiteko... Beti daukat norbait laguntzen. Eta guztiak eskertu beharrean nago.



Guraso elkarteko zenbait kide bilera batean batuta. GUREL GURASO ELKARTEA

## Jostailu truke azoka antolatu du Gurelek domeka honetarako

Herritarrek egoera onean dauden eta erabiltzen ez dituzten ipuin eta jostailuak batu gura dituzte, plazan

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Gabonak iristear daudela, jostailu truke azoka antolatu du Gurelek domeka honetarako. 12:30etik 14:30era bitartean, nahi duenak Leintz Gatzagako San Miguel plazara etxean izan eta erabiltzen ez dituen eta egoera onean dituen ipuin eta jostailuak eramateko dei egin dute Gatzagako Gurel guraso elkarteko kideek. Hala, elkarbanatzearen eta berrerabiltzearen aldeko apustua egin gura dute.

**Bat uztearren, beste bat jaso**

"Beste urte batzuetan Hustu Ganbara ekimena egin izan dugu, baina, oraingoan, soilik, ipuinekin eta jostailuekin egingo dugu. Eramandakoa baldintza onean egotea eskatzen dugu, eta pieza guztiekin egon daitezela. Horiek batuko ditugu, gaur egungo neurri guztiak hartuta. Hala, batzen duguna ondo desinfektatuko dugu, eta, domekan ere hala izango gara bertan, neurri guztiak hartuta. Beraz, azokan parte hartzera animatu nahi ditugu herritarrak", adierazi dute Gureleko kideek.

Jostailu edo ipuin bakoitza entregatzen duen pertsona bakoitzari txartel bat emango diote, eta txartel horrekin, aurrerago zehaztuko duten egun batean, trukean beste jostailu bat hartzeko aukera izango dute herriko gaztetxoek.

**Batutako guztia, desinfektatuta**

Batutako jostailu guztien artean, trukatzen ez direnak beharra dutenei bidaliko zaizkiela ere adierazi gura izan dute guraso elkarteko kideek. "Jasotzen ditugun jostailu guztiak berrogeialdian egongo dira truke eguna iritsi arte. Hala, trukatzen ez diren jostailuak beharra dutenei bideratuko dizkiegu".

## Pertsonaia mitologikoak

Ibarraundi museoan euskal mitologiako pertsonaiak ezagutzeko aukera izango da. Horrekin batera, Olentzeroren eta Mari Domingiren etxea ere bertan jarriko dute, eta bisitak egiteko aukera izango da abenduaren 23ra bitartean. Horretarako, *kultura@eskoriatza.eus* helbidera idatzi edo 943 71 46 88 telefono zenbakira deitu beharko da.



IBARRAUNDI MUSEOA

## Gatzagako alkate Eugenio Otsoa 'Harira'-n izango da

Leintz Gatzagako alkate Eugenio Otsoa Goiena telebistako *Harira* saioan izango da abenduaren 15ean (21:30 eta 23:30).

Eneko Azkarate kazetariak elkarrizketatuko du Gatzagan udalbatzako buru lanetan esperientzia handia eta ibilbide luzea duen Eugenio Otsoa. Hain zuzen ere, azken hauteskundeetan izandako zailtasunez, horren ondoren udalbatzara batu diren udal ordezkari gazte berrien garrantziaz, Gatz Museoaren etorkizunaz eta asmoez, COVID-19az... hitz egiteko tartea hartuko dute Goienako platoan egindako elkarrizketan.

Hala, herriko kontuez batera, gaurkotasunari lotutako gaiak izango dituzte berbetarako gai. Herritarrek ere izango dute galderak egiteko aukera: Whatsapp edo Telegram bidez (688 69 00 07) edo posta elektronikoz (*berriak@goiena.eus*).



Pandemia aurreko San Esteban krosa irudikatzen duen unea. ARTXIBOA

# Egoerara egokitutako kirol eta kultura ekintzak

Udalak abendu eta urtarril bitarteko kirol eta kultura ekintzak prest ditu. Pandemiaren bilakaeraren menpe daude, eta baliteke ekintzok aldaketaren bat izatea. Bihar, behinik behin, Lander Garrok azken lana eskainiko du Torresoroan

**Maider Arregi** ANTZUOLA

2020eko Gabonak ez dira berdinak izango. Hala, pandemiaren bilakaerari estuki lotuak egongo dira abenduko eta urtarrileko ekintzak Antzuolan ere. Hala ere, orain artean antolatutako ekintzek izan duten harrera ikusita, Antzuolako Udala babes neurri guztiekin kultura zein kirol ekintzak antolatzearen aldeko azaldu da. "Herritarrak girotzea eta aisialdirako eskaintza ezberdinak ematea da gure helburua. Distantzia gorde behar da eta barruetako edukiera ere kontuan izan behar da. Hala ere, kanpoan egingo diren ekintzak ere antolatu ditugu eta herritarrei dei egin nahi diegu parte har dezaten", azaldu du Antzuolako alkate Beñardo Kortabarriak.

### Herritarren parte hartzea

Antolatutako kanpo ekintza horietako bat da, adibidez, Udalak plazan jarriko dituen mezu positiboak jasotzeko panelak. "Hilaren 21ean jarriko ditugu, eta herritarrek ekarpenak egin ditzaten nahi dugu. Jendeak parte hartzeko ekintza xumea izango da; mezuak ikuspegi pertsonaletik eta nola sentitzen diren adieraziz jaso nahiko genituzke: urte berrirako desioak".

### Antolatutako ekintzak

Zapatuan, Lander Garroren *Bi urte, lau hilabete eta egun bat* filma aurkeztuko du egileak berak, 18:00etan, Torresoroan. Intsumisio garaian alkate zen Jose Inazio Agirrek ere parte hartu du. Abenduaren 18rako, berriz, basogintza jasangarriaren inguruko hitzaldia antolatu dute eta Aramaioko bi hizlarik parte hartuko dute esperientziaren berri emateko. Abenduren 24an, ordea, ezin izango da Olentzerori eta Mari Domingiri egiten zaien harrerarik egin. "San Isidro egunean bertsolariekin egin genuen bezala, kamioi batean auzorik auzo joatea da asmoa".

**EKINTZETAN AURREZ EMAN BEHAR DA IZENA; SARRERAK ERE AURREZ ERRESERBATU BEHAR DIRA**

Eta abenduaren 26rako, parte hartzea bultzatzeko, egun osoko San Esteban krosa antolatu dute. Korrikaren estilora egingo da. "Burbuila taldeak antolatu eta hasiera banan-banan emango zaio. "11:00etatik 19:00etara izango da eta nahi duenak Izan Bidean ekimenaren baitan parte hartzeko aukera izango du, egindako kilometroak eskainiz. Parte hartzaileen artean herriko dendetan gastatzeko bonuak zozketatuko ditugu".

Urtarrilaren 1ean, Arrolara igoera egingo da eta urtarrilaren 2an kabaret ikuskizuna eskainiko du Andoni Mutiloak. "Zine emanaldiren bat eta bertso saioa ere antolatzen dihardugu. Bertsolariak eta filma zehazteke daude, ordea".

## COVID-19aren kalteak arintzeko laguntzak eskatu daitezke

Antzuolako ostalari eta merkatariei 15.000 euroko laguntza bideratu die Diputazioak. Eskabideak aurkezteko azken eguna abenduaren 30a da. Fakturak 2021ko maiatzaren 31 baino lehenago aurkeztu beharko dituzte. Diruz lagunduko dira lokalean segurtasun eta osasun-protokoloak betetzeko egindako inbertsio eta ekipamenduak bakarrik. Ez da dirulaguntza honen xede izango bestelako materialen gastua: eskuetarako gelak, eskularruak, desinfekzio-produktuak eta maskarak. Zalantzak argitzeko, Valen Moñux teknikariarengana jo daiteke: 630 45 33 65 zenbakira deituta edo *valen@antzuola.eus* helbidera idatzita.

## 'Begirale galduaren bila' ekimena jarri du abian gazte txokoak

Abenduko ekintzen baitan, gazte txokoak *Begirale galduaren bila* jarduera antolatu du. "Ezaguna dugun *Altxorraren bila* jokoaren antzeko ekintza da. Gaztetxoendako, iazko bi begirale gara ezagunak; baina hirugarren begiralea oraindik ez dakite zein den; beraz, topatu egin beharko dute", dio Zumaia Elkoro koordinatzaileak. Hilaren 27an 16:00etan abiatuko da ekintza, plazatik. Aurrez izena eman behar da taldeak osatzeko, honako bide hauek erabiliz: Xinkonan, Instagramen (*@antzuolakogaztetxokua*) nahiz postaz (*idolazgaztetxokoa@gmail.com* eman dezakete gaztetxoek izena, hilaren 11 baino lehen.



ANTZUOLAKO PENTSIODUNAK

## Neurri murriztaileen aurka

Antzuolar ugarik, gazte nahiz nagusi, bat egin dute, beste behin, pentsio duinen alde deituta zegoen elkarretaratzean, joan den zapatuan. "Neurri murriztaileen aurka eta bizitza duinaren alde 70 bat lagun batu gara Herriko Plazan; eta balorazio ona egiten dugu", azpimarratu dute Antzuolako Duintasuna taldeko ordezkariek.

MUJIKA
HARATEGIA
Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

# BERTAN EROSI

## DEBAGOIENEKO 'ZERO KILOMETROKO' ESTABLEZIMENDUETAN




XABIER URZELAI



Arrasateko udaletxea, argiak piztu zituzten unean, joan den egubakoitzean. JOKIN BEREZIARTUA

# Tokiko erosketak sekula baino beharrezkoagoak izango dira aurten

Pandemiak gehien kolpatu dituenen artean daude ostalari eta dendariak; eta aurten laguntza handikoak izango zaizkie herritarren erosketak. Dendari elkarteek zozketa eta lehiaketak jarri dituzte martxan, eta udalak ere ahalegin berezia egiten ari dira

**Maialen Santos** ARRASATE

Gabonak ate-joka daude dagoeneko, eta horiekin batera gerturatzen ari da herrietako komertzio txiki eta ostalaritza-establezimenduentzako –tartean, dendak eta tabernak– urteko sasoirik onena izaten dena.

Koronabirusaren pandemiak baldintzatutako ezohiko Gabonak izango dira aurtengoak, eta ospakizunak ere ezingo dira ohi moduan egin. Hala eta guztiz ere, desberdin izan arren, egun berezietako ospakizunak mantenduko dituzte askok, eta, hori horrela, otorduak egiteko jateko eta edatekoak zein opariak erosten hasiak dira debagoiendarrak.

### Bultzada beharra

Dendari eta merkatariek eta, oro har, herritarrek aitortu dute urte zaila bizi dutela, eta "garai zailak" bizitzen ari direla oraindik ere. Hori aintzat hartuta, aurten tokian erostea inoiz baino garrantzitsuagoa dela sinetsita daude asko eta asko, eta horretan lagunduko dute urtero sasoi honetan diren Gabonetako azokek.

Nerea Etxeandia Aretxabaletako Aretxarte dendarien elkarteko kideak azaldu du oraindik geratzen dela jendeak herrian erosteko "kontzientzia" har dezan: "Uste dut Aretxabaletan denetik dagoela; gehiena bai, behintzat. Eta hori horrela mantendu gura badugu, saiatu egin beharko dugu". Hori ez ezik, uste du herrian erosteak ez duela esfortzu handirik eskatzen: "Merkatariekin enpatizatzeko eskatzen diet herritarrei". Are gehiago, azaldu du tokian erosketak eginda herriak "bizia" irabazten duela: "Tabernak itxita egon diren honetan herriak bizia galdu du, nolabait, baina jendea erosketetan aritzeak berpiztu egiten du hori".

Bergarako Bedelkar elkarteko kidea eta dendaria da Maitane Azkarate, eta berak uste du "beti" dela garrantzitsua tokian erostea, "tokiko komertzioa guztiz galdu ez dadin". Bere hitzetan, aurtengo egoera zaila ikusita jendea hasia da herrian gehiago erosten: "Izan daiteke ezin garelako herritik irten, edo jendeak, beste barik, kontzientzia hartu duelako. Igartzen dugu bultzada". Badira urte batzuk online erosketak indarra hartzen hasi zirela, eta horiek "kaltegarri" dira herriko merkatarientzat. "Internet hor dago duela urte batzuetatik, eta geroz eta errazagoa da bertatik erosketak egitea. Online erosketa-denda handietako banatzaileak ikusten ditut gelditu barik", zehaztu du Etxeandiak. Eta aitortu du herriko norbait "bidean" geratzearen beldur dela: "Komertzioak pixkanaka ari dira aurrera egiten, baina tabernak ikusiko da nola ari diren zabaltzen dituztenean".

Bestetik, Aldundiak eguazten honetan jarri du martxan Etxekoak kanpaina, "produktu lokalen kontsumoa bultzatzea helburu". Gipuzkoako lau baserritar dira kanpainako protagonistak, eta eskatu dute aurtengo Gabonetan mahaiko produktuak "bertakoak" izan daitezela: "Era horretan, Gipuzkoako lehen sektorekoen lanari bultzada ematen eta ekoizpen jasangarriaren alde egiten ariko zarete".

### Bonuen kanpainak, aktibo

Bailarako herri ia guztietan jarri dituzte martxan erosketa-bonuen kanpainak. Herri batzuetan konfinamendu garaian komertzioak laguntzeko helburuarekin jarri zituzten, eta, arrakasta ikusita, bigarren edota hirugarren kanpaina bat ere abiatu dute, bonu gehiagorekin.

Unai Kortabarria Oñatiko Udaleko Sozioekonomia teknikariak adierazi duenez, itxita egon diren establezimenduei diru-sarrera batzuk izateko "aukera eskaintzea" da erosketa bonuek betetzen duten funtzio nagusia. Hori bakarrik ez: herritarrek ere badute abantailez gozatzeko aukera; bonu horiek diruz laguntzen baitituzte udalek, erosleentzat merkatuz. Arrasateko Udalak adierazi du "esfortzu berezia" egiten ari direla sektore zaurgarrienak laguntzeko, "dendari eta ostalariak izan direlako pandemiaren eraginaren ondorioz kaltetuenetako aktibitateak". Hori horrela, kanpoan erosteko ohiturari "buelta bat" eman diotela adierazi dute, eta herrian erosteko ohitura errekuperatzen lagundu. Erosketa bonuek izandako harrera oso ona izan da: "Dendari askok zoriondu dute ekintza eta herritarrek eskertu egin dute ekimena".

Ildo horretatik, Eusko Jaurlaritzak Bono Denda izeneko kanpaina ere jarri zuen martxan. Hala, hamar euroko deskontua zuten 966.250 bonu jarri zituzten eskuragarri; 500.000 merkataritzara zuzenduta eta 466.250 turismo eta ostalaritzara bideratuta. 3.000 denda inguru atxikitu ziren kanpaina horretara EAEn; horietatik %39 Gipuzkoan.

### Zozketa ugari

Maitane Azkaratek azaldu du Bedelkartik urtero "aktibatzen" dela Gabonei begirako kanpaina bat: "Iaz, tren bat aritu zen herrian bueltaka, eta horretan ibiltzeko txartelak banatu zituzten dendetan. Aurten, horrelakorik ezin dugu egin". Horren ordez, zozketa bat jarri dute martxan. Bedelkar txartelarekin izango da parte hartzeko aukera, abenduaren 4tik 30era. Pazko-loreak, turroi-sortak eta ile-apaindegi zerbitzuak zozketatuko dituzte. Horretaz gain, 200 euroko hiru sari ere zozketatuko dituzte. Herriko komertzioren batean egiten den erosketa bakoitzeko parte-hartze bat izango da, eta urtarrilaren 9an egingo dute zozketa.

Aretxarteren kasuan, bestetik, komertzio eta ostalaritza-establezimenduetan egindako erosketa edo kontsumizio bakoitzeko zigilu bat banatuko dute, eta halako sei lortzean zozketa batean har daiteke parte. Hori gutxi balitz, urtero legez, datorren urteko egutegia jarriko dute aretxabaletarren esku, Nerea Etxeandiak azaldu duenez: "Urtero agertzen dira Aretxarteko

**"JENDEA EROSKETAK EGITEN ARITZEAK BERPIZTU EGITEN DU HERRIKO BIZIA"**

NEREA ETXEANDIA, ARETXARTE

**"JENDEA HASIA DA KONTZIENTZIA HARTZEN ETA HERRIAN EROSTEN"**

MAITANE AZKARATE, BEDELKAR

**"ITXITA EGON DIREN KOMERTZIOEI AUKERA BAT EMAN DIETE EROSKETA BONUEK"**

UNAI KORTABARRIA, OÑATIKO UDALA

**"ESFORTZU BEREZIA EGITEN ARI GARA ZAURGARRIENAK LAGUNTZEKO"**

ANUSKA EZKURRA, ARRASATEKO UDALA

kideak horretan, baina aurten ezin izan dugu era horretan egin, eta paisaiak izango dira nagusi". Azpimarratu du egutegia urte amaiera aurretik oparituko dutela dendetan. "Zenbaki handiak izaten ditu, eta herriko jai guztiak markatuta ere bai", dio.

Arrasateko Ibai-arte elkarteko Jon Apraizek azaldu du Gabonetako otarreen zozketa martxan dutela, eta hainbat modu daudela horien zozketan parte hartu ahal izateko: erosketak eginda, elkarteko webgunearen bitartez zein sare sozialetatik. Abenduaren 19an egingo dute zozketa. Horretaz gain, Udalak Biteri plazan jarri duen Gabonetako karpa baliatuko dute ekitaldi eta ikuskizunak aurrera eramateko.

Oñatiko Txanda elkartean ere hainbat ekimen dituzte martxan, Mari Paz Mancerasek azaldu duenez. Elkarteko komertzio batean erostean sariak irabazteko aukera ahalbidetu dute; izan ere, abenduaren 28an, merkatari bakoitzak zozketa bidez bezero bat hautatuko du, horrek globo bat ziztatu eta barruko saria irabazi dezan. Erosketa bakoitzeko zigilu bat ere ari dira ematen, eta hamar elkartzean termo bat ematen dute opari.

**Argiteria eta musika ere bai**

Gabon kantak eta argiak ez dira faltako aurten ere, eta Debagoieneko herri ia guztietan piztuko dituzte horiek. Aretxabaletan azaroaren 27az geroztik daude piztuta, eta, bereziki, Herriko Plaza eta Mitarte eta Durana kaleak argiztatu dituzte. Eskoriatzako herrigunean zein elizateetan joan den egubakoitz iluntzean piztu zituzten argiak, bestetik. Arrasaten ere egun bera aukeratu zuten, Udalak argi baitzuen aurten "bereziki" argiak jarri behar zirela: "Helburua da Gabon argiekin kaleak biziaraztea; are gehiago, pandemiak eragindako une zail hauetan. Eta herriko saltokietan erosketak sustatzea".

Bergaran, ostera, astelehenean piztu dituzte argiak, eta ohi baino egun gehiagoz mantenduko dituzte hala; zehazki, urtarrilaren 21era arte. Oñatiarrek, bestetik, abenduaren 17ra itxaron beharko dute herrian zehar argiak piztuta ikusi ahal izateko. Antzuolan, asteburu honetan jarriko dituzte argiak udaletxeko balkoian eta Herriko Plazako haritzean. Elgetaren kasuan, azken urteetan moduan, udaletxeko balkoiko barandan argi batzuk jarriko dituzte, abenduaren 22tik aurrera. Leintz Gatzagan, udaletxean eta inguruetan jarriko dituzte argiak, iazko berak. Aramaion, azkenik, ez dute argirik jarriko.

## Inbertsioa argiterian eta bonuetan

| | Argiak | Bonuak |
|---|---|---|
| ARRASATE | 38.671 € | 150.460 € |
| BERGARA | 16.000 € | 120.000 € |
| OÑATI | 14.430 € | 110.000 € |
| ARETXABALETA | 8.000 € | 10.000 € |
| ESKORIATZA | 1.880 € | 15.000 € |
| ANTZUOLA | 0 € | 0 € |
| ARAMAIO | 0 € | 0 € |
| ELGETA | 0 € | 0 € |
| LEINTZ GATZAGA | 0 € | 0 € |
| **GUZTIRA** | **78.981€** | **405.460 €** |

OHARRA: BONUETAKO INBERTSIOA AZKEN KANPAINAKOA DA ITURRIA: HERRIETAKO UDALAK

**Erakusleiho lehiaketak martxan**

Argiteriarekin bat, erakusleihoak ere apainduko dituzte zenbait dendari debagoiendarrek. Hain zuzen, udalek eta dendarien elkarteek elkarlanean jarri dituzte martxan urteroko Gabonetan toki berezia izaten duten erakusleiho lehiaketak. Bergaran, astelehen honetarako atondu behar ziren erakusleihoak, eta lehiaketan parte-hartzeko bihar arteko epea dute merkatariek. Arrasaten ere martxan da lehiaketa. Herritarrek botoa emateko aukera dute dagoeneko, abenduaren 18ra arte. Aurtengo berrikuntzak laugarren sari bat eta haur eta gazteen saria izango dira.

Oñatin ere ari dira erakusleihoak apaintzen lanean, eta herritarrek telematikoki eman beharko dute botoa, udal webgunean. Epaimahaiak hiru sari banatuko ditu, eta abenduaren 18an izango da hori.

**Aretxabaletako spota, grabatuta**

Azaroaren 29an grabatu zuten Aretxabaletako aurtengo Gabonetako spota: *Bizipoza ez dusku inork eruengo!* AZ Visual Mediako kideak eta Aretxarteko Merkatari Elkartekoak herritarren laguntzarekin batera aritu ziren. Durana kalea plato bihurtu zuten grabaketak egiteko. Beste urte batzuetan moduan, Kepa Errasti aktore aretxabaletarra izan zen iragarkiko protagonista merkatariekin batera.

# 'Goiena 0km gida', berrituta

2021era begira *Goiena 0km gida* berritua prestatu dute Goienan; Debagoieneko negozio eta komertzioekin harremanak estutu eta horiei bultzada ematea da helburu nagusia.

Mireia Larrañaga Goienako zuzendari komertzialak azaldu du *0 kilometro*-ko gida izango dela, Goiena ere tokiko hedabidea den heinean bailarako komertzioekin "bat" egin gura izan dutelako eta, hori gutxi balitz, filosofia bera dutelako: "Tokiko hedabideek eta komertzioek elkar elikatzen dugu, eta elkarren beharra dugu aurrera egiteko".

**'Minisite'-a, "erakusleiho"**

Berritasun gisara, datorren urteko gida lau euskarritan jasota egongo da, eta guztietatik iritsi ahal izango da prestatzen ari diren *minisite* plataformara. "Plataforma horrek erakusleiho gisako lana egingo du; izan ere, horren bitartez komertzio bakoitzak eskaintzen dituen produktuak ikusi ahal izango ditu bertara sartzen denak", zehaztu du. Horrez gain, gustuko produktuen erreserbak ere egin ahal izango dira, eta dendariekin harremanetan jartzeko modua ere eskainiko du. Gainera, bezeroek produktuen balorazioak emateko aukera ere izango dute.

Larrañagak argitu gura izan du, plataformak berak salmenta-aukera duen arren, komertzioekin kontrastatu dela gaia eta lehentasun handiagoa eman zaiola agerikotasunari eta ez on-line salmentari. "Uste dugu asmatu dela, gainera. Tokikoen balio diferentziala fideltasuna da on line salmenta baino. Sare sozialen gisako tresna izango da minisite-a; hau da, bezeroei produktuak erakusteko aukera eskainiko die merkatariei", argitu du. Dagoeneko on-line salmenta egiten dutenek, hala ere, jarraitu ahal izango dute saltzen 0km gidatik bertatik lotura izango dute-eta.

**Gida, lau euskarritan**

QR kodeen presentzia "nabarmena" izango da gida berrituan. Batetik, urtero etxe guztietara banatzen den papereko gida onlinearekin lotzeko balioko du horrek. Izan ere, aldizkarian QRak jarriko dituzte eta horrek *minisite*-ra bideratuko du jendea. Bestetik, Debagoieneko komertzio bakoitzari erakusleihoan itsasteko QR kode bat emango dio Goienak. Bezeroak kode hori eskaneatu, eta plataformara bideratuko dituzte hala. Hori bakarrik ez: Goienaren aplikazioan ere eskuragarri egongo da gida komertziala, eta hortik ere sartu ahal izango da *minisite*-ra. "Eta aplikazioak emango du aukera dendariari telefonoz zuzenean deitzeko", zehaztu du zuzendari komertzialak. Azkenik, *Goiena.eus/gida* webgunean sartuta ere kontsultatu ahal izango da plataforma.



Logo berritua eta plataforma. GOIENA

**Abantaila ugari**

2021eko gida berritasunekin ez ezik "abantaila ugarirekin" datorrela zehaztu du Larrañagak; izan ere, Goienako hedabide guztietan egongo da gida presente urte osoan: "Horrek balioko du zabalkundea emateko, eta hori ezinbestekoa zaie merkatariei". Hala, aldiko, bezero ezberdinak joango dira nabarmentzen.

**Urtarriletik aurrera**

Urtarriletik aurrera egongo da erabilgarri *Goiena 0km gida.* Eta aurreratu du hasierako egunetan bezeroei laguntza emango dietela euren produktuak igotzen joateko. Hortik aurrera, dendariak eurak joan ahalko dira produktuak *minisite*-ra gehitzen edo bertatik kentzen.

# Ezohiko Gabon hauetan ere, bertakoa jan eta edan



## "Arrain-zopa eta bakailaoa dira gure espezialitateak"

**SONIA MORALES** GERTU JANARI PRESTATUAK **ARETXABALETA**

"Arrain-zopa eta bakailaoa dira gure espezialitateak", dio Gertuko Sonia Moralesek. Gabonei begira beste hainbat jaki ere oso salduak dira Gertun: "Kroketak, piper beteak, txipiroiak, legatza saltsan, bildots errea...". Eta aurtengo nobedadea txanpiñoiekin egindako pastela izango da. Aurtengo Gabonak nola joango diren ez daki, baina herritarrok ospakizunetarako beharra dugula dio. Bestalde, pandemiak udaberrian egin zien kalte gehien: "Kalte handia egin zigun lehen itxialdian, baina ordutik aurrera ondo ari gara lanean".



## "Gozotasunez eta mimoz prestatzea da gakoa"

**MIREN ELORRIAGA** ITSAS EDER ARRANDEGIA **BERGARA**

Gabonei begira, "bisigua, legatza, kokotxak, almejak, mariskoa... Urtean zehar hainbeste saltzen ez diren kapritxoak, gauza bereziagoak" dituzte Bergarako Itsas Eder arrandegian. "Produktu onena, freskoena, prezio onenean saltzen saiatzen gara, eta gozotasunez egiten dugu, mimoz prestatuta", azaldu du Miren Elorriagak.

Arrandegian 40 urteko esperientzia du: "18 urterekin hasi nintzen, eta jendeak saltzailearekin duen kontaktua baloratzen du. Gertukoak garelako gustuko du jendeak Itsas Eder".




## "Foie gras osoa eta txistorra dira Gabonetako izarrak"

**IKER ZUBIA** ZUBIA PATEAK **ESKORIATZA**

Salmentei dagokienez, urteko sasoirik garrantzitsuena da Zubia Pateak-endako Gabon garaia: "Gabonetarako produktu izarra foie gras osoa da, 200 gramoko *micuit*-a, eta santamasetarako, txistorra. 2015ean Donostian Euskadiko txistor onenaren saria irabazi genuen, eta aurten berriro aurkeztuko gara. Aitak duela 50 urte sorturiko errezeta bera erabiltzen dugu gaur egun".

Bestalde, herritarrak "herriko dendetan eta bertako produktuak erostera animatzen" ditu: "Azkenean, aberastasuna herrian geratzen delako".




## "Bezeroei egokitutako zerbitzua eskaintzen dugu"

**JOSE LUIS ARRAZOLA** SORALUZE HOTELA **OÑATI**

Hotela zabalik dute eta gainerako zerbitzu guztiak ere prest erabiltzeko, baimena jaso ahalaz bat herritarrei zabaltzeko. "Bezeroei egokitutako zerbitzua eskaintzen dugu. Jateko, adibidez, bertako karta dugu, baina, aurrez enkargatuta, bezeroen gustuko menuak ere prestatzen ditugu, izan bildots-jana edo marisko-jana, adibidez. Tabernan gune bat egokitu dugu nork bere bazkaria ekarri, berotu eta eroso bazkaldu dezan. Auto elektrikoak kargatzeko gunea ere badugu, behar duenak erabiltzeko".

Egun berezi hauetarako elikagai eta edari onenak gertu dituzte Debagoieneko saltzaileek, pandemiak ez du-eta kalitatean eragiten

**Testua:** Jokin Bereziartua, Josu Bilbao eta Oihana Elorza **Argazkiak:** Josu Bilbao, Oihana Elorza eta Imanol Soriano



## "Turroia probatzen dutenek errepikatu egin ohi dute"

**KOLDO LASA** LASA JATETXEA **BERGARA**

Koldo Lasaren artisau-turroiek ez dute hutsik egingo aurten ere. Bost turroi mota izango ditu salgai: "Probatzen dutenek errepikatu egin ohi dute. Bost mota horietatik bat garestiagoa da, pistatxoa daukalako, eta guztiek dute almendra asko". Lantokien saskietarako eta beste ohiko eskaerez harago, kontua "oso geldi" dagoela dio, oso kezkatuta: "2020a ahazteko urtea izango da, desastre totala. Gabonen aurretik irekita ere galerak izango ditugu, ziur". Turroiak jatetxean bertan edo *www.restaurantelasa.es* webgunean eskatu daitezke.



## "Aurten ere, txuleta, solomilloa eta arkumea nagusi"

**PELI MUJIKA** MUJIKA HARATEGIA **ANTZUOLA**

Gabonak erabat ezohikoak izango badira ere, Antzuolako Mujika harategiko eskaintzan aldaketarik ez dute izango apenas. Horixe dio, behintzat, Peli Mujika arduradunak: "Urtero moduan, txuleta, solomilloa eta arkumea izango dira gure produktu salduenak; hobeto ondo funtzionatzen duena bere horretan uzten badugu". Mujikak dio pandemiaren ondorioz urte oso zaila izan dutela: "Koronabirusak min handia egin digu, baina, beste sektore guztiak bezala, aurrera egin behar... Ea 2021ean ohiko Gabonak ospa ditzakegun...".



## "Mota guztietako edarietan espezialistak gara"

**JOKIN ZUBELDIA** TXOMIN ZUBELDIA EDARIAK **BERGARA**

"Espezialistak gara edari mota guztietako edarietan: garagardoa, ardoa, freskagarriak, kafea, likoreak...", azaldu du Jokin Zubeldiak.

Gainera, ostalaritza sufritzen ari den egoera ere aipatu du: "Beste urte batzuetan topera ibiliko ginen, ostalaritzarendako garai indartsua delako. Aurten, zalantzaz beteriko unea bizitzen ari gara. Ostalaritza txikitzen ari dira. Hala ere, tabernetara itzulera potentea izango da. Izan ere, aurten, bereziki, nabaritu dugu herritarren babesa. Negozio txikien alde egin dute".



## "Ore amarekin, mimoarekin, egiten ditugu ogiak"

**ANTONIO HERRUZO** BEROA OKINDEGIA **ARETXABALETA**

Aretxabaletan ez ezik, Arrasaten eta Eskoriatzan ere saltzen ditu ore amarekin egindako ogiak Antonio Herruzok: "Lau urte daramatzat ore ama bakarrik erabiltzen, eta jendeak erantzun bikaina eman du, badakielako ogiak mimoarekin eginda daudela, prozesua luzeagoa baina osasuntsuagoa duelako horrela".

Gabonei begira, errege-opilak dira produktu izarra, eta aurten ere aurretik eskatzeko dei egin die herritarrei: "Guk egunean bertan egiten ditugu; beraz, fresko-freskoak dira."

# Bailaran erosteko gonbita, berandu izan baino lehen



## "Gustuko oparia izaten da azalerako tratamendu bat"

**MAITE AGIRRE** AMAGARA ESTETIKA ZENTROA **ARRASATE**

Aurpegiko zein gorputzeko azaleko tratamendu berezien eskaintzak prestatu dituzte Amagara estetika zentroan Gabonei begira. "Askok jasotzen duten oparia izaten da horrelako tratamendu bat, eta gustuko oparia izaten da, gainera. Batzuek dagoeneko erosi dute, gertuko bati oparitzeko. Orain, aurpegiko azalak, adibidez, mimo berezia behar du, maskararen erabileragatik. Eta begiak nabarmentzea ere garrantzitsua da oso; ikusten zaigun aurpegiko zati bakarra da, eta, hain zuzen ere, nabarmendu egin behar da hori".



## "Ohikoak adina ari gara saltzen elektrikoak ere"

**MIKEL LIZARRALDE** LIZARRALDE KIROLAK **ARRASATE**

Bizikleten salmenta ona izan dute aurten Lizarralde Kirolak dendan. "Heldu ahalaz" bat saldu dituzte bizikletak: "Betikoak zein elektrikoak; horien bila ere jende asko etorri da gurera". Eskaera handia izan dute, eta, batzuetan, produktuen falta ere bai dendan: "Gu bezalaxe egon dira beste batzuk ere, ezin bizikletak lortu, marka da gero!". Bizikleta elektrikoak, aldiz, errazago lortu dituzte. "Kaskoak, maillotak eta bestelako osagarriak baditugu, eta umeendako bizikletak ere ari zaizkigu heltzen".



## "Baserritarren jantzietan %25eko deskontua dugu"

**MARI JOSE CARMONA** JOSLE **ARRASATE**

Baserritarren jantziek lan handia eman diote Josleko Mari Jose Carmonari azken urteetan: "Iaz, asko saldu genuen. Aurten, santamasak ospatuko ez badira ere, abenduaren 12ra arte %25eko deskontua izango dute jantzi horiek, Joslek 25 urte bete dituela ospatzeko; eta egongo dira beste opari batzuk...". Gabon hauetarako pijametan du arreta jarrita: "Etxean denbora gehiago egin behar dugunez, etxeko arropa berrituko dute askok". Bestalde, pandemiak herrian gehiago erostera eraman gaituela dio: "Jendea ohartu da bertakoaren garrantziaz".



## "Hotzari aurre egiteko berokien aukera zabala dugu"

**JORGE MARKIEGI** MARKIEGI ARROPA DENDA **ARRASATE**

Neguko denboraldian izarrak izaten diren arropak dituzte Arrasateko Markiegi dendan. "Hotzari eta euriari aurre egiteko arropa eta beroki sorta ederra dugu orain. Artilezko jertseak ere baditugu, eta, prakei dagokienez, ohikoak baino apur bat lodiagoak direnak, freskoari hobeto eusteko", azaldu du Jorge Markiegik.

Aurten egoera berezia izanik, herritarren erantzuna espero du: "Zalantzazkoak diren garai hauetan, Gabonen bueltan jendea erosketak egitera animatzea espero dut".

Garai latz hauetan bertan erostearen garrantzia azpimarratu dute Debagoieneko merkatariek; eskaintza faltagatik, behintzat, ez da izango

**Testua:** Jokin Bereziartua, Josu Bilbao eta Oihana Elortza **Argazkiak:** Jokin Bereziartua, Josu Bilbao, Oihana Elortza eta Imanol Soriano



## "Eskaintza bereziak ditugu zerbitzu eta produktuetan"

**MARI CARMEN PARDO** LIRAIN ESTETIKA ZENTROA **ARRASATE**

Gabonetarako eskaintza bereziak dituzte Arrasateko Lirain estetika zentroan. Horietan berezienetako bat da aurtengo nobedadea: Lirain masaje berezia. "Ezohiko urtea izan da guztiondako, asko gaizki ari dira pasatzen, eta ilusio bereziarekin ari gara lanean aurtengo Gabonei begira. Besarkadak eta musuak falta izan ditugu. Jendeak erlaxatu beharra dauka, mimatua sentitzeko beharra du, eta horregatik prestatu ditugu hainbat eskaintza aurten, bai zerbitzuetan bai produktuetan ere. Asmatuko duten oparia dute hemen".



## "Emakumeendako gazte modako arropak ditugu"

**INMA ETA MARTA RUIZ OYAGA** KAPIKUA DENDA **ARRASATE**

Emakumeendako arropak eta osagarriak dituzte Arrasateko Kapikua dendan. "Gazte modako arropak dira, eta neurri handiak ere baditugu, denendako modukoak. Gainera, poltsak, diru-zorroak, gerrikoak eta beste osagarri asko ere baditugu", diote Ruiz Oyaga ahizpek. Bezeroekin egotea dute gustuko eta saiatzen dira eurengandik gertu egoteko bideak erabiltzen. "Sare sozialak erabiltzen ditugu, esaterako, bideoak egin eta bezeroekin partekatzeko. Hemen gaudela esan gura diegu, nahi dutenean etortzeko".



## "Etxeko zapatilek eta aterkiek ez dute hutsik egiten"

**ANE ZUMELAGA** SILLERO OINETAKO DENDA **OÑATI**

Etxeko zapatila asko saltzen dituzte Sillero oinetako dendan Gabonetan opari egiteko. "Aurten, gainera, urtean zehar ere asko saldu ditugu. Baita paseoan ibiltzeko moduko kirol oinetako erosoak ere. Aldiz, janzteko zapatak ez dira aurreko urteetan beste saldu. Egoera honek ohiturak aldatu ditu. Dagoeneko saldu ditugu etxeko zapatilak aurtengo Gabonetarako ere, baita aterkiak ere. Beharrezkoak izaten dira horiek ere; galdu ere egiten ditugu, eta ezberdinak oparitzeko aukera egoten da. Bi produktu hauek ez dute hutsik egiten".



## "Katalogo berriko produktuekin beteta dugu denda"

**NAIARA BEISTEGI** ELKAR DENDA **BERGARA**

Gabonetako katalogo berria kaleratu du Elkarrek, eta Bergaran eskaintza zabala dute: "Mota askotako liburuak, euskal musikarien diskoak, papertegiko gauzak, jostailuak... Denetarik dugu; bestela, eskatu egin daiteke eta biltegitik ekartzeko aukera eskaintzen dugu".

Pilaketak saihesteko jendeari aurretik erosketak egiteko gomendatzen ari dira. Gainera, herritarrak izaten ari diren erantzun ona azpimarratu du Beistegik: "Jendeari produktua bertan ikustea gustatzen zaio, eskuan hartzea, eta hori Internet bidez ezin daiteke egin".

*Aurten, inoiz baino gehiago,*
*laztanak behar ditugu, mimatuak sentitu.*
*Horregatik, sentsazioen bilduma prestatu dugu.*
*Gureak axola zaizkigulako.*

*Laztanak oparitu*

*Gabon jai zoriontsuak!*

LIRAIN
ARRASATE | ESTETIKA

Bixente Ferrer, 1 ARRASATE
Tel.: 943 79 52 17

Ez da osasun zentroa. RPS: 124/20



BDR aurpegi tratamendua 120 €
Edertasun adimenduna

Lirain Ongizate masajea 90 €
Gorputzeko masaje erlaxagarri berezia

Aurpegikoa irrati-frekuentziaz 75 €
Hidratatu eta hobetu zimurrak

Oxiliance aurpegikoa 65 €
Eman azalari distira eta bizitasuna

Gorputz peelinga: C bitamina 60 €
Esfoliazioa eta gorputzeko masajea

Jong Bao masaje erlaxagarria 55 €
5 sentimenez gozatuz

# Ignacio Zuloagaren egonaldiak Elgetan

Aurten betetzen dira 150 urte Ignacio Zuloaga margolaria jaio zela. Eibartarra sortzez, Parisen eman zituen bere ibilbide artistikoaren urte oparoenak eta nazioartean ezagun egin zen. Elgetan ere izan zen, Pablo Uranga lagun minaren ondoan



Ignacio Zuloagaren autorretratua. I.Z.



*Mercedes andre nanoa.* I.Z.

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Ignacio Zuloaga Zabaleta (1870-1945) mundu osoan egin zen ezagun eta nazioarteko erakusketa asko egin zituen. Zumaian eraiki zuen, gerora, bizilekua, eta bertan dago gaur egun Zuloaga etxe-museoa. Elgeta, ordea, ez zitzaion batere arrotz. Familiarekin batera etortzen zen uda pasatzera, ekainetik irailera. Ezkondu berritan ere bertan hartu zuen bizileku denboraldi batez. Adituek uste dute urtebete inguru emango zuela bertan. Zergatik Elgeta? Eibartik gertu dagoelako eta bertan bizi zelako Pablo Uranga margolaria. *Elgetako bohemioa* ezizenez ere ezaguna, Parisen ezagutu zuten elkar bi margolariek. Lagun minak izan ziren.



Urangari egindako omenaldia, San Roke kaleko iturrian. KUTXA FOTOTEKA

### Nazioarteko ibilbide artistikoa

Egoera ekonomiko oneko familian sortu zen Zuloaga, 1870eko uztailaren 26an. Hain zuzen ere, Kontaderekua etxekoa zen. Laster asko azaldu zuen pinturarekiko grina, eta 16 bat urterekin margotu zuen lehen obra: *Arrateko itsua* margolana. Urteurrena dela-eta ekarri dute lehenengo aldiz Eibarrera, eta, aurrez hitzordua eskatuta, ikusgai dago Eibarko San Andres elizan. Madrilen, Erroman eta, batez ere, Parisen (1892-1895) egin zituen pintura ikasketak, eta Frantziako hiriburuan ezagutu zituen hainbat artista. Francisco Durrio eskulturgileak babespean hartu zuen, eta Montmartreko haren estudioan ezagutu zuen Pablo Uranga.

### Elgetan, urtebete inguru

Urangak haurtzarotik zuen harremana Elgetarekin, eta bertara itzuli zen Paristik. Zuloagak ere urtebete inguru egin zuen herrian. Adituek uste dute 1899 eta 1900. urteen artean izango zela; izan ere, Zuloaga 1899ko maiatzaren 18an ezkondu zen, Valentine Dethomasekin, eta Europan zehar egindako ezteibidaiaren ostean jarri ziren Elgetan bizi izaten. San Roke kaleko Azkaraterenean elkartzen ziren margolariak lanerako.

Hain zuzen ere, adituek diote Zuloagak Elgetan margotu zuela *Mercedes andre nanoa* izeneko margolan ospetsua, gerora Parisko Orsay museoan gorde zutena. Enrique Lafuente ikerlariak gehitzen du Elgetan margotu zituela, baita ere, Sitgesko Cau Ferrat museoan ikusgai dagoen *Ardo banaketa* zein Manzi arte-merkatari paristarrak erositako *Ilunabarra mendi artean* pintura.

Sasoiko margolari gehiago ere elkartu ziren Azkaraterenean. Mauricio Flores Kaperotxipi artista zarauztarra izan zen horietako bat. Uranga eta Zuloaga baino gazteagoa, babespean moduan hartu zuten artista nagusiagoek. Gerora, Ignacio Zuloagari buruzko biografietako bat idatzi zuen Floresek.

1936ko gerra aurreko kontuak dira horiek. Uranga 1934an hil zen eta Kaperotxipi 1933tik 1936ra bizi izan zen Elgetan. Bilbo frankisten esku geratu zenean, Argentinara erbesteratu behar izan zuen zarauztarrak. Erosoago bizi izan zen Espainia frankistan Zuloaga. Erorien Haraneko basilikako kristo gurutziltzatua margolari eibartarrak margotutakoa da, eta Francoren erretratu bat ere egin zuen.

### Omenaldia Urangari 1945ean

Ignacio Zuloaga 1945eko urriaren 17an izan zen Elgetan azken aldiz. 11 urte ziren Pablo Uranga hil zela, eta Francisco Durrio adiskideak 1934an egindako brontzezko medailoia San Roke kaleko iturrian jartzera etorri zen. Zuloagak berak bultzatutako lagun arteko ekitaldia izan zen. Meza, plaka jartzea eta argazkia izan ziren egitarauan. Gaur egun, ikusgai dago oroigarria iturrian, eta publikoa da egun hartako argazkia.

Baliteke Zuloagak heriotza gertu zuela hauteman izana; izan ere, hil baino egun gutxi batzuk lehenago egin zuten omenaldia. Zenduta zegoen, ordurako, Francisco Durrio ere.

Udal agiriek ematen dute ekitaldiaren berri. Bertan irakur daitekeenez, udal ordezkariek ere justu-justu izan zuten ekitaldiaren berri. Hain zuzen ere, ospakizunak egin baino bi egun lehenago. Argazkian agertzen dira, besteak beste, Ignacio Zuloaga bera, Bartolome Elkoro alkatea, Patxi Telleria *Torrezar*, Federico Markiegi aguazila eta abadea.

Esandako moduan, ekitaldia egin eta bi astera, 1945eko urriaren 31n, hil zen Zuloaga, Madrilgo estudioan. 75 urte zituen. Donostiako Polloe hilerrian lurperatu zuten.

## Zaldibar: hamar hilabete

Zaldibar Argitu plataformak deituta, mobilizazioak egin zituzten, domekan, Markina-Xemeinen, Ermuan, Zallan, Etxebarrian, Zaldibarren eta Elgetan. Hilero moduan, *Langileak, osasuna, erantzukizunak* lelopean egin zuten elkarretaratzea Elgetan. "Hamar hilabete, eta oraindik guztia argitzeko. Jarrai dezagun bidea batera egiten", aldarrikatu zuten.




ZALDIBAR ARGITU PLATAFORMA

EUSKARALDIA

## 365 egunez 'ahobizi' eta 'belarriprest' jarrerarekin

**Goiena komunitatea**

Euskaraldia batzordea / ELGETA

215 *ahobizi* eta *belarriprest* izan gara Elgetan, eta euskararekiko gure konpromisoa agertu dugu. Elgetarrok ez gara bakarrik aritu. 179.780 lagunek eman dute izena Euskaraldian. Horietatik %77 *ahobizi* eta %23 *belarriprest* roletan. Txapa kentzeko ordua heldu da, baina ez kendu *ahobizi* eta *belarriprest* jarrera. Hemendik aurrera ere gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan; izan ere, euskaraz bizitzea eguneroko ariketa da.

Bereziki gogoan ditugu itxita edota jarduera etenda egon izanagatik Euskaraldian parte hartu ezin izan duten Elgetako ariguneak. Zorretan gaude haiekin, Euskaraldi bat zor diegu.

# Gabonetako kontzertua ere isilarazi du birusak

Gabonetako egitarauaren barruan hainbat bergararrentzat kultura hitzordu kutunena izan ohi zen Gabonetako kontzertua ere ez da egingo aurten; Enrike Txurrukak aitortu du egoera latza dela: "Ez gara profesionalak, eta behar ditugu gozatzeko emanaldiak"

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Eguazten iluntzean Iñigo Urkullu lehendakariak berretsi zuenez, orain arte ezagutu ez diren Gabonak biziko dira EAEn. Kaleko ekitaldiei dagokienez, Olentzerok eta Mari Domingik ez diete harrerarik egingo umeei –gutun bana jasoko dute etxean 2011 eta 2019. urteen artean jaiotako umeek– eta errege desfilerik ere ez da izango, besteak beste.



Iazko Gabonetako kontzertua, Enrike Txurrukak lehen aldiz zuzendua. ANGEL EZKURRA

### Ezinezkoa 200 musikari batzea

Bergaran Gabonetako klasiko bat den ekitaldi bat badago, hori Bergarako Musika Bandak, Aritzeta abesbatzak, orkestrak eta orfeoiak urtero eskaini ohi duten Gabonetako kontzertua izaten da. Aurten hori ere ez da egingo eta bandako zuzendari Enrike Txurrukak aitortu du erabakia aspaldi barneratuta zutela: "Egoera epidemiologikoak eta legeak ahalbidetuko balu ere, kasurik onenean, ez liguke denborarik emango kontzertu berezi hori ganoraz prestatzeko. Ezinezkoa da astebetean Gabonetako kontzertu bat prestatzea; gu musikari amateurrak gara, ez gara profesionalak. Pandemia betean, udal pilotalekuko oholtzan 200 musikari eta abeslari elkartzea eta harmailetan 900 ikus-entzule egotea ezinezkoa da".

### Pandemiak eragindako nekea

Gabonetako kontzertua urteko kultura hitzordua kutunetako bat izaten da hainbat bergararrendako eta musikari zein abeslariendako zita oso garrantzitsua izaten da. "Esandako moduan, gu musikari amateurrak gara eta zaletasunagatik elkartu ohi gara urte osoan entseatzeko eta jotzeko. Gabonetako kontzertua gozatzeko eguna izaten da, talde ezberdinak elkarrekin egotekoa eta emanaldiaz ikusleekin batera disfrutatzekoa. Urte osoko lana eta sakrifizioa dago atzetik eta musikariok behar izaten dugu aurretik egindako lanaz gozatu. Pandemiak aurten ez digu gozatzeko aukerarik eman eta nekea igartzen da, hein baten, behintzat, banda barruan".

### Aratusteetako kontzerturik ere ez

2021era begirako kontzertuez galdetuta, Txurrukak aitortu du nahiago duela ezer ez aurreratu, egoera "oso aldakorra" dela ikusita. Aratusteetakoa egingo ez dela barneratuta, hileroko kontzertuetan du arreta jarrita: "Hilez hil ikusiko dugu egoera".

## Umeentzako ekintzak Gabonetan

Pandemiak eraginda, Olentzerok eta Mari Domingik ez diete harrerarik egingo umeei. Horren ordez, 2011 eta 2019 artean jaiotako Bergarako umeek Olentzeroren eta Mari Domingiren gutun bana jasoko dute etxean. Jarraian, umeei begira Udalak Gabonetarako antolatu dituen ekitaldi nagusiak ageri dira:

**Abenduak 13, domeka**
- **16:00** *Los Fixies contra los Crabots* pelikula, Seminarixoan.

**Abenduak 18, egubakoitza**
- **18:00** *Olentzero Kuttuna* ikuskizuna, Seminarixoan.

**Abenduak 20, domeka**
- **16:00** *Trolls 2 gira mundial* pelikula, Seminarixoan.

**Abenduak 26, zapatua**
- **18:00** *Cottondarrak* antzezlana, Seminarixoan.

**Abenduak 26 eta 27, zapatua eta domeka**
- **10:15etik 13:35era eta 16:00etatik 18:45era** Uretako jolas parkea, Agorrosinen. Ikastetxeetako taldeak errespetatu behar dira; informazio gehiago, *www.agorrosin.eus* webgunean.

**Abenduak 27, domeka**
- **16:00** *Dragoiaren gidaria* pelikula, Seminarixoan.

**Abenduak 28 eta 29, astelehena eta martitzena**
- **17:00etatik 20:00etara** *Ez dadila sua itzali* ekimena. Umeei eta familiei zuzendutako pista joko mitologiko bat da. Ekintza doakoa izango den arren, edukiera mugatua du eta izena ematea derrigorrezkoa izango da. Argibide gehiagorako: *gaztejardun@topagunea.com* helbide elektronikoan edo 618 07 02 73 telefono zenbakian. Izena eman behar da *www.jardun.eus* webgunean, abenduaren 23a baino lehen.

**Abenduak 30, eguaztena**
- **12:00** Oñatiko Potx eta Lotx pailazoen ikuskizuna, Seminarixoan.

**Urtarrilak 2, zapatua**
- **18:00** Safari ikuskizuna, Seminarixoan.

**Urtarrilak 2 eta 3, zapatua eta domeka**
- **10:15etik 13:35era eta 16:00etatik 18:45era** Uretako jolas parkea, Agorrosinen. Ikastetxeetako taldeak errespetatu behar dira; informazio gehiago, *www.agorrosin.eus* webgunean.

**Urtarrilak 3, domeka**
- **18:00** Zehazteke dagoen pelikula bat, Seminarixoan.

# 4.000 bonutik gora erosi dituzte bergararrek abenduaren 9ra arte

Herritar gehiago dira bonua dendan bertan erosi dutenak 'Bergara.bonoa.eus' webgunea baliatu dutenak baino

**J.B.** BERGARA

16 urte baino gehiago dituzten Bergaran erroldatutako herritarrak dira diruz lagundutako erosketa-bonuen onuradunak. Abenduaren 9ra arteko zenbaketan, 4.196 bonu erosi dituzte bergararrek; horietatik 3.268 dendan bertan eta 928 online. Eta dirutan, 379.536 euro gastatu dira, oraingoz, bonuen bitartez. Horietatik, dendan 281.453 euro eta online 98.083. Udaberrian egin zen *Bonoak.eus* kanpainarekiko berrikuntzetako bat izan da dendan bertan erosteko aukera; orain arte, modu presentzialak Internet bidezkoak baino arrakasta handiagoa izan du.

### 15.000 euroko topea

Komertzioei bertan gastatzeko ezarri zaien gehienezko dirukopurua 15.000 eurokoa da. "Hala, establezimenduen arteko banaketa orekatzea bilatzen da", dio Udalak. Une honetan hiru dira 15.000 eurotako topea egindа daukatenak: Lazkano oinetakoak, Lonbide oinetakoak eta Xamartin kirol arropa denda. Eta beste bi dira topera iristear daudenak: Urkiola arropa denda eta Zangitu dekorazioa.

### Abenduaren 31ra arte

Nola erabil daitezke bonu horiek? Bi aukera daude: atxikitako establezimenduetan bertan edota Internet bidez, *Bergara.bonoak.eus* aplikazioan. Azken modu hori erabiliz gero, aplikazioan izena eman behar da; erosketa egingo den establezimendua hautatu; bonuaren zenbatekoa aukeratu eta erosi. Bonua erositakoan, PDF formatuko fitxategi bat deskargatu ahal izango da; fitxategi hori eroslearen helbide elektronikora ere bidaliko da, eta aplikazioko erabiltzaile kontuan eskuragarri izango da abenduaren 31ra arte. Bonuen erosketa ordainketa-atari baten bidez egingo da eta eragiten duen kostua bere gain hartuko du Udalak; 120.000 euroko inbertsioa ekarri dio bonuen kanpaina honek Udalari.

# Herri hezitzailea izateko, erabaki ahalmena umeei

Udalak eta Oinherri elkarteak lankidetza-hitzarmena sinatu dute Bergara herri hezitzailea izateko bidean jartzeko, Udal Gobernuak bat egiten duelako umeendako egokia den herri bat herritar guztientzat egokia dela dioen filosofiarekin; Udalak 4.000 euro bideratu ditu

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Azaroaren 30eko osoko bilkuran onartu zen –EH Bilduren aldeko botoekin eta EAJren zein PSE-EEren abstentzioarekin– eta asteon sinatu dute Bergarako Udalaren eta Oinherri herri hezitzaileak sustatzeko elkartearen arteko lankidetza-hitzarmena. Herri hezitzaileen filosofiarekin bat egiten du Udal Gobernuak eta hitzarmen honekin Oinherri elkartetik sustatzen ari diren herri hezitzaileen sarera gehitu da Bergarako Udala: "Bide bat egin nahi dugu elkartearekin elkarlanean, honek dituen helburu, printzipio eta lan ildoak Bergaran garatzeko".

Udalak 4.000 euroko diru-ekarpena egingo du eta, trukean, herri hezitzaile izatearen ikuspegiarekin lanean diharduten sareko beste herriekin esperientziak partekatu eta Oinherrik eskaintzen duen aholkularitza eta bide-laguntza jasoko ditu.


Udaleko eta Oinherri elkarteko ordezkariak, asteon, udaletxeko areto nagusian. B.U.

### Hezkuntza, "denon ardura"

Gorka Artola alkatearen ustez, proiektuaren "indarguneetako bat" da esperientzietan oinarritzen dela eta bertako kide izateak aukera emango diola Udalari balio horietan oinarritutako politikak egiteko. "Baina ez hori bakarrik, Oinherriren lanarekin beste herrietako esperientzietatik ikasteko aukera ere izango dugu", gaineratu du.

Oinherriko ordezkari Maite Azpiazuren arabera, elkartearen helburua honako hau da: "Aldaketak hezkuntza ardura konpartitu bat bezala ulertzen hastean datza. Herria eremu hezitzaile moduan sustatuz eta herritarrei, eragile hezitzaile moduan, balioen hezkuntzan duten protagonismoa aitortuz. Haurrak txikitatik eskubidedun eta betebehardun herritar bezala onartuz eta parte hartzea eguneroko ohitura bihurtuz, eurekin denontzako herri hobea eraikitzeko. Eta horretarako lan tresna nagusia herri hezitzaileen sareko herrietan burutzen ari diren esperientzia eredugarriak ezagutzera ematea, balioan jartzea eta elkartrukatzea izango da".

**FRANCESCO TONUCCI PSIKOLOGIA IKERLARI ITALIARRAREN 'HAURREN HIRIA', EZINBESTEKO LANA**

### Umeak, subjektu aktibo gisa

Gazteria zinegotzi Ekaitz Aranberri sinistuta dago oso proiektu interesgarria dela: "Umeak eta nerabeak subjektu aktibo bezala ikusten ditugu guk ere eta hori txertatu nahi dugu aurrerantzean egingo ditugun politiketan, eta horretarako, lagungarria izango zaizkigu Oinherri elkartearen ezagutza eta lana".

Oinherriren arabera, herritar guztiak berez hezitzaileak dira, eta honako printzipio hauek defendatzen dituzte: jolasa eta sormena ikasteko eta garatzeko tresnatzat dituen haurren kultura aitortzea; hori oinarri hartuta, umeei benetan parte hartzeko eta erabakitzeko ahalmena ematea; eurek eraikitako aisia hezitzailearen eta euskaldunaren bitartez, aniztasunean berdin eta parekide izanez eta ingurumen naturala eta ingurumen kulturala zainduz, komunitate-sarea eta auzolana indartzea; eta pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta asegarriak jostea.

### Tonucciren 'Haurren hiria'

Oinherri ekimena euskararen, hezkuntzaren, kulturaren eta aisialdiaren inguruan lan egiten duten Euskal Herriko hainbat elkartek eta eragilek osatzen dute: "2012tik, teoria eta praktika uztartuz, herrigintzatik, parte hartzea sustatuz, eta balio hezitzaileak hedatzeko helburuarekin, herri hezitzaileen filosofia ereiteko lanean dihardugu", adierazi dute.

Francesco Tonnuci psikologia ikerlari italiarraren *Haurren hiria* izeneko liburua ezinbesteko lana da herri hezitzaileen filosofia ulertzeko; Tonucci bera Arrasaten izan zen 2013ko maiatzean, liburuaren euskarazko bertsioaren aurkezpenean.

---

## NIRE USTEZ



**JOANES PLAZAOLA**

### Arduraz

Arduragabekeria. Hau omen da gure, gazteon, jarrera pandemia garai hauetan. Hala saldu nahi digute, behintzat, hedabideen bidez. Ardura da eskatzen zaiguna. Ardura, obedientzia itsua kasik. Ardura, norberekoikeriaren isla gorena dugun gizarte honetan. Langileon beharrak burgesiaren interesen menpe dauden gizarte honetan. Gazte langileon bizi-proiektuak depresio eta antsietate artean itotzen diren honetan. Kultura arrotz, despolitizatzaile baten ondorio gara gu, gazteria.

Kultura hau, baina, ezin da sistema kapitalistatik at ulertu. Egunero jasotzen dugun eduki horiek ere funtzio jakin bat baitute sistemaren baitan: etorkizuneko langile klase otzan eta infantilizatu bat heztea, soilik norbere arazoez arduratuko dena. Finean, langile klase bat, kolektiboa, konpromisoa eta besteekiko arduraren gisako kontzeptuak arrotz egingo zaizkiona. Guk ere garbi dugu, egoerak erantzukizunez jokatzea eskatzen du, eta, beraz, basakeria kapitalistari aurre egingo dion militantzia arduratsu, konprometitu eta umila garatzen jarraitzea dagokigu. Arduraz eta antolakuntza komunistaren bidetik.

---

## GORA ETA BEHERA






GOIENA

### Miguel Altuna ondoko zikinkeria salatu dute

Miguel Altuna Lanbide Heziketaren egoitza ondoan zikinkeria egon ohi dela salatu du herritar batek: "Zikinkeria ez dago eskola ondoko lurrean bakarrik, inguruko belardian ere badago".

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?** *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

---

### Patxi Larrañagaren liburuaren aurkezpena bihar, Seminarixoan

*Abizenak, leinuak eta oinetxeak* liburuaren hirugarren eta azken zatia aurkeztuko du bihar Patxi Larrañagak. Seminarixoan izango da aurkezpena, 12:00etan, eta edukiera mugatuarekin, pandemiak eraginda. Ikerketaren azken zati honetan, Idarraga eta Zuloeta abizenen arteko oinetxeak aztertu ditu Larrañagak, eta biharko aurkezpenean ondoan izango ditu Bergarako Udal Artxiboko Arantzazu Oregi eta Oñatin dagoen Gipuzkoako Probintzia Artxiboko arduradun Ramon Martin. Aurreko bi liburuen aurkezpenetan goraino bete zen udaletxeko osoko bilkuren aretoa eta aurreikustekoa da biharkoa aurkezpenean ere lepo beteko dela Seminarixoa; Larrañagak azaldu duenez, sarrerarik geratzen den edo ez jakiteko Udaleko Kultura zerbitzura deitu behar dago: 943 77 91 63.



San Antonio auzoan egin ohi den Napar Feria, artxiboko irudi batean. GOIENA

## "Hasiera batean, ez genuen feriarik egin behar"



GOIENA.

**PATXI URIBESALGO**
NAPAR FERIAKO ANTOLATZAILEA

Gabiria San Antonio Gure Ametsa Kultur Elkartea arduratzen da feria antolatzeaz. Aurten, zalantzak izan dituzte egin ala ez egin.

**Hasieratik zeneukaten argi feria egin behar zenutela?**

Hasiera batean, aurten, ez genuen feriarik egin behar. Egoera dela eta, ez zen posible normalean egiten ditugun ekintzak antolatzea; nekeza iruditzen zitzaigun. Saltzaileen dei bat jaso genuen, eta feria egiteko asmoa adierazi ziguten; orduan jarri ginen martxan.

**COVID-19ari aurre egiteko neurriak errespetatuko dituzue, ezta?**

Aurtengo feria ez da betikoa izango, baina, segurtasun neurriak bermatuta, betiko saltzaileak izango dira. Jendeak ohitura dauka ferian Gabonetarako patea, txorizoa edo gazta erosteko. Horiek guztiak bertan egongo dira, saltzeko deseatzen.

# Murritzago bada ere, izango da Napar Feria

Zazpi postu izango dira San Antonio auzoko 22. Napar Ferian. Dena den, COVID-19a dela eta, besteak beste, ohiko patata eta haurren postal lehiaketarik ez da izango. Antolatzaileek azaldu dutenez, osasun neurri guztiak bermatuta egingo da feria

**Karmele Uribesalgo** BERGARA

COVID-19aren pandemia dela eta, hasiera batean Napar Feriaren antolatzaileek ezer egiteko asmorik ez bazuten ere, azkenean, izango da San Antonio auzoan Nafarroako produktuak dastatzeko eta erosteko aukera eskaintzen duen zita. Ohi bezala, Gabonen aurreko zapatuan egingo dute feria; abenduaren 19an, hain zuzen ere. Zazpi postu izango dira, eta, besteak beste, gazta, kontserbak, gozoak, txokolatea eta patea egongo dira erosgai.

Patxi Uribesalgo Napar Feriaren antolatzaileetako bat da, eta, azaldu duenez, pandemia dela-eta beherakada izan da postu kopuruan, normalean hamar inguru izaten baitira. Hala ere, gustura daude antolatzaileak, zenbaki polita iruditzen baitzaie. Gainera, Uribesalgok komentatu du saltzaileen aldetik iritsi zitzaiela aurten ere feria egiteko proposamena Gabiria San Antonio Gure Ametsa Kultur Elkarteko kideei: "Komentatu ziguten beste toki batzuetan ere ari zirela feriak egiten, betiere segurtasun neurriak bermatuta". Hori kontuan izanda, feria egiteko ideia jakinarazi zioten Udalari, eta baiezkoa eman zien hark. "Distantziak mantentzeko lekua izango da", nabarmendu du Uribesalgok.

Hala ere, aurten ez da posible izango beste urte batzuetan antolatutako ekintzak egitea. Elkarte arteko XIII. Sukaldaritza Lehiaketa egin beharko litzateke, baina bertan behera uztea erabaki dute antolatzaileek. Horrez gain, ez da Gabonetako postalen lehiaketarik izango, ezta Alai Taldearen emanaldirik edo poney eta zezentxorik ere. Edozelan ere, Uribesalgok azaldu du saiatuko direla, nolabait, musikarekin edo, giroa alaitzen. "Jende pilaketak saihestu nahi ditugu, eta horretarako neurriak hartuko ditugu", azpimarratu du. Ekintza gehienak bertan behera gelditu behar izan badira ere, San Antonioko ermita zabalik egongo da, eta jaiotza bat jarriko dute ikusgai.

**Urteroko zita**

Bergararrentzat feria garrantzitsua izaten da San Antoniokoa, eta, Uribesalgoren hitzetan, urteen poderioz indarra hartzen joan da. "Denetarik izaten da Napar Ferian, eta familia zein kuadrillak gerturatzen dira". Gauzak horrela, aurtengo edizioa berezia izango den arren, antolatzaileek espero dute herritarrak feriara gerturatzea eta, ahal den neurrian, eskaintzaz disfrutatzea.

**SALTZAILEEN ALDETIK IRITSI ZITZAIEN AURTEN ERE FERIA EGITEKO PROPOSAMENA**

## Hasi dira etxerik etxe banatzen Udalaren 2021eko egutegia

Herritarrek Bergaran ateratako argazkiekin osatuta dago. Bittor Munarrizena da egutegiaren azaleko irudia

**K.U.** BERGARA

Udala eguaztenean, hilaren 9an, hasi zen banatzen 2021eko egutegia. Urtero banatu ohi dituzte herritarrek ateratako argazkiekin osatutako egutegia, eta aurtengo azaleko irudia Bittor Munarrizena da. Aurtengo maiatzean ateratako argazki bat da, hain zuzen ere.

Udalak jakinarazi du "etxe guztietara" bidaliko dutela ale bana, eta herritarrei eskatu diete "banatzaileei ataria zabaltzeko, kanpoan utzi beharrik ez izateko". Egutegiak, ahal denean, buzoietan sartuko dira, eta, hala egin ezin den kasuetan, atarian utziko dituzte, multzoan. Hori dela eta, Udalak bizilagunei eskatu die ale bakarra hartzeko.

Banaketa abendu erdialderako amaitzea espero dute, eta, behin bukatuta, gehiago nahi dutenek udaletxean jaso ahal izango dituzte. "Aurrerago adieraziko da noiztik aurrera jaso ahal izango diren udaletxean", zehaztu du Udalak.

## 'Erraiak' dokumentala emango dute gaur, kartzela zaharrean

Irrintzia ardatz duen *Erraiak* dokumentala emango dute gaur, abenduak 11, 18:30ean, kartzela zaharrean. Emanaldiaz gain, berbaldia ere izango da Ekain Martinez Lizarduikoa zuzendariarekin, eta, besteak beste, ikus-entzunezkoaren inguruko azalpenak emango ditu.

Jardun Euskara Elkarteak antolatu du dokumentalaren emanaldia, Dynamo Zinekluba-rekin batera.

Dokumentala ikusteko sarrerak doan izango badira ere, antolatzaileek emanaldia hasi baino 30 minutu lehenago banatuko dituzte, kartzela zaharreko atean. Guztira, 30 lagunendako lekua egongo da.

33 minutuko dokumentala da *Erraiak*. Ikus-entzunezkoaren egileek Euskal Herriko hainbat txoko bisitatu dituzte, irrintziaren jatorria, zabalkuntza eta egungo egoera ezagutzeko.



Mila Modu taldea aurtengo Durangoko Azokan emanaldia eskaintzen, Maddi Arlanzonekin batera. OIER YANIZ

# Musika, antzerkia eta zinema Gabon agendan

Udalak eta herriko beste kultura eragile batzuek antolatutako emanaldiek osatzen dute Gabonetako kultura agenda. Guztietarako sarrerak aurrez hartu behar dira eta asko gaur, egubakoitza, jarriko dituzte salgai, 11:00etan, ohiko tokietan

**Oihana Elortza** OÑATI

Udalak eta herriko hainbat eragilek antolatutako ekintzek osatzen dute Gabonetarako prestatu duten kultura agenda. Gaur, esaterako, emanaldia egingo dute musika eskolako akordeoi ikasleek. "Mimoz prestatutako kontzertua izango da, ikasleen guraso eta lagunendako", aurreratu du Aitor Madinak. Balsa, tangoa, sarandonga eta rock-and-rolla entzungo dira, adibidez.

**Oñatiko rocka liburuan**

Musika kontzertuez gain, zinema eta antzerki emanaldiak ere badatoz agendan. Baina baita Oñatiko rockaren historia jasotzen duen liburuaren aurkezpena ere: *Alanbre-hotsa eta jazbana*. Los Culpables eta Larru Beltzak taldeen tartean egon direnak aipatzen dira bertan, hainbat kontzerturen aipamenaz gain: "Hor dago, esaterako, 1983an egin zuten punk jaialdia; RIP, Las Vulpess... taldeek parte hartu zuten, eta zeresan handia sortu zuen kontzertuak herrian zein kanpoan. Chiapasen alde 1998an egin zen kontzertua ere aipagarria izan zen...", dio egileak, Iñigo Biain Berraondo musikari eta kazetariak.

Musika bandak ere urteroko Gabon kantuen emanaldiak egingo ditu hilaren 24an eta 31n, plazan, 18:30ean, eta nagusiendako eta umeendako zinema eskaintza ere egongo da urteko azken asteburuan.

**'Go!azen 7.0' eta Zetak**

Bestalde, udaleko Kultura Departamentuak Gabon osterako ekitaldi batzuk ere antolatu ditu; esaterako: *Go!azen 7.0* dator urtarrilaren 10ean eta Zetak urtarrilaren 21ean. Sarrerak aurrerago jarriko dituzte salgai.

## Postontzi berezia egongo da plazan

Abenduaren 24an ez da Olentzeroren etorrerarik antzeztuko, baina bere presentzia bermatuko da; bideo sorta bat grabatzen ari dira eta sare sozialen bidez zabalduko dituzte, herriko haurrei gutunak idazteko gonbidapena eginez. 14tik 24ra, Olentzeroren eta Mari Domingiren eskutitzak jasotzeko postontzi berezia egongo da plazan, gutunak han sartzeko.



Mari Domingi eta Olentzero. GOIENA

## Ekitaldiak

**Abenduak 11**
- Musika eskolako akordeoi ikasleen kontzertua. Santa Ana. 19:00.

**Abenduak 12**
- Willis Drumond taldea. Gaztelekua. Sarrerak, agortuta.

**Abenduak 19**
- Elkartasun azoka Elkar Hezik. Plaza. Goizez.
- *Alanbre-hotsa eta jazbana* liburuaren aurkezpena. Zinema aretoa. 12:00. Doan.
- Hots-en *Lux* kontzertua. Parrokia. 12:00.

**Abenduak 20**
- Oñatiko artisauen azoka. Plazan, goizez.
- *20.000 legua itxaspeko zaborretan* antzezlana. Santa Ana. 17:00. 3,5 euro.

**Abenduak 27**
- Ganbararen *Eternal light* kontzertua. Parrokia. 19:00.

**Abenduak 28**
- Gospel kontzertua. Santa Ana. 19:00. 12 euro.

**Abenduak 30**
- Mila Modu taldea. 6 euro. Gaztelekua. 18:30.

**Urtarrilak 3**
- *Txorimaloen ikuskizuna* Oñatzek. Zubikoa. 17:00 eta 18:30.

**Urtarrilak 4**
- *Jan dezagun, on egin!* ikuskizuna Ganbara Txikik. Santa Ana. 17:30.

**Urtarrilak 5**
- *Erik eta Win* ikuskizuna. Santa Ana. 19:00. 6 euro.

OHARRA: Prezioa duten ekitaldietako sarrerak jarriko dituzte, konkretuki, eskuragarri gaur, abenduak 11, 11:00etan. Udal webgunean eta Txokolateixan eros daitezke, agortu arte.

## Erakusleiho politenaren aldeko botoa, online

Pandemia egoerak behartuta, aldaketa batzuk egin behar izan dituzte aurtengo Gabonetako erakusleiho lehiaketan. Esaterako, herritarrek telematikoki eman beharko dute botoa, udal webgunean sartuta; herritar bakoitzak boto bakarra eman ahal izango du eta bozketan parte hartzen duten herritarren artean 200 euroko saria zozketatuko dute. Abenduaren 17ko 14:00etan itxiko da herritarrek botoa emateko epea. Epaimahaiak hiru sari emango ditu eta aurten, sari banaketa galarik ezean, udal ordezkariak sarituak izan diren komertzioetara joango dira dagokien saria eskura ematera. Hilaren 18an izango da hori, 17:30ean.

Aurten, herriko 21 saltokik eman dute izena lehiaketarako. Oinarriek jasotzen duten moduan, erakusleihoetan dendazerbitzuaren ohiko produktuak jarri beharko dituzte eta, gutxienez, abenduaren 31ra arte mantendu apainduta.

## Nazioartekotutako enpresak eta giza eskubideak aztergai

*Nazioartekotutako enpresak eta giza eskubideak* ikerketa lana egin du Maider Zilbetik, Udalak eta Lege Soziologia Institutuak elkarrekin ateratzen duten Udala Grant bekari esker. Enpresa mota horien eta giza eskubideen arteko lotura aztertu du, datorren urtean etorriko den giza eskubideak betearaziko dituen legearen aurretik prestatzeko.

Nazioartekotuta dauden bederatzi enpresa identifikatu dituzte Oñatin eta horietatik zazpik hartu dute parte ikerketan, eta euren jarrera ona izan dela adierazi du egileak. "Ez da kritikarako izan, baizik eta elkarlan bat egoteko bai enpresen artean baita Udalaren aldetik ere, gizarte justiziaren alde lan egiteko", dio Maider Zilbetik. Nazio Batuen Erakundeak jarrita dituen giza eskubideen errespeturako jarraibideak izan ditu oinarrian lan honek, eta horiek nola bete daitezkeen aztertuta, "herrigintza gizarte balioen alde egitea ere bada eta".

# Pandemiak kirolean utzitako arrastoa hizpide

Hainbat erpinetatik landuko dute gaia: antolatzaile, erakunde, kirolari eta osasun aldetik; kirolean eskarmentu handia duten bederatzi herritar izango dira. Mahai ingurua Goiena telebistak grabatuko du eta hilaren 18an emitituko da, 22:00etan

**Oihana Elortza** OÑATI

Pandemiak kirolean utzitako arrastoa eta horrek herriko kirol komunitatera ekarritako eragina eta kirolari zein antolatzaileen erronkak zenbateraino baldintzatu dituen aztertuko dute horretarako propio antolatu duten mahai inguruan. Ekitaldi itxia izango da, baina Goiena telebistak osorik grabatuko du eta hilaren 18an emitituko da, 22:00etan. Hurrengo egunetik aurrera, Udalak Youtuben duen kanalean ere ikusi ahal izango da.



Herritar bat oinez eta beste bat bizikletan, Zañartu aldera, pandemia sasoian. GOIENA

**Urte amaierako kirol hitzordua**

Kirol sarien ekitaldia egin ohi izan da azken urteetan urte amaieran. Aurten ez da horrelako ekitaldirik egingo, baina kirola hizpide izango den beste bat bai: mahai inguru berezi hori. "Aurten 21. aldiz emango genituzke kirol sariak, baina ezin da horrelako festarik egin. Bestalde, kirol jarduna ere etenda egon da ia urte guztian. Bakoitzak bere aldetik egin du kirola, ahal izan denetan, baina lehiaketarik ez da egon. Hala ere, ohiturari eutsi gura genion, urteroko hitzordua mantendu, eta, kirol saririk ezean, kirolari buruzko mahai ingurua egitea pentsatu dugu. Pozik gaude. Uste dut oso aberasgarria izango dela, eskarmentu handia duten hizlariek hartuko dute parte, eta izango dute zer kontatua", dio mahai inguruaren moderatzaileak, Aratz Losadak.

Adibidez, kirol eragile eta antolatzaile diren heinean, Anton Inzak, Nerea Uriartek eta Asier Osinagak egingo dute berba. Egoera hau udalean nola bizitzen ari diren Maite Antonek, Jokin Atxagak eta Rosa Lasagabasterrek kontatuko dute. Beste hiru herritarrek berriz, euren bizitzako egoera zailaren aurrean kirolak zertan eta zenbat lagundu dien kontatuko dute, hala nola Joseba Azkaratek, Josune Odriozolak eta Saioa Varelak.

**Dendekin eta tabernekin batera**

Hitz egingo dutenez gain, beste hainbat herritarrek ere hartuko dute parte mahai inguruan, herriko denden eta ostalarien laguntzarekin egingo dute-eta saioa. Ikusiko diren arropak eta sorpresak gauzatzeko erabiliko dituzten produktu eta elementuak eurek utzitakoak izango dira.

## Ostalariendako laguntzak eskatzeko epea zabalik dago

Gastu finkoei aurre egiteko zein inbertsioetarako dirulaguntza eskaerak 23a aurretik egin behar dira

**O.E.** OÑATI

Herriko ostalaritzari laguntzeko ezohiko plana onartu zuen aho betez udalbatzak azaroko osoko bilkuran. Eta laguntza horien eskariak egin ditzakete onuradunek, aurrez aurre udaletxeko HAZ bulegoan, posta arruntez bidalita edo Udalaren webgunean sartuta. Abenduaren 23a da eskaerak egiteko epemuga.

Ohiko gastuak ordaintzen laguntzeko 120.000 euroko dirulaguntza zuzena onartu du udalbatzak. Laguntza horiek establezimendua itxita egon den hilabeteko gastuei, azaroko eta abenduko gastuei aurre egiteko laguntzak izango dira eta langile kopurua hartuko dute oinarri gisa.

Diru kopuru horrez gain, beste 25.000 euroko partida bat ere onartu zuen udalbatzak; kasu horretan, pandemia egoera honi aurre egiteko egindako inbertsioetan laguntzeko, lokalak edo terrazak egokitzeko edo ekipo informatiko berria erosteko, adibidez. Gastuaren %60rainoko laguntza emango die Udalak, 3.000 euroko mugarekin.



NIRE USTEZ

**UXUE MONTERO**

## Kultura segurua eta osasuntsua da!

Negua hemen daukagu, udazkenari azken asteak zapaltzen, eta eguraldi txarrak konfinatuta egotera behartzen gaituela sentitzen dugu. Lana edo beste betebeharrak egiteko soilik ateratzen gara eta aisialdian, etxean, leihotik mendiak nola zuritzen diren begiratzen. Busti edo hotz pasatu nahi ez duena nora joango da, ba? Ezin udalerritik atera, ezin lagunekin gelditu… Bada zerbait egin daitekeena: kulturaz gozatu! Herrian bertan asteroko eskaintza zabala eta adin desberdinetarako da. Zinea, antzerkia eta kontzertuak, besteak beste, eta guztia segurtasun neurriak hartuta: tenperatura kontrola, edukiera mugatua, garbitasuna eta maskarak. Bakarrik edo lagunen artean disfrutatzeko. Euskaltzaindiaren *Kultura* hitzaren lehen definizioa da: *Gogo ahalmenak lantzea; gogo ahalmenen garapena dakarten ezagutza eskuratuen multzoa.* Utz ditzagun beldurrak kanpoan eta lan ditzagun gogoa eta emozioak zineko gelak, antzerkiak eta beste aretoak betetzen –erdia ez bada ere–, kultura segurua eta osasuntsua delako!

ZARRAMARRA
GOIENA TELEBISTA
ABENDUAREN 11N, EGUBAKOITZEAN, 23:00ETAN
IKER PLAZAOLAK GIDATUTAKO 'LATE-NIGHT' SAIOA

goiena
20 URTE ZUEKIN.




# HARPIDETU ZAITEZ GOIENAREN ASTEBURUKO BULETINERA!

ALBISTEAK, BIDEOAK, ARGAZKI GALERIAK...
HARPIDETU ZAITEZ ETA DOAN JASOKO DUZU ASTERO ZURE POSTA ELEKTRONIKOAN.

**HARPIDETU ZAITEZ: GOIENA.EUS/BULETINA**



ERRIGORAKO SASKIAREN IRABAZLEA

**Maite Gastañaga Torres**

goiena
20 URTE ZUEKIN.




Asier Ugarte oñatiarra eta Markel Ilzarbe bergararra, eguaztenean, Azkoitian egindako entrenamenduan. ASIER UGARTE

# "Ausart jokatu behar dugu Getaferen aurka, ez dugu ezer galtzeko"

**ASIER UGARTE ETA MARKEL ILZARBE** ANAITASUNA FUTBOL TALDEKO JOKALARIAK

Urte luzez futbolean jokatu ostean, "amets bat" biziko dute biek eguenean: Lehen Mailako Getafe taldearen aurka lehiatuko dira, Errege Kopako lehen kanporaketan

**Xabi Gorostidi** DEBAGOIENA

Errege Kopa txapelketak badu magia berezia, bi arrazoirengatik, nagusiki: Hirugarren Mailan jokatzen duten futbolariei maila goreneko profesionalen aurka lehiatzeko aukera ematen dielako eta partidu bakarreko kanporaketetan Davidek Goliath menderatzen duelako sarri. Hirugarren Mailan jokatzen duen Anaitasunak pribilegio hori biziko du datorren eguenean Lehen Mailako Getaferen aurka jokatuko baitu Errege Kopako lehen kanporaketa Azkoitin. Taldeko bi debagoiendarren inpresioak jaso ditu GOIENAk, partidu historiko horren ataritan.

**Nola dago Anaitasuna, Getaferi hortzak erakusteko gertu?**

**Asier:** Batez ere, ilusioz. Taldeko ia guztientzat izango da Lehen Mailako talde baten aurka jokatzen dugun lehen aldia, eta bakarra. Eguna heltzeko gogoz gaude, baina argi dugu gure lehentasuna liga dela: Hirugarren Mailan mantentzeko egiten dugu lan, eta Getaferen aurretik ligako partidu garrantzitsua dugu asteburuan.

**Markel**: Guretzat kristoren saria da. Bizitza osoa daramagu futbolean jokatzen, eta halako partidu bat jokatu ahal izatea honaino egindako lanaren sari bezala sentitzen dut nik. Presiorik gabe jokatuko dugu, eta ilusioz gainezka.

**Nola zabiltzate partidu berezi hori prestatzen?**

**Asier:** Ez gara partidua aztertzen hasi oraindik. Partiduz partidu goaz unean uneko aurkaria aztertzen, eta Getaferen aurretik ligako partidu garrantzitsua dugu asteburuan.

**Markel**: Opari honek ez digu gure helburu nagusia ahantzarazi: taldea Hirugarren Mailan mantentzea. Beraz, asteburuko partidua jokatu ostean, hiru egun izango ditugu Getaferen aurkako lehia ahalik eta hoberen prestatzeko.

**Irakurri dudanez, zuen taldekide bat aritu izan zen duela urte batzuk Bordalas prestatzailearen aginduetara lanean, Alavesen. Lagundu dezake estrategia eraginkorra prestatzen?**

**Markel**: Egia da Jon Aranda taldekideak Bordalas izan zuela entrenatzaile; baina duela urte asko izan zen hori, eta ez dut uste orain askorako balioko digunik. Baina balio badezake, hori bai, ongi etorri.

**Asier:** Ez dut uste. Baina Getafe ligan nahiko kaxkar dabil, eta une honetan Errege Kopa ez da euren lehentasuna izango. Agian, horrek lagun gaitzake.

**Getafe ez zen amesten zenuten aurkaria. Zein zen zuen faboritoa?**

**Markel**: Reala, Athletic, Real Madril eta Bartzelona ezin zitzaizkigun egokitu; beraz, Sevilla, Atletico Madril eta Vila-real ziren niretzako erakargarrienak.

**Asier:** Niretzat ere bai. Horiei guztiei Osasuna gehituko nieke, betidanik gustatu zait eta.

**Partidu bakarrera izanda, zer egin beharko duzue bereziki ondo Getaferi irabazteko?**

**Asier:** Oso elkartuta jokatzea da gakoetako bat; gure artean asko hitz eginez. Eta, batez ere, ausart jokatu behar dugu: bai baloiak borrokatzeko orduan, eta baita erasoan ari garenean ere. Hori bai, aukeran edukiko ditugun baloi apur horietan, bestalde, pazientzia eduki beharko dugu, gure jokatzeko modua hori baita.

## ASIER UGARTE: "ATEZAINAREN AURREAN AUKERA BAT BADUT, BALOIA LORATUKO DIOT"

## MARKEL ILZARBE: "PARTIDU GOGORRA IZANGO DA, ZIUR; EA EGUN MAKALA DUTEN ETA GUK, PERFEKTUA"

**Markel**: Asko gustatzen zait futbolean jokatzea, baina futbola bera ez dut askorik jarraitzen; eta, egia badiotsut, oso gutxi dakit Getaferi buruz. Reala jarraitzen dut, eta justu-justu. Baina halako maila duen talde baten aurka dena egin beharko dugu ondo, eta eurek egun makala edukitzea itxaron. Bestela...

**Getafeko zein jokalariren kamiseta eramango zenuke etxera?**

**Asier:** Zaila da aukeratzea, ez baitut inor bereziki gustuko. Bat esatearren... Angel, aurrelaria; edo Djene defentsa.

**Markel**: Ez zait bat ere burura etortzen, baina ilusioa egingo lidake kamiseta bat etxera eramateak; partidu berezi honen oroigarri polita izango litzateke.

**Fama txarra du Getafek, batez ere, aurkarien alderdi psikologikoa ahultzen trebeak direlako. Zer egin dezakezue euren amua ez jateko?**

**Asier:** Espero dut jarrera horrekin ez etortzea. Baina hala badatoz, onena, kasurik ez egitea; probokazioetan sartu gabe.

**Markel**: Fisikoki gogor jokatzen duen taldea da eta balekoa dela uste dut. Gure kategorian, esaterako, oso garrantzitsua da futbolaren aspektu hori. Baina, fisikoaz gain, gu baino askoz hobeagoak dira teknikoki, eta, partidu gogorra izango den arren, alde teknikotik ahaleginduko dira partidua irabazten.

**Zango-babesak –espinillerak– prest?**

**Markel**: Kar-kar-kar. Txantxa bezala aipatu zuten hitz hori, eta komunikabideek ikaragarri hauspotu dute. Nik betiko zango-babesak erabiliko ditut.

**Asier:** Prest ditut, bai. Agian, aluminiozko takoak zorroztuko ditut... Kar, kar, kar.

**Irabaziz gero ilea horiz tindatu edo antzerakorik baduzue?**

**Asier:** Ez dugu halakorik komentatu; nik dakidala, behintzat. Baina ederto ospatuko dugula ziurtzat jo dezakezu.

**Markel**: Ez. Baina hori eginez gero, guk irabaziko dugula bermatzen badidazu, orain bertan egingo nuke.

**Demagun 1-0 irabazten duzuela zuk sartutako gol bati esker. Nolako gola amesten duzu?**

**Asier:** Lagunek galdetu didate: "Atezainaren aurrean gelditzuz gero, zer egingo duzu?". Argi dut: baloia loratuko dut.

**Markel**: Azken minutuan sartutakoa izango litzateke. Nola? Berdin dit... Ipurdiarekin sartuta ere, ni poz-pozik.

# Eskoriatza, lidergoa sendotzeko gosez

**ARETO FUTBOLA** Hirutik hiru irabazita, Hirugarren Mailako talderik indartsuena dela erakusten jarraitu nahi du taldeak, zapatuan bigarren sailkatua den Batzarreri irabaziz gero; Euskal Ligan dauden Mondratek eta UDAk ere etxean jokatuko dute

**Hasier Larrea** ARRASATE

Ligan garaipena besterik ezagutzen ez duen talde bakarra da Eskoriatza KE. Estatistika borobil hori mantendu nahi dute Iker Molinaren mutilek, eta, bide batez, atzetik dituzten taldeekiko aldea handitu. Zapatu arratsaldean, aukera ederra izango dute horretarako, bi puntu atzetik dagoen Batzarre talde gasteiztarraren bisita jasoko baitute Miguel Muñoz kiroldegian, 18:00etan hasita. Irabaziz gero, bost puntuko errenta lortuko lukete eskoriatzarrek euren zapatuko aurkariarekiko, zeintzuek bigarren postuari eutsiko lioketen. Txapelketaren herenera iritsita, gainontzeko partidei konfiantza handiz aurre egiteko moduan jarriko litzateke, beraz, Eskoriatza.

Hilabeteko etenaldiak ez dirudi txapelketako liderrari kalterik egin dionik; Eskoriatzak Aerolink Elorrietakori egin zion bisita joan den zapatuan, eta tarte txikienagatik garaipena etxera eraman zuen.

Areto futboleko Hirugarren Maila, edo Liga Nazionala, urriko azken egunean hasi zuten, Gasteizko Aurreraren zelaian 1-4 irabazita. Bost goleko aldeagatik lortu zuten garaipena hurrengo asteko etxeko partidan, Scorpio Alkidebaren kontura.

**Mondrate eta UDA, berdinduta**

Maila bat beherago dauden bailarako beste bi taldeek, UDAk eta Mondratek, joan den asteburuan ekin zioten lehiari. Aretxabaletarrek seina egin zuten Goierrirekin; arrasatearrek, ostera, launa Zirauntzarekin. Biak bisitari aritu ziren aurkarien aurrean.

Lehen garaipena eskuratzera kantxaratuko dira, beraz, ibarreko bi ordezkariak. Mondratek Uxoa talde laudiarra jasoko du zapatuan Musakolako kiroldegian, 18:00etan hasita. UDAk Zabalgana Zaraunari egingo dio aurre hurrengo egunean, 17:30ean, Ibarra kiroldegian.

## SASKIBALOIA MUk atseden hartuko du asteburu honetan

Mondragon Unibertsitateak sasoiko lehen porrota jaso zuen Zarautzen aurka aurreko asteartean jokatutako etxeko partidan. Alabaina, sailkapenaren lehen koxkan jarraitzen du EBA mailako taldeak, lau garaipenekin, zarauztarrekin berdinduta. Hurrengo astean Santurtzin lehiatzeko indarrak ondo hartzeko balio izango die geldialdiak.



**MUko jokalari bat baloiarekin.** GOIENA

## BOLEIBOLA Arizmendik Ibarran jokatuko du zapatu arratsaldean

Azkenaldiko bolada txarrari amaiera emateko asmoz irtengo dira kantxara Arizmendiko boleibol taldeko gizonezko jokalariak. Lau neurketa jokatuta, garaipen bakarra eskuratu dute Euskal Ligan debutatzen ari diren mutilek. Zapatuan, 17:00etan, Bera Bera Bultz taldea jasoko dute; donostiarrak Euskal Ligako lehenengo mailako hirugarren sailkatuak dira, lau partida irabazita.

Aurreko asteburuan ez zuten partidarik jokatu Leintz bailarako ordezkariek, atseden-astea tokatzen zitzaielako; pilak kargatzeko aukera eduki dute, beraz. Lan-saioetan prestatutakoa baliatzera aterako dira jokalariak Ibarrako kiroldegiko boleibol pistara, baita eskarmentu handiagoa duten aurkariei ezustekoren bat edo beste ematera ere.

Urteko azken aurreko neurketa izango da Arizmendirentzat.

GOIENA 20 URTE ALBISTE

ABERASTASUN SENTSAZIOTIK, GERRIKOA ESTUTZERA

'GOIENA: 20 URTE, 20 ALBISTE' ERREPORTAJE-SORTA
GOIENA TELEBISTA
ABENDUAREN 11N, EGUBAKOITZEAN, 21:30EAN
EKONOMIAREN BILAKAERA DEBAGOIENEAN
AZKEN HOGEI URTEETAN



goiena 20 URTE ZUEKIN.

# "Erakusleiho itzela izan da Mendifilm jaialdia"

**IÑAKI PEÑA** MEDIKUA ETA 'MENDIAN HIL, HIRIAN HIL' FILMAREN ZUZENDARIA
Dokumentalarekin, doluari buruzko lanen trilogia borobildu du Iñaki Peñak, Arteman Komunikazioak-ekin elkarlanean; Mendifilm Festival-en atarian dago online ikusgai

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE
Itxialdian ondu zuen Peñak gidoia; kalera irteteko aukera eman orduko, maiatzean, lehen elkarrizketak grabatzen hasi ziren. Udarako guztiak jaso eta udazkenean muntatu ondoren, domekan estreinatu zuten, Bilboko Euskalduna jauregian.

**Erakusleiho aproposa izan duzue aurkezteko: Mendifilm jaialdia.**
Itzela! Gure nahiek eta antolatzaileen interesek bat egin dute eta nazioarte mailan estreinatu dugu! Ilusio handiarekin joan ginen Bilbora eta inpresio oso ona dugu orain.

**Zer iritzi jaso dituzue orain artean?**
Jendeak estimatu egin du heriotzari buruz errespetuz eta positiboki berba egitea, eta hala adierazi digute.

**Eta zuek emaitzaren gustura?**
Bai, oso pozik. *Aulki hutsak* egin genuen lehenengo lanarekin gogoratzen naiz sarritan; toki askotara mugitzea lortu dugu hura, eta honek ere bere ibilbidea egingo duela uste dut. Mendia du abiapuntu, baina mezua aurreko lanen bidetik doa, doluari buruz, eta oraingoan heriotzari buruz ere bai. Teknikoki kalitate hobea du, eta, orokorrean, aberatsagoa da.

**Ahots askorekin osatutako kontakizuna da. Nortzuk daude?**
Batetik, mendian hildakoen senideak daude; horien artean, Aretxabaletako Mikel Cresporen familia, haren ama eta arreba daude. Izugarria da horiei entzutea, eta medikua naizenetik, oso poztekoa dolua zelako ondo eta azkar bete duten ikustea. Alpinista profesionalak –Juanjo San Sebastian eta Felipe Uriarte– eta mendizale-lagunak ere bai; eta baita osasun arloko profesionalenak ere: Felix Zubia, Iñigo Suberbiola eta Susana Llavina lankideak eta Izaskun Andonegi dolu-terapeuta.


Iñaki Peña zuzendaria, *Mendian hil, hirian hil* filmaren grabaketan. ARTEMAN

**"AURREKO LANAK BEZALA, DOLUARI ETA HERIOTZARI BURUZ DA; ERRESPETUZ ETA MODU POSITIBOAN"**

**Nola dago kontatuta?**
Bi munduak uztartu nahi izan ditut: mendiarena eta hiriarena. Ramon Olasagastik idatzi zuen *Mendiminez* liburua oso lagungarria egin zaigu. Lau bloketan banatuta dago: *Mendian hil*; *Hirian hil*; *Mendian bizi*, *hirian bizi;* eta epilogoa. Azken hori ez da kredituen zerrenda soil bat, bere pisua du istorioan.

**Musika ere etxekoa da, Aretxabaletako Eñaut Zubizarretak egin du.**
Eider Otxoak egin zuen doluari buruzko hitzaldi batean ezagutu nuen; musikarekin lagundutako saioa izan zen, eta, bukatutakoan, Eiderrek aurkeztu gintuen. Elkarrekin lanean hasi eta geroago jakin nuen Mikel Cresporen hari-laguna izandakoa zela Eñaut, eta haren omenaldi ekitaldian biolontxeloa jo zuela; oso ondo konektatu du proiektuarekin. Lau abesti eskatu genizkion eta bikoitza sortu zigun; horietan *Badoie* kantua dago, dokumentaleko lehenengo kantua; lantaldeko batzuen esanetan, lanaren abesti nagusia.

**Zein da zabaldu gura duzuen mezua?**
Batetik, itxaropen mezu bat; hau da, aurreko bi lanekin moduan, posible dela dolu zail eta konplikatuetatik ateratzea. Era berean, gertakari txarrak ekimen politen abiapuntu izan daitezkeela ere erakutsi dugu; adibidez, Iñaki Ochoa de Olza hil ondoren sortu zuten SOS Himalaya Fundazioa eta horrek ekarri dituen proiektu asko. Baina badago hirugarren mezu bat ere: Sukuren historia; hau da, mendian hil zen Beñat Arrueren gurasoek etxean duten alaba berria da Suku. Himalaian ezagutu zuten, gaixorik zegoen, eta Arrueren gurasoek Euskal Herrira ekarri zuten gero, eta sendatu egin da.

**Bihar, beste emanaldi bat izango da, Bilboko Golem zinemetan, baina online ikusteko ere badago.**
Bai; hala da. Mendifilm Festival jaialdiaren atarian lehiatzen diren lan guztiak daude. Alokatu egin behar da; hainbat aukera eta prezio daude.

## 'Arineketan' dantza eta musika saioa Seminarixoan

Bihar eskainiko dute, 19:00etan; sarrerak zortzi eurotan, leihatilan eta 'Tickets.kutxabank.es'-en

**A. Aranburuzabala** BERGARA
Iñar Sastre piano-joleak eta Jagoba Astiazaran txistulariak abiatutako proiektua da Arineketan. "Orain dela urtebete grabatu genuen izen bereko diskoa, eta irailean hasi ginen jendaurrean aurkezten. Ikuskizuna osatuagoa izateko asmoarekin, kide berriak batu ditugu: Ainara Ortega abeslaria, Xabier Zeberio biolin-jolea, Agate Amilibia txelo-jolea eta Haatik datza konpainiako Anne Jauregi eta Jon Arsuaga", dio Astiazaranek.

**Pieza zaharren moldaketak**
Orain dela 200 urte Joan Ignazio Iztueta idazle eta historialariak jasotako hainbat doinu eta erritmo berreskuratu dituzte errepertorioa osatzeko. "Kanta zahar horietatik abiatuta, pieza berriak sortu ditugu; hortaz, euskal dantzekin uztartuta, erritmo latinoak, pop eta jazz estiloetako doinuak... eskainiko ditugu. Ez da lan historizista bat, ezta ikuskizun tradizional bat ere".

Orain arte eskainitako emanaldiek publikoaren harrera ona izan dute. "Publikoak ez du aurrez espero txistua eta pianoa oinarri duen halako kontzerturik, eta, bereziki, publiko gaztearen harrera itzela izan da".

BIZARRO TALDEAREN ZUZENEKOA
GOIENA TELEBISTA
ABENDUAREN 12AN, ZAPATUAN, 23:00ETAN
DURANGOKO AZOKAREN BAITAN PLATERUENAN ESKAINITAKO KONTZERTUA
goiena 20 URTE ZUEKIN.


# "Erregalu ederra egitea da liburu bat oparitzea"

**MARIA JOSE TELLERIA** GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO KULTURA ZUZENDARIA
Liburuak, diskoak eta pelikulak erosteko kultura bonuak jarriko ditu eskuragarri Foru Aldundiak. Tokiko hedabideetara harpidetzeko laguntzak ere emango dituzte

**Karmele Uribesalgo** ARRASATE

Gipuzkoako Foru Aldundiak kultura bonuak jarriko ditu eskuragarri. Gabonen bezpera ingururako jarri nahi dute martxan kanpaina, eta bonuak agortu arte egongo da abian.

**Zer dira kultura bonuak?**
Urtero bezala, Kultura Departamentuak bonuak aterako ditu Gabonetan. Helburua da irakurzaletasuna sustatzea eta herritarrak euskarazko produktuak erostera animatzea.

**Noiz hasi zineten ekimen horrekin?**
Bonuak ateratzen ditugun seigarren aldia da oraingoa. Urtez urte, diru partida areagotzen joan da, eskaerak igo diren neurrian. Aurten, gainera, bonu tirada berezi bat izan dugu udan. Egoera ikusita, une egokia iruditu zitzaigun. Izan ere, jendeak denbora gehiago izan du etxean egon eta irakurtzeko. Bestetik, liburu denda txikiei bultzada emateko modua ere izan da bonuen kanpaina abiatzea. Udako ekimen hori berezia izan zen, baina, normalean, Gabonetan atera ohi ditugu bonuak. Udako kanpainara 100.000 euro bideratu genituen, eta orain, 85.000 euro jarriko ditugu; 80.000 liburuak, diskoak eta pelikulak erosteko izango dira eta beste 5.000, herri aldizkarietarako harpidetzak ordaintzeko.

**Nola funtzionatzen dute liburu, disko eta pelikula bonuek? Zelan eskuratzen dira?**
Euskarazko produktuetarako bonu batzuk ateratzen ditugu, eta gaztelaniazkoentzako beste batzuk. Euskarazko produktuak erostean, 20 euroko gastua eginda, 12 euroko hobaria jasotzen du erosleak. Gaztelaniazkoetan, aldiz, 8 eurokoa da. Une honetan zabalik dago deialdia liburu dendek bonuak banatzeko aukera izatea eskatzeko. Behin hori zehaztuta, bezeroak bertara joatea besterik ez du erosketa egiterakoan deskontua jaso ahal izateko.


Maria Jose Telleria, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura zuzendaria. M.J.T.

## "LIBURU DENDA TXIKIEI BULTZADA EMATEKO MODUA ERE IZAN DA BONUEN KANPAINA ABIATZEA"

**Zer harrera izaten dute bonuek?**
Zoritxarrez, euskarazko bonuak ez dira sekula amaitu. Egia da bonu gehiago izaten direla gaztelerazko produktuetarako, baina hobaria txikiagoa da erosketa bakoitzeko.

**Aurten berebiziko garrantzia izango dute bonuek, ezta?**
Gure nahia da jendea konturatzea erregalu ederra egitea dela liburu bat oparitzea. Gainera, aurten, gutxiago ibili ahal izango gara kalean, eta irakurzaletasuna berreskuratzeko une ona izan daiteke. Horrez gain, hobaria beti da ona, eta gaurko egoera kontuan izanda, are eta gehiago. Nolabait, nahi dugu jendeak saritxo bat jasotzera kulturan inbertitzen duenean.

## Laguntzak Goiena Klubera batzeko

Foru Aldundiak Tokikom-ekin sinatutako hitzarmen bati esker, Goienako Klubean ere erabil ahal izango dira 12 euroko bonuak. Izan ere, Aldundiak 5.000 euroko diru partida bideratuko du tokiko hedabideen harpidetzak sustatzera. Dagoeneko bazkide direnek zein bazkide berriek erabili ahal izango dituzte bonuak. Modu horretara, astero izango dute 48 orriko *Puntua* irakurgai etxeko buzoian.

"Herri aldizkariak jende askok irakurtzen ditu, eta interesgarriak iruditzen zaizkigu herritarrak euskaraz irakurtzera animatzeko", azaldu du Telleriak.

Harpidetza egiteko bi modu daude: Goienaren egoitzara joanda edo *idazkaritza@goiena.eus* helbidera idatzita.

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko abenduko sariak!



Errigorako saskia
Parte hartzeko sariaren izena: Saskia

Sarrerak
Arrikrutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz

Otarrea
Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

PARTE HARTZEKO:
Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus Whatsapp: KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Irabazi bi lagunendako otordua
ERREKI JATETXEARI ESKER
Begiratu *Puntua* aldizkariko *Otorduan* atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: Abenduaren 15era arte
943 25 05 05 kluba@goiena.eus
KLUBA Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Irabazi bi lagunendako sarrerak
Ozenki elkarteari esker
Gala liriko emanaldirako sarrerak ditugu
Arrasate | Amaia Antzokia | Abenduaren 17 | 19:00etan
PARTE HARTZEKO:
E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA "Gala" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.



*Puntua* aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailez gozatzeko...

ESKAINTZA BEREZIA!
Abenduan jaso Puntua doan, hurrengo urteko bazkidetza eginez
Deitu: 943 25 05 05 • kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

HILETA



## Jose Labaka Gantxegi

Pilar Ruiz de Azuaren alarguna

2020ko azaroaren 7an hil zen, 90 urte zituela.

Haren aldeko hileta-elizkizuna gaur, egubakoitza, abenduak 11, izango da, 19:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Zure familia.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2020ko abenduaren 11n.

HILETA



## Inaxio Irazabalbeitia Aldazabal

-Goian bego-

2020ko azaroaren 20an hil zen, 70 urte zituela.

Emaztea: Arantxa Eguren. Seme-alabak: Aritz eta Enara San Andres. Bilobak: Ekhi, Ilargi. Anai-arrebak: Jose (†) eta Maria Luisa, Jesus eta Marije, Angel (†), Roman (†), Ane eta Jesus, Begoña eta Jose Mari, Arrate eta Koldo. Ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren arimaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaiteztela zapatuan, abenduak 12, 19:00etan, Bergarako San Pedro parroki elizan egingo den hiletara.

Aldez aurretik mila esker.
Bergaran, 2020ko abenduaren 11n.

HILETA



## Pablo Ugarte Billar

2020ko azaroaren 14an hil zen, 82 urte zituela.

*Maztui aldeko sagarrondo bat*
*loratzen den bakoitzean*
*Gaztainaz bete danbolina ta*
*sugarrek hura belztean*

*Basotik buelta egin ta onddo*
*otzarakada biltzean*
*Hortxe egongo zara, aittaitta,*
*gu danon aldamenean.*

Haren aldeko hileta-elizkizuna zapatuan, abenduak 12, izango da, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Bertaratuko zaretenoi aldez aurretik eskerrik asko.
Oñatin, 2020ko abenduaren 11n.

OROIGARRIA



## Jose Labaka Gantxegi

Pilar Ruiz de Azuaren alarguna

2020ko azaroaren 7an hil zen, 90 urte zituela.

*Beti izango zaitugu gogoan.*

Larrañaga Guridi familia.
Bergaran, 2020ko abenduaren 11n.

OROIGARRIA



## Maria Iriondo Gezala

(Zabaleta baserrikoa)
Ricardo Gorosabelen alarguna

2020ko abenduaren 4an hil zen, 98 urte zituela.

*Gaur izar bat piztu da zeruan,*
*gure amama Maria da.*
*Eskerrik asko hain familia ederra sortzeagatik.*
*Gure bizitzan eredu izango zara.*
*Ez zaitugu inoiz ahaztuko.*
*Muxu handi bat.*

Andoni Gorosabel eta familia osoa.
Arrasaten, 2020ko abenduaren 11n.

OROIGARRIA



## Bizente Errasti Ortueta

2020ko abenduaren 4an hil zen, 86 urte zituela.

*Alaitasunaren iturritik edan genuen elkarrekin,*
*oroimenean izango zara zu beti gurekin.*

Aurrekokoak.
Aramaion, 2020ko abenduaren 11n.

# HILDAKOAK

**Carlos Martinez Diaz.** Arrasaten, abenduaren 2an. 66 urte.

**Antonio Corral Herrero.** Arrasaten, hilaren 2an. 90 urte.

**Crispin Valdezate Salvador.** Arrasaten, abenduaren 3an. 84 urte.

**Acacia Fernandez Martin.** Arrasaten, hilaren 3an. 88 urte.

**Asuncion Alonso Rincon.** Arrasaten, hilaren 3an. 97 urte.

**Maria Carmen Rojas Sanchez.** Arrasaten, abenduaren 4an. 80 urte.

**Maria Iriondo Gezala.** Arrasaten, abenduaren 4an. 98 urte.

**Bizente Errasti Ortueta.** Aramaion, hilaren 4an. 86 urte.

**M. Teresa Aperribay Elorriaga.** Arrasaten, hilaren 5ean. 75 urte.

**M. Rosario Etxeberria Uribesalgo.** Aretxabaletan, 6an. 60 urte.

**Francisco Guridi Iñurritegi.** Oñatin, abenduaren 6an. 81 urte.

**Felix Goikolea Zabala.** Arrasaten, abenduaren 9an. 83 urte.

URTEURRENA



## Mari Carmen Lazcano Balzategui

Mariano Ormazabalen alarguna

2019ko abenduaren 11n hil zen, 94 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, abenduak 13, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2020ko abenduaren 11n.

ESKER ONA



## M. Teresa Aperribay Elorriaga

2020ko abenduaren 5ean hil zen, 75 urte zituela

Haren senarra: Matias Garitaonandia; seme-alabak: Itziar, Gotzon eta Nerea Otaegi; bilobak: Amets eta Xanti; anai-arrebak: Ramon eta M. Pilar Aranda; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Familiak jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak eskertu nahi dizkizue eta bere oroimenez azken agurreko hileta elizkizuna aurrerago ospatuko dela jakinarazten dizue.

Oharra: gaur egungo egoera dela eta, gorpua familiartean agurtuko da.
Arrasaten, 2020ko abenduaren 11n.

# GUARDIAKO FARMAZIAK

| | |
|---|---|
| **ARRASATE** *EGUNEZ* | |
| **Egubakoitza, 11** | RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 0 |
| **Zapatua, 12** | ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30 |
| **Domeka, 13** | ALBERTO AZKOAGA: Ferrerias kalea 1 / 943 79 15 15 |
| **Astelehena, 14** | M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99 |
| **Martitzena, 15** | FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26 |
| **Eguaztena, 16** | IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39 |
| **Eguena, 17** | SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74 |
| **BERGARA** *EGUNEZ* | |
| **Egubakoitza, 11** | ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87 |
| **Zapatua, 12** | OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05 |
| **Domeka, 13** | OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05 |
| **Astelehena, 14** | ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63 |
| **Martitzena, 15** | MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15 |
| **Eguaztena, 16** | URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74 |
| **Eguena, 17** | ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87 |
| **OÑATI** *EGUNEZ BAKARRIK* | |
| **Egubakoitza, 11** | JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28 |
| **Zapatua, 12** | JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28 |
| **Domeka, 13** | JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28 |
| **Astelehena, 14** | ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16 |
| **Martitzena, 15** | ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16 |
| **Eguaztena, 16** | IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22 |
| **Eguena, 17** | IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22 |

**ARRASATE** *GAUEZ EGUNERO*
*(22:00etatik 09:00etara)*
**2020ko abenduaren 31ra arte:**
ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30

**BERGARA** *GAUEZ EGUNERO*
*(22:00etatik 09:00etara)*
**2020 osoan:**
ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63

**Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:**
*COF Gipuzkoa* aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**
edo *eskelak@goiena.eus*

▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 176 € / Goiena Klubeko bazkideendako 156 €

▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 155 € / Goiena Klubeko bazkideendako 137 €

**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

BABESLEA

Oroilore
Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu



*Jakin ezazue nahiz eta heriotz asegurua izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.*

*Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.*

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

## TXUTXU-MUTXUAK












# Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidaliguzu argazkia!

**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *berriak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

**Ordezkaritzak**
Zatoz Goienaren ordezkaritzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

**1. 'Altxorbizien' paperean**
Aretxabaletako Arizmendi ikastolako ikasle txikienek pozarren ospatu zuten Euskararen Eguna. Hamabost ekintza baino gehiago egin zituzten, eta Iratxoren laguntza izan zuten.

**2. Elur geruza handia**
Abenduko zubian izandako elurteak kolorea aldatu die bailarako hainbat txokori. Udazken koloretik, elur kolorera. Urbian zentimetro asko pilatu ziren, zapatuan eta domekan.

**3. 'Bizipenen (h)arigunea'**
Euskararen Nazioarteko Egunarekin bat eginda, hainbat herritarrek euren bizipenak partekatu zituzten: Euskaraldiarekin bizi izandakoa partekatu zuten.

**4. Dantzan, eserita egonda**
Eibarko Mugi Panderoa taldeak girotu zuen Euskararen Eguna Elgetan. Euskal kantuekin ipini zituzten dantzan Espaloira joandakoak, baina norbere aulkitik mugitu barik.

**5. 50 urte ezkonduta**
Mari Karmen Gutierrezek eta Pedro Etxebarriak urrezko ezteiak bete dituzte. "Era xumean ospatu dugu gaur, baina aurrerago, festatzarra egingo dugu. Zorionak!".

# ZORION AGURRAK



ESKORIATZA
**Amets Aguirre Gandarias**
Abenduaren 16an, 5 urte. Zorionak, Amets! Egun ederra pasatu, maitia. Muxu handi bat etxekoen partetik. Asko maite zaitugu!



BERGARA
**Naia Telleriarte Sancho**
Abenduaren 14an, 10 urte. Familiaren partetik, zorionak!



BERGARA
**Lier Bardezi Kerejeta**
Abenduaren 14an, 10 urte. Zorionak, maittia! Bi zifradun zenbakixa heldu da eta fenomeno pasatuko dou ospatzen! Patxo erraldoi bat Malenen, aitatxoren eta amatxoren partetik!



ARRASATE
**Martin Bengoetxea**
Abenduaren 13an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat familia osoaren partetik! Asko maite zaitugu.



BERGARA
**Elene Garcia de Andoin Igartua**
Abenduaren 13an, 5 urte.
Zorionak, prexioxa! Asko maitxe zaitxugu! Patxo potolo bat, etxeko danon partetik.



ESKORIATZA
**Lucia Kortazar Uribesalgo**
Abenduaren 13an, 79 urte. Zorionak eta ondo-ondo pasatu egun berezi hau, dena merezi duzu eta! Maite zaitugunon partetik.



ARAMAIO
**Paule Avila Hernando**
Abenduaren 12an, 6 urte. Zorionak, Paule! Oso ondo pasatu zure egunean. Jarraitu hain polita eta alaia. Musu handi-handi bat, etxekoen partetik. Mua!



ARETXABALETA
**Mikel Iñurrategi Alberdi**
Abenduaren 12an, urtebete. Zorionak, Mikeltxo! Urte xelebre hau alaitu diguzu. Muxu pilo bat, etxekoen partetik.



BERGARA
**Malen Aretxaga Arabaolaza**
Abenduaren 12an, 8 urte. Zorionak, Malentxo! Jadanik zortzi urte; ze neska handia! Patxo handi bat, etxeko danen partetik.



ANTZUOLA
**Eneritz Zubikarai Aguado**
Abenduaren 12an, 9 urte. Zorionak, Eneritz! 9 urte jada. Ondo pasatu zure eguna, etxeko danon partetik. Bereziki Ametsek eta Izarok.



OÑATI
**Peru Orueta Santos**
Abenduaren 11n, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo ospatu zure eguna eta patxo handi bat, familixako danon eta, batez ere, Nataleren eta Martxelen partetik! Muak!



OÑATI
**Aiur Etxezarreta Castillo**
Abenduaren 11n, 3 urte. Zorionak, Aiur! Ondo-ondo pasatu zure egunian eta patxo handi bat etxeko danon partetik, politt hori!



BERGARA
**Asier Cortes Bernardo**
Abenduaren 11n, urtebete. Zorionak, pitxintxo! Patxo pilo bat, etxeko guztion partetik.



ARRASATE
**Oihan Labayen Marin**
Abenduaren 11n, 3 urte. Zorionak, *printzipito*! Primeran ospatu zure urtebetetzea eta irribarrez beteriko eguna izan dadila. Zorionak be argazkian agertzen zareten beste bi artistei! Maite zaituztegu! Muxu bana, familia osoaren partez!



BERGARA
**Hugo Hidalgo Murillo**
Abenduaren 10ean, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure eguna eta patxo potolo bat!



ESKORIATZA
**Gorka Enekotegi Oyanguren**
Abenduaren 10ean, 4 urte. Zorionak, bihotza! Patxo potolo bat etxeko danon partetik.



OÑATI
**Aner Errasti Urrate**
Abenduaren 9an, 9 urte. Azkenian, heldu da abenduaren 9a! Zorionak, Aner! Ondo-ondo ospatu zure eguna, eta muxu handi bat etxeko danon partetik!



ESKORIATZA
**Maria Matas Casado**
Abenduaren 9an, 9 urte. Zorionak, maittia! Super ondo pasatuko dugu eguna! Mila patxo, familia osoaren partetik!



BERGARA
**Alaitz Garai Zenitagoia**
Abenduaren 8an, 9 urte. Zorionak, maitxia! Ondo-ondo pasatu zure egunean eta patxo potolo bat familia danaren partetik.



ESKORIATZA
**Anitz Arenaza Villar**
Abenduaren 8an, 5 urte. Zorionak, pitxin. Tori patxo potolo potolo bat etxekuen partetik. Bereziki, asko gure zauen Eñautengandik!



ANTZUOLA
**Andoni Sanchez Sanchez**
Abenduaren 8an, 5 urte. Zorionak, txikitxo. Muxu handi bat zure gurasoen eta arrebaren partetik. Egun polita pasatu dezazun.



BERGARA
**Oier Osa Zabala**
Abenduaren 7an, 3 urte. Gure etxeko altxor txikixa! Hiru urte ein ditxuzu eta zorion bero bat bidaltzia nahi izan dugu, aitatxo-amatxok, Iratxek, osabak eta aiton-amonek.



OÑATI
**Elur Biain Ignacio**
Abenduaren 7an, urtebete. Zorionak, politx hori! Ja urtebete pasatu da. Asko maite zaitugu. Muxu pila bat, familixaren partetik.



ARRASATE
**Laia Bollon Rodriguez**
Abenduaren 7an, 12 urte. Zorionak, Laia! Oso ondo ospatu zure eguna, maitia! Muxu asko 'Distrito 33'-ko bizilagun guztien partetik.



ARRASATE
**Alejandro Virumbrales**
Abenduaren 7an, 62 urte. Zorionak, Alejandro! Besarkada bat 'Distrito 33'-ko lagunen partetik! Zu Goienan baita!



BERGARA
**Olatz Laborda Juldain**
Abenduaren 7an, 39 urte. Zorionak, Olatz! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna! Muxu bat zure lankideen partetik!



ARETXABALETA
**Aner eta Unax Maria**
Abenduaren 5ean. Zorionak, txapeldunak! 10 urte jada! Jarraitu izaten maitakor eta alai. Eta mantendu dauzkazuen baloreak! Altxor bat zarete eta! Pilia maite zaituztegu bai zuen familia osoak, bai zuen lagunek ere!



OÑATI
**Aaron Peleteiro Rodriguez**
Abenduaren 5ean, 31 urte. Zorionak, maitxia! Ondo pasatu urtebetetzea eta patxo handi bat, lankideen partetik!

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

**Internet**
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *https://goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

**Ordezkaritzak**
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 10:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarri ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



ARRASATE
**Aner Horrillo Zallo**
Abenduaren 14an, 7 urte. Zorionak, Aner! Patxo handi bat gurasoen, anaia Aimarren, aitita-amamen, izeba-osaben eta birramama Inmaculada partetik.



BERGARA
**Paco Moreno**
Abenduaren 12an, 62 urte. Zorionak, aitxitxa! Ondo pasatu eguna eta disfrutatu. Besarkada handi bat Alaineren eta Kenarren partetik. Asko maite zaitugu!

# AGENDA

**EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN.** Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 11

ESKORIATZA **Gernika plaza apaintzea**
Ludotekako erabiltzaileek egindako apaingarriak ipiniko dituzte.
*Gernika plazan, 17:00etan.*

ARETXABALETA **'Bizipen gineko-obstertrikoa' ikastaroa**
*Zer da indarkeria obstertrikoa? Eta bortizkeria ginekologikoa?* galderak erantzungo dituzte Metik proiektuko Irune Roblesek eta Raquel Garciak. Izenak *atxabaltakofeministak@gmail.com* helbidean.
*Arkupen, 17:30ean.*

ARRASATE **'Euskaratik mundura eta mundutik euskarara' ipuin musikatua**
5 urtetik aurrerakoendako.
*Kulturaten, 18:00etan.*

BERGARA **'Erraiak' dokumentala**
Ekain Martinez de Lizarduik irrintziari buruz egindako lana. Sarrera debalde da. Emanaldia hasi baino ordu erdi lehenago banatuko dituzte.
*Kartzela zaharrean, 18:30ean.*

OÑATI **Akordeoi taldearen emanaldia**
Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleen emanaldia.
*Santa Ana antzokian, 18:30ean.*

ARETXABALETA **Bertso jaialdia**
Uxue Alberdi, Oihana Bartra, Aitor Sarriegi eta Iker Zubeldia bertsotan. Sarrerak, lau euro.
*Arkupen, 19:00etan.*

BERGARA **'Euskal kondairak musikarekin' ikuskizuna**
Toti Martinez de Lezearekin eta Bergarako biolin-jole laukotearekin. Sarrerak, zortzi euro.
*Seminarixoan, 19:00etan.*

ARRASATE **Ekiñe eta Bloom**
Gabonetako karpan. Debalde.
*Biteri plazan, 19:00etan.*

OÑATI **'Probesiak' emanaldia**
Zuzeneko poesia musikatu emanaldia, ironiaz beteta. Edukiera mugatua.
*Gaztetxean, 19:00etan.*

## ZAPATUA 12

OÑATI **Gebarako kondeen panpinak salgai**
Oñatz dantza taldeak atera ditu, Gabonetan oparitzeko. Bikotea, 30 euro.
*Foruen plazan, 09:00etan.*

OÑATI **'Musika eta ahalduntzea'**
Jabetze Eskolaren baitan, formakuntzarako saioa, Olatz Salvadorren eskutik.
*Gaztelekuan, 10:00etan.*

OÑATI **Hotz Oñatiren mahaia**
*Inor ez da ilegala* aldarria duten motxilak erosteko aukera, hamabost eurotan.
*Foruen plazan, 10:30etik.*

BERGARA **'Euskararen aztarnak antzinako epigrafian' hitzaldia**
*Heriotzarako erromatar ohiturak Soriako Tierras Altas eskualdean* erakusketako komisarioak egingo du berba, gazteleraz.
*Laboratoriumen, 11:00etan.*

ARAMAIO **Formakuntza feminista**
Izena emateko: *berdintasuna@gorbeialdea.eus* helbidean.
*Udaletxean, 11:00etan.*

ARRASATE **Jostailu truke merkatua**
Txatxilipurdiren eskutik.
*Biteri plazan, 11:30ean.*

BERGARA **'Bergara. Abizenak, leinuak eta oinetxeak. 3. zatia' liburuaren aurkezpena**
Patxi Larrañaga egileak aurkeztuko du bildumaren hirugarren liburua.
*Seminarixoan, 12:00etan.*

ARETXABALETA **Karmele Igartua Sorkuntza Lehiaketa: sari banaketa**
Aurtengo irabazleak sarituko dituzte.
*Arkupen, 12:00etan.*

ARRASATE **'Ikimilikiliklik' antzezlana**
Marie De Jongh taldearen lana, 6 urtetik gorakoendako. Sarrerak, bost euro.
*Amaia antzokian, 17:00etan.*

ARRASATE **'Arrasate 20/20' erakusketa: azken eguna**
Gaur da azken eguna Artgazkiko kideen bilduma ikusteko. 80 erretratu, herriko argazki zaharrak eta estudio fotografiko daude ikusgai.
*Kulturaten, 17:30ean.*

ANTZUOLA **'Bi urte, lau hilabete eta egun bat' dokumentala**
Lander Garroren pelikula. Sarrerak: Antzuolako liburutegian eta *Labur.eus/sarrerakantzuola* helbidean.
*Torresoroan, 18:00etan.*

OÑATI **Willis Drummond taldea -sarrerak agortuta-**
Baionako taldeak orain urtebete kaleratutako *Zugzwang* diskoaren kantuak joko ditu zuzenean.
*Gaztelekuan, 19:00etan.*

## DOMEKA 13

OÑATI **'Altxorraren bila'**
Familiendako orientazio jolasa, Arantzazuko ibilbide irisgarrian. Zazpi pista topatu beharko dira. Aurrez eman behar da izena.
*Arantzazuko parketxean, 11:00etan.*

ARRASATE **Arrasateko trikiti eskola eta Lore Gazteak**
Gabonetako karpan, edukiera mugatuarekin.
*Biteri plazan, 12:00etan.*

BERGARA **Zeramika erakusketa**
Buztinzale Zeramika elkarteko kideen lanak ikusteko aukera, hilaren 20ra arte.
*Aroztegin, 12:00etan.*

ARETXABALETA **'Ametsen urtebetetzea' ikuskizuna**
Kantu Kolore taldearen emanaldia, familiendako, zuzeneko musikarekin, koreografiekin eta umorearekin. Sarrerak, hiru euro.
*Arkupen, 17:00etan.*

## ASTELEHENA 14

OÑATI **Pentsiodunen elkarretaratzea**
Pentsio duinak eskatzeko.
*Foruen plazan, 12:00etan.*


MARIE DE JONGH

ARRASATE **'Ikimilikiliklik' antzezlana**
Marie De Jongh taldearen lana, 6 urtetik gorako neska-mutikoendako. Sorginei beldur dien Ekhi neskatoa sorgin bihurtuko da, bere beldurrei aurre egin ahal izateko. Sarrerak, bost euro.
*Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 17:00etan.*

ARRASATE **Pentsiodunen elkarretaratzea**
Pentsio duinak eskatzeko.
*Herriko Plazan, 12:00etan.*

ANTZUOLA **Pentsiodunen elkarretaratzea**
Pentsio duinak eskatzeko.
*Herriko Plazan, 12:00etan.*

ARETXABALETA **'COVID-19aren eragina herrian' hitzaldia**
Unai Elkoro alkateak eta Javier Mar medikuak egingo dute berba, Basotxok gonbidatuta.
*Arkupen, 17:00etan.*

OÑATI **Idazketa lantegia**
Jose Mari Iturraldek gidatutako saioa. Idazketa lantegiko taldeak osatuta daude.
*Liburutegian, 17:00etan.*

ARETXABALETA **'Eskuen hitzak' erakusketa**
Itzal Zubillagaren erretratu bilduma, hilaren 30era arte. Hamalau argazki, eta guztietan eskuak dira protagonista.
*Arkupen, 17:00etan.*

ESKORIATZA **Literatura solasaldiak**
Kattalin Minerren *Moio* liburuaren gaineko saioa, Mikel Antzak gidatuta.
*Kultura etxean, 18:00etan.*

ARRASATE **'Aralar, mundua leku den lurra' ikus-entzunezkoa**
Ostean, solasaldia.
*Kulturaten, 17:00etan.*

## MARTITZENA 15

OÑATI **Olentzeroren eta Mari Domingiren postontzia**
Gaurtik hilaren 24ra arte utzi ahal izango dira gutunak postontzian.
*Foruen plazan, 09:00etan.*

ARRASATE **Txoronpio eta Txoronpia, ikastetxeetan**
Olentzerorendako gutunak batuko dituzte.
*Ikastetxeetan, egun osoan.*

BERGARA **Karmele Jaiorekin solasaldia**
Irekia, edukiera mugatuarekin. Besteak beste, Euskadiko Literatura Sariaz eta bere azken lanaz egingo du berba.
*Seminarixoan, 18:00etan.*

LEINTZ GATZAGA **'Baltistango testigantzak' hitzaldia**
Galarza-Gardoki familiaren eskutik, Mendi Astearen baitan. Sarrera behar da.
*Herriko elizan, 18:00etan.*

LEINTZ GATZAGA **'South lines' ikus-entzunezkoa**
Aymar Navarro eskiatzailearen proiektu berria, Mendi Astearen baitan.
*Herriko elizan, 18:30ean.*

OÑATI **Literatura solasaldia**
Eduardo Halfon idazlearen *Monasterio* liburuari buruz, Ane Zapaterok gidatuta, gazteleraz.
*Udaletxean, 18:30ean.*



KANTU KOLORE

**ARETXABALETA 'Ametsen urtebetetzea' ikuskizuna**
Kantu Kolore taldearen lana. Abesti didaktikoen bitartez haurrek ikasteko eta gozatzeko aukera izango dute, eta Ametsi bere urtebetetzea ospatzen lagunduko diote. Sarrerak, hiru euro.
*Etzi, domeka, Arkupen, 17:00etan.*

**ARRASATE Solasaldia ingelesez**
*Olive Kitteridge* telesailaren gaineko saioa, Olwen Mearsek gidatuta.
*Bibliotekan, 18:30ean.*

## EGUAZTENA 16

**ARRASATE Txoronpio eta Txoronpia, ikastetxeetan**
Olentzerorendako gutunak batuko dituzte.
*Ikastetxeetan, egun osoan.*

**OÑATI 'Consumimos violencia' ikerketaren aurkezpena**
Ostean, *Violencia machista y consumo* bakarrizketa, Setem hego Haizearekin eta Irantzu Varelarekin.
*Zinema aretoan, 18:00etan.*

**BERGARA Eguaztenetako azoka**
Herriko baserritarren produktuak erosteko aukera.
*Oxirondon, 18:30ean.*

**ARRASATE Literatura solasaldia**
Paul Bowlesen *El cielo protector* liburua oinarri hartuta, eta Juan Ibarrondok gidatuta, gazteleraz.
*Bibliotekan, 18:30ean.*

**BERGARA Zinekluba**
Jessica Hausnerren pelikula. Sarrerak, hiru euro.
*Seminarixoan, 18:30ean.*

**BERGARA 'Heriotzako erromatar ohiturak Soriako Tierras Altas eskualdean' erakusketa**
Burdin Aroan hilarrietan egiten ziren inskripzioak interpretatzen ikasteko bilduma ikusgai, abenduaren 20ra arte, museoaren ordutegian.
*Laboratoriumen, 18:30ean.*

## EGUENA 17

**ELGETA 'Liburu bat opari' lehiaketa**
60 euroko hiru erosketa-bonuak zozketatuko dituzte.
*Liburutegian, 09:00etan.*

**ARRASATE Sasoibide irteera lehiaketa**
Garagartzarainoko joan-etorria egingo dute.
*Biteri plazan, 10:00etan.*

**OÑATI Garbigune ibiltaria**
Egun osoan egongo da.
*Merkatu plazan, 10:30ean.*

**ARRASATE Odol-ateratzea**
Urteko azken aurreko deia.
*Laubide plazan, 16:30ean.*

**OÑATI 'Bizitzaren laborategia' emanaldia**
Ipuin kontaketa eta zientzia esperimentuen saioa egingo du Ana Galarragak, 6-9 urte artekoendako, 17:30ean eta 18:30ean.
*Liburutegian, 17:30ean.*

**LEINTZ GATZAGA 'Mendi biluzia' ikus-entzunezkoa**
Alex Txikonek 2016ko otsailean Nanga Parbatera egindako igoera kontatzen duen filma, Mendi Astearen baitan. Sarrera behar da.
*Herriko elizan, 18:00etan.*

**ESKORIATZA Literatura solasaldia**
Junot Diazen *Asi es como la pierdes* liburuaren gaineko saioa, Ane Zapaterok gidatuta. Izena, aurrez, abenduaren 15era arte.
*Kultura etxean, 18:00etan.*

**ARRASATE Literatura solasaldia**
Ali Salem Iselmuren *Beduino bat Karibe aldean* liburua oinarri hartuta, Alex Gurrutxagak gidatutako saioan. Euskaraz.
*Bibliotekan, 18:30ean.*

**OÑATI Zinekluba**
Siriako gerrari buruzko *Para Sama* dokumentala. Sarrerak, bost euro.
*Zinema aretoan, 19:00etan.*

**ARETXABALETA Oreka TX taldea**
*Koklea* diskoa aurkeztuko du, azken urteetan izandako ibilbidearen emaitza jasotzen duen bilduma. Sarrerak, lau euro.
*Zaraian, 19:00etan.*

**ARRASATE 'Mondra. Una temporada y tres futbolistas' liburuaren aurkezpena**
Jon Sagasta, Javier Larrauri eta Jesus Aranbarri arrasatearrei buruzko liburuaren aurkezpen ekitaldia, edukiera mugatuarekin.
*Kulturaten, 19:00etan.*

**ARRASATE Gala lirikoa**
Miren Urbieta sopranoaren, Igor Peral tenorraren eta Alberto Arrabal baritonoaren ahotsak, Arkaitz Mendozaren musikarekin.
*Amaia antzokian, 19:00etan.*

## ZINEMA

### ARRASATE

**AMAIA ANTZOKIA**

**Hil kanpaiak**
Domeka eta astelehena: 19:00.

**Los Fixies contra los Crabots**
Domeka: 16:00.

### BERGARA

**SEMINARIXOA**

**Sentimental**
Domeka eta astelehena: 18:30.

**Los Fixies contra los Crabots**
Domeka: 16:00.

### OÑATI

**KULTURA ETXEA**

**Hil kanpaiak**
Egubakoitzetik astelehenera: 19:00.

**El arco magico**
Zapatua eta domeka: 16:30.

### EIBAR

**COLISEO**

**En guerra con mi abuelo**
Zapatua eta domeka: 16:00, 19:00.
Astelehena: 19:00.

**Nieva en Benidorm**
Zapatua eta domeka: 16:00, 19:00.

**ANTZOKIA**

**El jinete del dragon**
Zapatua: 16:00.
Domeka: 16:00 (euskaraz)

**El verano que vivimos**
Zapatutik astelehenera: 18:30.

### GASTEIZ

**FLORIDA**

**Trolls 2**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Las brujas de Roald Dahl**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Baby**
Egubakoitzetik astelehenera, eta eguaztena: 17:10, 19:10.
Martitzena: 17:00.
Eguena: 16:30.

**El jinete del dragon**
Egubakoitza: 15:20.
Zapatua eta domeka: 12:00, 15:20.

**En guerra con mi abuelo**
Egubakoitza: 15:25, 17:20.
Zapatua eta domeka: 12:00, 15:25, 17:20.
Astelehena eta martitzena: 16:35.
Eguaztena eta eguena: 17:20.

**El verano que vivimos**
Egubakoitza eta martitzenetik eguenera: 16:35, 19:00.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:35, 19:00.
Astelehena: 17:00.

**Volver a empezar**
Egubakoitzetik domekara arte: 19:20.
Astelehenetik eguenera: 17:20, 19:20.

**Madame Curie**
Egunero: 16:55.

**Como sobrevivir en un mundo material**
Egubakoitzetik domekara: 17:20.

**La mujer ilegal**
Egunero: 16:40.

**Nuestros mejores años**
Egunero: 18:45.

**My mexican Bretzel**
Egubakoitzetik domekara: 16:05, 19:45.
Astelehenetik eguenera: 19:45.

**Estandar**
Egubakoitza, eta astelehenetik eguenera: 17:40.
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:40.

**Nieva en Benidorm**
Egunero, martitzena izan ezik: 16:40, 19:00.
Martitzena: 17:00, 19:00.

**El arte de volver**
Egubakoitzetik domekara: 15:30, 19:25.
Astelehenetik eguenera: 19:25.

**Stardog y Turbocat**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**GORBEIA**

**Trolls 2**
Egubakoitza eta zapatua: 17:15.
Domeka: 12:00, 17:15.

**La brujas de Roal Dahl**
Egunero, domeka izan ezik: 16:45.
Domeka: 12:00, 16:45.

**Ni de coña**
Egubakoitza eta zapatua: 19:15.
Domeka: 12:00, 19:15.
Astelehenetik eguenera: 19:20.

**Erase una vez...**
Domeka: 12:00.

**Dragoiaren gidaria**
Domeka: 12:00.

**En guerra con mi abuelo**
Egubakoitza eta zapatua: 17:20, 19:15.
Domeka: 12:00, 17:20, 19;15,
Astelehenetik eguenera: 17:20.

**El verano que vivimos**
Egubakoitzetik domekara: 16:40, 19:00.
Astelehenetik eguenera: 16:50.c

**Rocca cambia el mundo**
Egunero, domeka izan ezik: 17:25.
Domeka: 12:00, 17:25.

**La primera Navidad**
Egunero: 17:05.

**Para toda la vida**
Egunero, domeka izan ezik: 17:10, 19:25.
Domeka: 12:00, 17:10, 19:25.

**Otra vuelta de tuerca**
Egubakoitza eta zapatua: 19:20.
Domekatik eguenera: 17:25, 19:20.

**Wendy**
Egunero, domeka izan ezik: 19:05.
Domeka: 12:00, 19:05.

**Nieva en Benidorm**
Egunero: 16:40, 19:00.

**Estandar**
Egunero, domeka izan ezik: 19:10.
Domeka: 12:00, 19:10.

**La leccion de aleman**
Egubakoitza eta zapatua: 16:55, 18:50.
Domekatik eguenera: 18:50.

**El jinete del dragon**
Egubakoitzetik domekara: 17:20.



*Nieva en Benidorm* pelikularen fotograma bat.

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es

goiena
Zu hemen zaude.

AZKEN BERBA



MIKEL IRIZAR

## 20 urte

Barru-barrutik tokatu zitzaidan bizitzea Goiena Komunikazio Taldearen sorrera duela 20 urte. Nire ohiko lana bi urtez utzi, eta eskualdeko komunikabideen bateratze prozesuan murgildu nintzen, kezka handi bati ilusio are handiagoz helduta. Inoiz esan dut sekulako giza abentura izan zela niretzat hainbeste borondate bateratzeko prozesua. Eta asko estimatu izan diet orduko bidelagunei une erabakigarri hartan erakutsi zuten eskuzabaltasuna: bozketa bakar bat gabe, une oro adostasuna eraikiz egin genuen bi urteko bidaia.

Hogei urte geroago, Goiena garatuta dago, indartuta. Eta eredu bihurtu da puntu askotan: multimedia izaera, gobernantza partekatua, eskualdekako antolamendua, herri-ikuspegi sistemikoa, kudeaketa aurreratua... Sortzen ari ginela usaindu genuen bidearen berritasuna. Baita pentsatu ere kezka beretik abiatuta berehala etorriko zirela antzeko ekimenak beste eskualde batzuetan. Baina denbora behar izan da horretarako, eta orain ari dira gorputzen han eta hemen. Zorionez gorputzu ere, ze gure komunitatearen iraupena eta garapena ez dira posible komunikazio sistema propiorik gabe. Zorionak, Goiena, eta eutsi bideari!

BUKATZEKO



Aspaceko erabiltzaileak otarreak egiten, artxiboko irudi batean. ASPACE ARRASATE

# Biltegiak hustu, otarreak produzitzen jarraitzeko



Aspaceko kideek zumezko otarreak egiten dituzte, baina azken hilabeteetan salmentak jaitsi egin dira, eta ale gehiegi dauzkate biltegian. Hori dela eta, azpimarratu dute beharrezkoa zaiela eskuz egiten dituzten otarreak saltzea

**Karmele Uribesalgo** ARRASATE

Zumezko otarreak egiten dituzte Aspacek Gipuzkoan dituen bederatzi eguneko zentroetan. Garuneko paralisiaren elkartea da, eta egoitzak ditu Arrasaten eta Bergaran. Pandemia dela eta, denbora batez itxita egon dira zentroak, eta ezin izan dituzte egindako produktu horiek saldu. Ondorioz, biltegia beteta daukate, eta, horri irtenbidea emateko, euren lanak ezagutarazten ari dira. Izan ere, biltegiratuta daukaten materiala saldu ezean, gelditu egin beharko dute produkzioa.

Maite Otxoa Aspace Arrasateko eguneko zentroko hezitzailea da, eta, azaldu duenez, orain arte egindako otarreak saltzea komeni zaie: "Tristea da ikustea egindako lanak ez direla jendearengana iristen, eta, gainera, denborarekin, hainbat otarre hondatu egiten dira".

Otxoak adierazi du normalizaziorako ekimen moduan jarri zutela martxan zumezko otarreak egiteko proiektua. "Erabiltzaileen bizitzei edukia emateko lan jarduera bat da; modu horretara erabilgarri sentitzen dira, eta euren lana baloratu egiten dela nabari dute", adierazi du Otxoak. Gaitasunen arabera, nork bere ardura dauka taldean, eta, era horretara, erabiltzaile guztiak dira amaierako emaitzaren egile. "Parte hartzea eta talde bateko kide direla sentiaraztea da gure filosofiaren oinarrietako bat", nabarmendu du Otxoak. Izan ere, taldeko partaide bakoitzari transmititu nahi diote bera ere garrantzitsua eta beharrezkoa dela.



### Askotariko eskulanak

Mota askotariko otarreak egiten dituzte Aspacen; besteak beste, komunerako erretiluak, ahozapitakoak edo bestelako saskiak fabrikatzen dituzte, eskuz. Behin eginda, kalitate-kontrola pasatu, eta salgai jartzen dituzte. Supermerkatuetan eta azoketan saldu ohi dituzte ekoitzitako produktuak, eta partikularrek ere izaten dute eskuratzeko aukera.

Horrez gain, zentro bakoitzaren sarreran erakusgai izaten dituzte otarreak, eta Aspacerekin harremanetan jarrita erosi daitezke. "Katalogo bat daukagu, eta interesa daukatenek gure zentroetara deitu dezakete interesatzen zaizkien modeloak eskatzeko", zehaztu du Otxoak. Aspacetik herritarrak animatu dituzte euren ekarpena egitera eta saskiak eskuratzera.

2mó
progresibo erreflexuen aurkako lenteekin
229€
Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak




Otalora Lizentziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE
Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA
MULTIÓPTICAS
www.multiopticas.com